ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko urtarrilaren 11 > Astelehena > VII. urtea > 260. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net TOKIKOM

"AEBetara joandako euskaldunek bertsotan idazteko ohitura zeukaten"
Asun Garikano
Idazlea > 08



**G2a** Soziedad Alkoholika taldea gaztetuta > 29

**BERGARA** Lana aurkitzeko zailtasunak dituztenendako, Auzolan > 11

**YOGA** Arrasateko Eskolako sortzaile Jose Luis Armendiaren agurra > 14

**KIROLA** Eskiatzera joateko eskaintza zabala kirol elkarteekin > 24-25



GAZTETXOENAK GUSTUREN Leintz Gatzagako mutiko batzuk elurraz gozatzen eta gure argazkilariarekin punteria trebatzen .
JOSETXO ARANTZABAL

EGURALDIA > ELURTEA

# Mehatxupean izan dute ibarra elurrak eta izotzak asteburuan

**EZBEHARRA** Zapatu goizean 57 urteko antzuolar bat hil zen Zurrategin, garajeko izotza kentzen zebilela labanduta

**IZOTZA** Asteburuan elur dexente egin du, eta gauetan izotza; baina zorionez ez da zirkulazio istripu larririk izan

**AISIALDIA** Zapatuan eta domekan debagoiendarrak mendira igo edo elurretan jolasten ibili ziren > 12-13

MUSIKA > ARGITALPENAK

## Danbakako finalisten diskoak

Danbakako hirugarren edizioan finalistak izan ziren hiru taldeen (The Wet Band, Adi Holden eta Norman) diskoek bat egingo dute laster saltokietan. > 30-31

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

ZIKLISMOA > EUSKALTEL

## Iban Velasco denboraldia hasteko prest

Txirrindulari arrasatearra gaur da Australiara abiatzekoa, hurrengo martitzenetik aurrera Tour Down Under lasterketan parte hartzeko. Hegazkina hartu aurretxoan, elkarrizketa egin diogu Euskaltelekoari. > 22-23



Iban Velasco. X.URTZELAI

JENDARTEA > KRISIA

## Laguntza eskaerak igo dira

Caritasen %25etik gora igo dira premiak; eta laguntzaileak ere behar dituzte > 03



Saskibaloi partidurako sarrerak opari. Nahi?
Zoaz 7. orrialdera

Xacobeo 2010
Galicia

EROSKI
zurekin

2010eko urtarrilaren 7tik 13ra produktu freskoetan.
Urtarrilaren 23ra 1, 2, eta 3 euroko sustapenean
eta urtarrilaren 27ra arte azokan, etxetresna elektrikoetan
eta ehunkietan.

*www.eroski.es*
Zuk esandakoa entzun egingo dugu:
902 54 03 40

**Produktuak €1 2€ 3€ -tan**




€1

4 puntu gehiago

**DANONE** VitaliNea jogurt gaingabetua, naturala edo zaporeak, 4x125 g-ko pack-a




2€

Oliba-olioa EROSKI
suabea, 0,4° edo bizia
1°, litro 1

**JENDARTEA** > KRISI EKONOMIKOA

# Caritasen %25etik gora igo dira behartsuen laguntza eskaerak

**KOPURUA HIRUKOIZTU** Arrasaten, udatik hona hirukoiztu egin da laguntza behar duten lagunen kopurua; lan barik dauden atzerritarrak dira gehienak

**ALOKAIRUA ETA JANA** Etxeetako alokairua ordaindu ahal izateko laguntzak asko eskatzen dira orain; jakiek eta arropek ere harrera ona dute

**BOLUNTARIO FALTA** Erakundeak Arrasaten, Bergaran eta Oñatin dituen egoitzetan boluntario gehiago behar dituztela jakinarazi digute

MIRIAN BITERI > BERGARA

Krisi ekonomikoak eragin handia du gutxien dutenen artean; horretaz beste inon baino hobeto ohartu dira Caritasen. Gipuzkoako erakunde horretako Jose Emilio Lafuentek esan digu hartu dituzten pertsonen kopurua nabarmen igo dela 2008ko udatik gaur arte. Lafuenteren esanetan, "2008. urtean, Gipuzkoan, 20.000 lagun inguru lagundu genituen; hain justu ere, aurreko urtean baino 5.000 pertsonatik gora". Gaineratu du 2009ko memoria oraindik egin barik badute ere, eskaera kopurua handitzen joan dela eta, hortaz, joan den urtean 20.000tik lagunetik gora hartu zituztela.

Debagoieneko egoera ere antzekoa da. Arrasateko Caritasen izenean Horazio Argaratek azaldu digu udatik hona hirukoiztu egin direla han eskaerak eta errekurtso gutxien dituztenak direla okerren daudenak: "Bertakoak, kooperatibak direla-eta, orokorrean babestuagoak daude. Gutxi batzuk ditugu, baina, normalean, aurretik ere bestelako arazoak dituzten herritarrak dira, hala nola ludopatiarekin edo drogarekin lotuta daudenak. Lanik ez duten atzerritarrekin eta kale gorrian bizi direnenekin arduratuta gaude".

Azken horien harira, aipatu digu inongo laguntzarik ez duten 20 gizonezko eta 50 emakume inguru laguntzen dituztela: "Udalak laguntzak Jaurlaritzara tramitatzen baditu ere, azken horrek hiru bat hilabete behar ditu emateko. Ahozko akordioa daukagu, Udalarekin laguntzak jaso bitartean horiek aurreratzeko".



Arrasateko Caritas martitzenetan eta egubakoitzetan dago zabalik, 17:00etatik 19:00etara. HORAZIO ARGARATE

### TRAMITAZIOA AZKARTZEA

Horren harira, Bergarako Caritasen dabilen Mila Anduezak eskaera zehatza egin nahi izan die administrazioei; hain justu ere, laguntzen gaineko tramitazioa "azkar" dezatela: "Askotan hiru, lau edo bost hilabete pasatzen dira eta ez dute erantzunik ematen. Jende asko egoera larrian dago, eta erantzuna ahalik eta azkarren eman dezatela eskatzen dugu".

Bergaran ere igarri dute udatik hona askoz jende gehiago doala Caritasera, eta, hori dela-eta, harrera orduak handitu egin behar izan dituzte. Orain, hileko lehenengo eta hirugarren martitzenetan 18:00etatik 19:30era tramitatzen dituzte laguntzak. Anduezaren esanetan: "Zenbaki bidez gabiltza hitzordua ematen. Martitzenero 10-12 lagun hartzen ditugu. Dena dela, agian bide bat bilatu beharko dugu, lanez lepo gaude-eta; bereziki, atzerritarrak dira Bergarako Caritasera datozenak".

Oñatiko egoitzan dauden lagunek ere lan handiagoa dute orain. Kanpoko jende asko hartzen badute ere, oñatiar asko ere laguntza eske joaten direla azaldu digu Angelita Mendiaratzek: "Lan barik geratu direnak, familia desegituratuetako kideak eta alargunak etortzen dira guregana".

### ETXEETAKO ALOKAIRUA

Bestalde, askotariko zerbitzuak eskatzen dituzte, eskatzailearen profilaren araberakoak. Dena dela, herri guztietan igarri dute etxeetako alokairua ordaintzeko laguntza gehiago ematen dituztela krisian gaudenetik. Baina, horretaz gain, herri bakoitzean zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzte. Bergaran, esaterako, Anduezak esan digu janaria dela gehien eskaintzen dutena: "Hilean behin bonu bat ematen diegu, herriko denda batera joan daitezen eta behar dituzten jakiak har ditzaten. Jateko edo garbiketarako produktuak bakarrik eska ditzakete; edaririk ezin dute hartu". Oñatin ere jaki asko ematen dituzte.

Krisian gaudenetik, arropak ere oso harrera ona du eskatzaileen artean. Bergaran izan ezik –udazkenean utzi zioten zerbitzu hori eskaintzeari–, gainontzeko bi herrietan jantzitegia dute. Horren harira, Argaratek azaldu digu Arrasaten denda askok erabili gabeko arropa ematen dutela.

Arrasaten, gainera, zerbitzu berezi bi dituzte: batetik, Pesarekin akordioa dute eskatzen dutenei autobuseko bonua doan emateko; bestetik, emakumeei, nagusiak zaindu edo etxeak garbitzeko lanak topatzen dizkiete. Argarate oso pozik dago azken horrekin: "Lan egin nahi dutenek edo norbaiten bila dauden arrasatearrek guregana jotzen dute".

### BOLUNTARIOAK ETA ARROPA

Zerbitzua behar bezala eskaini ahal izateko, Caritasek hainbat behar ditu. Guztiek boluntarioak behar dituztela nabarmendu dute. Gaur egun, Arrasaten 12 bat lagun daude; Bergaran, lau; eta Oñatin, sei. Argarateren arabera, "ondo egongo litzateke taldea handitzea eta gaztetzea". Arrasaten eta Oñatin ere arropa eskertzen dutela aipatu dute hango kideek. Azken herri horretan martitzen arratsaldean dago bulegoa zabalik.

### OÑATI, "ESKUZABALA"

Mendiaratzek, azkenik, eskerrak eman nahi izan dizkie oñatiarrei, ematen dituzten dohainengatik: "Krisian gaudenetik nabari izan dugu abenduan dohain gehiago jasotzen ditugula, eta hori pozgarria da. Oñati horretarako eskuzabala da. Horretaz gain, hainbat lagun ditugu hilero laneko egun batean lortutakoa Caritasera bideratzen dutenak".

ESANAK

**"Hilean behin bonu bat ematen diegu, herriko denda batera joan daitezen eta behar dituzten jakiak har ditzaten"**

**Mila Andueza** > Bergara

**"Krisian gaudenetik nabari izan dugu abenduan dohain gehiago jasotzen ditugula, eta hori pozgarria da"**

**Angelita Mendiaratz** > Oñati

KANPAINA BERRIA

## 500.000 euro etxea galtzeko arriskua dutenei

Gipuzkoako Caritasek kanpaina berria jarri du asteon martxan. Erakunde horretako idazkari orokor Jose Emilio Lafuentek azaldu duenez, gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoa dela-eta etxebizitza galtzeko arriskua duten eta inongo laguntzarik ez duten herritarrei eta familiei zuzenduta dago ekimen hori; hain justu ere, hilero ordaindu beharreko mailegua ordaindu ezin dutenei eta etxe barik geratzeko arriskua dutenei. Lafuenteren arabera, "beste erremediorik ez bada, bakarrik eskatu ahal izango da hori". Bada, kasu horiei irtenbidea emateko, Caritasek 500.000 euroko partida bideratu du.


Aurreko urteotan erantzun bikaina jaso du ibarrean Sahararen aldeko kanpainak. GOIENKARIA

**ELKARTASUNA** > 'PIZTU ITXAROPENA' KANPAINA

# Abian da Sahararen aldeko laguntza kanpaina

Aurten ere arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea eta sardinak oliotan, azukrea eta konpresak batzea da helburua

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Azken urteotako ohiturari jarraituz, ibarreko hainbat taldek Saharako errefuxiatuendako elikagaiak biltzeari ekin diote. *Sahararen aldeko euskal karabana. Piztu itxaropena* lelopean, arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea eta sardinak oliotan, azukrea eta konpresak batzea da helburua. Karabanaren seigarren ekitaldia da aurtengoa.

Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Oñatin Nubi eta Iesbaa elkarteetako kideek abiarazi dute kanpaina. Eskola, ikastola eta komertzioetan jasoko dituzte sahararrendako elikagaiak zapatura arte (urtarrilak 16).

Aurreko urteotan bezala, dirulaguntza emateko aukera izango da. Interesatuek Euskadiko Kutxako 3035 0080 94 0800054177 kontu korronte zenbakian egin dezakete diru ekarpena. Edozein argibidetarako, Gipuzkoarako telefono zenbakia hauxe da: 619 02 94 68.

**BUBISHER ERE BAI**

Bergaran elikagaiak batzeko kanpaina urtarrilaren 22a arte izango da. Nubi eta Iesbaa elkarteek jasotzen diharduten elikagaiak jasotzeko dei egin du Bubisher elkarteak. Bergarako ikastetxeetan ez ezik, Elgeta, Angiozar, Antzuola eta Soraluzeko ikastetxeetan ere egingo dute bilketa.

Kutxan dirulaguntza emateko aukera eskaintzen du Bubisherrek. Hau duzue Kutxako kontu korronte zenbakia: 2101 0070 86 0124795568. Solidaritaterako dei egin dute Bubisherkoek.

## Urtez urte lanean ari diren elkarteak

Otsailean aterako den Euskal Karabanaren helburu nagusia herri sahararrari ahalik eta elikagai gehien eramatea da, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetan jasaten duten elikagai falta ahal den neurrian asebetetzeko asmoz. Aretxabaletako Iesbaa taldea Nubirekin elkarlanean ari da. 2006ko maiatzean sortutako elkartea da Aretxabaletakoa. Nubi, berriz, 2004. urtean sortu zuten Arrasaten eta Bergarako Bubisherrek 2005etik dihardu Sahararen alde lanean.

**GIZARTERATZEA** > GAZTEAK

# Elgetako Aixola baserrian jarri duten adin txikiko atzerritarren zentroa bukatuta

Aldundiaren esanetan, horren helburua da arazoak edo dependentziak dituzten gazte etorkinei laguntzea

**I.B.** > ELGETA

Urgatzi enpresak adin txikiko atzerritarrendako zentroa egokitu du Elgetako Aixola baserrian, Aldundiari enpresak eskumen hori eman diolako. 15 bat plazatarako lekua dauka zentro berriak eta hara zelanbaiteko dependentzia edo arazoak dituzten etorkin gaztetxoak eramango dituzte.

**FORMAZIO TAILERRAK**

Aldundiaren esanetan, zentro horren helburua da adin txikikoak artatzea eta birgizarteratzeko ahaleginak egitea. Hala, gerora homologatuak izan daitezkeen formazio tailerrak egingo dituzte: hala nola, baratzean aritzea, igeltseritza eta beste batzuk.

Asmoaren berri jakin zuenean, Elgetako Udalak eskatu zuen zer motatako zentroa eta zelan lan egingo zuten azaltzea; eta Aldundiak ordezkari bat bidali zuen azalpenak ematera.

Gerora, Batzar Nagusietan alderdietako ordezkariek gauza bera eskatu zuten eta abenduaren 17an zentroa bisitatu zuten. Haren arduradunek azaldu zieten berau laster jarriko zutela abian.

**Iraia Sola** > Jakioneko plan estrat. arduraduna

# "Zabaldu behar dugu zer den Jakion eta zer zerbitzu ematen dugun"

**IKER BARANDIARAN** > GATZAGA

**Gatzagan kokatuta dagoen Jakion enpresak 12 urte daramatza baserritarrei landatzen eta ekoizten jarrai dezaten laguntzen. Horien jakiak poteetan sartu eta merkaturatu egiten dituzte. Mankomunitatea, Landa Garapena eta baserritarrak dira jabeak. Hainbat erronka ditu aurrera egin eta baserritarren alde egiteko.**


Iraia Sola. GOIENKARIA

**Hainbat udalbatzatan Jakionen parte-hartze handiagoa onartzen dabiltza. Zer puntutan dago ekimena? Eta zeintzuk dira premiak?**

Jakionen plan estrategikoa idazten hasi ginenean pentsatu genuen ezinbestekoa zela erakundeen inplikazioa handitzea (ibarreko udalek, Foru Aldundiko Landa Garapenak eta baserritarrek osatzen dute); hain zuzen ere, tartean ekoizpenean eta komertzializazioan inbertsioak egin beharra dagoelako. Honezkero hainbat osokotan egin dute aurrera; Arrasate, Bergara eta Elgeta falta dira bakarrik.

**Enpresaren kokagune berria aztertzen zabiltzate?**

Oraindik ez. Derrigorra da lekua aldatzea, azpiegiturak honezkero ez direlako nahikoak, eta enpresak hartu duen bolumena handiagoa delako. Adibidez, lekuak baldintzatuta, une honetan ezin ditugu animali kontserbak egin. Aurrera egiteko eta plan estrategikoa garatzeko, ezinbestekoa da kokagune berria, baina aurretik gauza asko egin eta aztertu behar dira.

**Askotan esan ohi da baserriek etorkizun txikia dutela, baina Jakionen emaitzek bestelakoa diote…**

Bai, egia da. 2009ko balantzea ez da txarra izan, are gehiago, krisia kontuan hartzen badugu; baina 2008koa, esaterako, oso ona izan zen. Horren baitan, Jakionera baserritarrek produktuak ekartzen dituzte eta guk poteetan sartzen ditugu. Kasu batzuetan eurek merkaturatzen dituzte; horri eraldaketa deitzen diogu. Ba, kontua da, aurten inoiz baino baserritar gazte gehiago etorri zaizkigula. Egia da sektorea oso motel dagoela eta ibarrean baserri bizimodua desagertzeko zorian dagoela, baina bada baikor egoteko punturen bat.

**Marketinga eta sare komertziala hobetu gura dituzue…**

Bai. Konturatu gara ez garela ezagunak eta kanpo komunikazioa landu behar dugula. Horretarako webgunea egin behar dugu eta horrek eskaintzen dituen erremintak erabili, baita propaganda gehiago egin ere. Zabaldu behar dugu zer den Jakion, zer zerbitzu ematen duen eta zer filosofia daukan.

Bestalde, guk zuzenean bakarrik Gipuzkoako denda txiki eta *delicatessen*-etan saltzen dugu. Merkataritza guneetan, berriz, Lurlanen bitartez saltzen dugu. Asmoa da hasiera batean guk zuzenean Araba eta Bizkaiko denda txiki eta *delicatessen*-etara ere jotzea, kalitatea baloratzen den lekuetan, hori da-eta gure marka.

**"Inbertsio berriak-eta egiteko, erakundeen inplikazio handia behar dugu"**

**"Ezinbestekoa da kokagunez aldatzea, oraingo azpiegiturak ez direlako nahikoak"**

**"Aurten baserritar gazte askok jo dute gugana produktuak poteetan sartzeko"**

**"Salmenta zuzena egiterakoan, Araba eta Bizkaiara ere salto egin gura dugu"**

**EZBEHARRA** > IZOTZA

# Antzuolako 57 urteko gizonezko bat hil da ustez izotzarekin labandu eta kolpea hartuta

Antzuolarraren heriotzaren arrazoiak argitzeko Donostiara eraman zuten gorputza; han autopsia egiteko asmoa zuten

**I.B.** > ANTZUOLA

Zapatu goizean gertatu zen ezbeharra. Ertzaintzak jakinarazitakoaren arabera, goizean, 07:40ean, Antzuolako Zurrategi kalean, garajeko sarreratik izotza kentzen zebilela, 57 urteko herritar bat lurrera jausi zen. Berehala, anbulantzia medikalizatu bat ezbeharra gertatutako lekura bertaratu zen, baina 08:00etan jakinarazi zuten gizonezkoa hilda zegoela.

Gorpua Donostiako Auzitegiko Institutu Anatomikora eraman dute autopsia egin, eta heriotzaren nondik-norakoak argitu gura dituzte .

**EPAIA** > TRATU TXARRAK

# Oñatiko emakume bati kartzela zigorra ezarri diote etxekoei min egiteagatik

2004 eta 2007 bitartean modu jarraian gurasoak eta ahizpa iraindu eta mehatxatu egin zituen; eta tarteka, eraso ere egin zien

**I.B.** > OÑATI

Donostiako Auzitegiak Oñatiko 50 urteko emakume bat zigortu berri du gutxienez lau urtetan modu jarraian gurasoei eta bere ahizpari tratu txarrak eman eta haiek jo izanagatik. Hala, urte erdiko kartzela zigorra egotzi diote eta akusatuak ahizpari 300 euroko kalte-ordaina eman beharko dio lehenbailehen. Horrez gain, epaian zehaztu dute inkulpatuak galarazita izango duela lau urtetan gurasoengana eta ahizparengana hurbiltzea; ezinezkoa izango du.

**2004 ETA 2007 BITARTEAN**

Epaiak zehaztu duenaren arabera, gertaerak 2004 eta 2007 bitartean eman ziren familiaren etxean, Oñatin; eta salaketak jaso izan ostean, epaitegiek biktimen aldeko babes neurriak hartzea erabaki zuten, familiakoei laguntzeko. Ez hori bakarrik: gertaera horien argitzea epaileen esku gelditu zen. Ordura arte, 2007ra arte, aipatutako emakumeak luzaroan familiakoak iraindu eta mehatxatu egin zituen; are gehiago, epaiaren esanetan, zenbait kasutan familiakoei eraso fisikoak egin zizkien, haiei kalteak sortaraziz.

**ZIGORRA ONARTU DU**

Epaiketak iraun zuen bitartean eta baita horren bukaeran ere, akusatuak berak fiskalak aurreikusitako delitua onartu egin zuen: luzaroan etxekoei tratu txar fisiko eta psikikoak eragin izana, hain zuzen ere; eta hori da aintzat hartu dutena. Hortaz, epaileak akusatuari urte erdiko kartzela zigorra betetzera eta 14 egun bakoitzeko aurkitze iraunkorrean egotera (hau da, bitarte horretan epaitegira sinatzera joan behar izatea) derrigortu du emakumea.

**IRUZURRA**

# Iruzurgile bat, etxe berogailuak ikuskatzen

Arrasaten salaketa jaso dute: dirua hartu zuen, inolako konponketa barik

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Arrasateko Udaltzaingoak oharra zabaldu zuen egubakoitzean abisatuz iruzurgile bat pertsona nagusien etxeetan sartzen zebilela berogailuen teknikaria zela esanez. Azaldu dutenez, emakume edadetu baten salaketa jaso zuten udaltzainek; eta haren azalpenaren arabera, gizonezko bat etxera joan zitzaion berogailua ikusi beharra zeukala esanez.

Emakumeari askotan tematu eta gero, itxuraz errebisioa egin eta 100 euro eskatu zizkion. Dirua eskutan zuela, tele-asistentzia gailua deskonektatu eta alde egin zuen iruzurgileak. Horren gaineko salaketak jartzeko, 943 79 14 39 edo 112ra deitu.

**etxeko leihotik**



**Inazio Arregi** > 'zuzen@goiena.com'

# Militantziaz

Daurtengo bertsolari txapelketaren ajeak pasatu gabe zeudela, irratiko tertuliano bati entzun nion biharamunean, BEC-en bertsolariei entzuteko 15.000 lagun biltzeak, militantzia jarrera sendoa adierazten zuela.

Ederto! Zezen plaza batera, zezenak nola akabatzen dituzten ikustera doanari onartzen diogun zaletasuna ezin bada onartu bertsolariak entzutera doanari.

Jarrera horiek harritzekoak badira ere, nago erruaren zati bat gurea dela, militantzia hitza hara eta hona erabili izan dugulako euskararen gaiez jardun izan garenetan.

Euskarari eta bere munduari zaletasuna, maitasuna, atxikimendua eta erabilpena eskaini behar zaizkio, euskaraz bizi izatea posible izan dadin inolako etiketa arrarorik gabe.

> **"Euskarari maitasuna eta erabilpena eman behar zaio etiketa barik"**

Horrela bakarrik ulertu eta onartuko dugu euskaraz bizi izateko edozeinek duen eskubidea. Edota alderantziz, euskaraz bizi izateko dugun eskubidea naturaltasunez onartzen dugun une beretik onartu beharko dugu ere; hain zuzen ere, ez dagoela horretan inolako jarrera militanterik, baizik eta hautu natural bat.

Horrela jokatzen ez dugun bitartean, euskararen mundua gutxiesten ari garela iruditzen zait niri; hala, inplizituki onartuaz bagabiltza mundu horretan murgiltzeko "zerbait" bat derrigorrezkoa dela.

**> Iruñea-Veleia**

**Aurrekoan idatzi nuen Iruña-Veleiako gaiaz. J.M. Elexpururen elkarrizketa irakurri dut ostiralean eta uste dut eztabaida zientifikoa, sanoa eta beharrezkoa izango dela ezer argituko bada. Nola bultzatu?**

**> Ekonomia**

**Eta zer esan adierazle ekonomikoen gainean? Ilusioa pizten duen bakarra beherapenena dela. Ez dago hau baino kimu berde hoberik. Ken diezaiogun bada zatitxo bat kimuari, neguko hotzetatik babesteko.**

**ZABORRA** > PLASTIKO BILKETA

# Baserri ingurunean sortutako plastikoa batzeko zerbitzua, urtarrilaren 26an abian

Landa Garapen Elkarteak plastikoa batzeko egutegia kaleratu du; urtean zortzi aldiz batuko dute plastikoa Debagoieneko hainbat tokitan

**E.M.** > BERGARA

Baserri ingurunean sortutako plastikoa batzeko 2010eko egutegia kaleratu du Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak. Hain zuzen ere, lehenbiziko plastiko bilketa urtarrilaren 26an egingo dute. Guztira, urtean zortzi aldiz arduratuko da Landa Garapen Elkartea plastikoa batzeaz.

Bilketa lekuak hauexek dituzue: Eskoriatzan, Zarimutzeko bidegurutzean; Aretxabaletan, Lausitan (Izurieta bidegurutzetik 100 m-tara), Bañuetxen (Mendiolako bide parean) eta Oroko bidegurutzean; Antzuolan, Supide azpialdeko aparkalekuan; Oñatin, Zanartun (Zuazola inguruan), Murgialdain (Asentsio ermitan) Olabarrietako autobus geltokian eta Eteo ikastetxearen atzealdean; Bergaran, berriz, Ugarrixan, granja parean; Murinondon (trenbide zaharraren ondoan) eta San Juan auzoko eliza aurreko plazan.

**LEKUZ ALDATZEKO AUKERA**

Plastikoa arratsaldez utzi beharko da esandako lekuetan eta bilketa lekuren bat aldatzeko interesa dutenek Landa Garapen Elkarteko bulegora (Urteaga 21, Bergara), 943 76 25 47 telefono zenbakira deitu dezakete.

Era berean, aurrez goian aipatutako telefono zenbakira deituta, noizbehinka ondoko lekuetan ere egingo dute bilketa: Arrasaten (Udala, Bedoña eta Garagartza auzoetan); Gatzagan (Dorletako bidegurutzean), Bergaran (Elosuan, Santutxun) eta Elgetan.

**PLASTIKO MOTA EZBERDINAK**

Aurreko urteotan bezala, batuko den plastiko mota hauxe izango da: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; belar boletan erabiltzen den plastiko beltza; negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; eta negutegiko plastiko zuria.

## Plastikoa batzeko egunak

- > Urtarrilak 26
- > Otsailak 23
- > Martxoak 23
- > Maiatzak 25
- > Uztailak 27
- > Irailak 28
- > Azaroak 23
- > Abenduak 28

Iturria: Landa Garapen Elkartea.

**EKONOMIA** > INEM-EKO DATUAK

# Langabezia tasek behera egin dute abenduan

Oraindik ere datuak kezkagarriak izan arren, beheranzko joera mantendu egiten dela dirudi; Udaberrian izan genituen daturik txarrenak ibarrean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Urtea bukatzean 3.319 langabe ziren Debagoienean, INEMek berriki kaleratutako datuen arabera. Aramaio izan ezik, Debagoieneko gainerako herriak hartzen ditu kontuan INEMek langabeziari buruzko datuen berri ematerakoan. Beheko koadroan 2009ko datuak dituzue.

**BEHERANZKO JOERA**

Abenduko datuak ez dira onak, baina beheranzko joera mantendu egiten dela dirudi. Udaberrian izan genituen daturik txarrenak Debagoienean. Martxoan, esaterako, 3.469 langabe ziren Debagoienean (%11,19). Urtarrilarekin alderatuz, 211 langabe gehiago zenbatu dituzte abenduan.

Arrasatek zuen urte amaieran ibarreko langabezia tasarik handiena (%12,48). Amaitu berri dugun urteko tasarik handienak, baina, Eskoriatzak markatu ditu; apirilean eta ekainean, %13tik gorako datua, hain justu ere.

INEMeko datuen arabera, biztanleria aktiboaren kopuruak herriz herri honako hauek dira: Arrasaten 11.571 lagun; Bergaran 7.175; Oñatin 5.404; Aretxabaletan 3.227; Eskoriatzan 2.079 lagun; Antzuolan 910; Elgetan 492; eta, azkenik, Leintz Gatzagan, 133.

Abenduan Euskadin 747 langabe gehiago zeuden erregistratuta azaroan baino. Horren ondorioz, % 0,6ko igoera izan da. Carlos Zapatero Laneko sailburu ordearen hitzetan, "kopuru horiek oso urruti daude iazko abendukoetatik; izan ere, orduan krisi ekonomikoa bere fase gogorrenean zegoen". 2009ko abenduan 128.201 langabe zeuden, aurreko urtean baino 27.500 gehiago, eta % 27,4ko igoera izan da bi urteren artean, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren datuen arabera.

## Langabezia Debagoienean 2009an

| | Urtarrila | | Otsaila | | Martxoa | | Apirila | | Maiatza | | Ekaina | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | TASA | GUZTIRA | TASA | GUZTIRA | TASA | GUZTIRA | TASA | GUZTIRA | TASA | GUZTIRA | TASA |
| Antzuola | 87 | %9,56 | 94 | %10,33 | 97 | %10,66 | 86 | %9,45 | 84 | %9,23 | 89 | %9,78 |
| Aretxabaleta | 342 | %10,60 | 363 | %11,25 | 368 | %11,40 | 368 | %11,40 | 358 | %11,09 | 367 | %11,37 |
| Arrasate | 1.325 | %11,45 | 1.442 | %12,46 | 1.500 | %12,96 | 1.465 | %12,66 | 1.423 | %12,30 | 1.397 | %12,07 |
| Bergara | 633 | %8,82 | 711 | %9,91 | 707 | %9,85 | 715 | %9,97 | 697 | %9,71 | 723 | %10,08 |
| Elgeta | 38 | %7,72 | 46 | %9,35 | 47 | %9,55 | 44 | %8,94 | 38 | %7,72 | 40 | %8,13 |
| Eskoriatza | 258 | %12,41 | 266 | %12,79 | 267 | %12,84 | 274 | %13,18 | 265 | %12,75 | 275 | %13,23 |
| Leintz-Gatzaga | 13 | %9,77 | 11 | %8,27 | 14 | %10,53 | 11 | %8,27 | 11 | %8,27 | 12 | %9,02 |
| Oñati | 412 | %7,62 | 440 | %8,14 | 469 | %8,68 | 480 | %8,88 | 482 | %8,92 | 449 | %8,31 |
| **GUZTIRA** | **3.108** | **%10,03** | **3.373** | **%10,88** | **3.469** | **%11,19** | **3.443** | **%11,11** | **3.358** | **%10,84** | **3.352** | **%10,82** |

| | Uztaila | | Abuztua | | Iraila | | Urria | | Azaroa | | Abendua | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | TASA | GUZTIRA | TASA | GUZTIRA | TASA | GUZTIRA | TASA | GUZTIRA | TASA | GUZTIRA | TASA |
| Antzuola | 82 | %9,01 | 91 | %10,00 | 90 | %9,89 | 97 | %10,66 | 97 | %10,66 | 95 | %10,44 |
| Aretxabaleta | 358 | %11,09 | 364 | %11,28 | 367 | %11,37 | 352 | %10,91 | 344 | %10,66 | 353 | %10,94 |
| Arrasate | 1.434 | %12,39 | 1.438 | %12,43 | 1.435 | %12,40 | 1.373 | %11,87 | 1.369 | %11,83 | 1.444 | %12,48 |
| Bergara | 720 | %10,03 | 746 | %10,40 | 719 | %10,02 | 723 | %10,08 | 732 | %10,20 | 722 | %10,06 |
| Elgeta | 45 | %9,15 | 46 | %9,35 | 41 | %8,33 | 40 | %8,13 | 35 | %7,11 | 35 | %7,11 |
| Eskoriatza | 267 | %12,84 | 263 | %12,65 | 266 | %12,79 | 246 | %11,83 | 232 | %11,16 | 234 | %11,26 |
| Leintz-Gatzaga | 12 | %9,02 | 11 | %8,27 | 13 | %9,77 | 12 | %9,02 | 12 | %9,02 | 13 | %9,77 |
| Oñati | 414 | %7,66 | 437 | %8,09 | 432 | %7,99 | 394 | %7,29 | 393 | %7,27 | 423 | %7,83 |
| **GUZTIRA** | **3.332** | **%10,75** | **3.396** | **%10,96** | **3.363** | **%10,85** | **3.237** | **%10,44** | **3.214** | **%10,37** | **3.319** | **%10,71** |

ITURRIA: INEM




Gureak-ek Garaian irekiko duen jatetxeak 160 lagunendako tokia dauka. JOSETXO ARANTZABAL

**GARAIA** > ZERBITZU BERRIA

# Gureak-ek gaur zabalduko du Garaia guneko jatetxea

Zortzi gutxituk, sukaldari nagusiak eta jatetxeko arduradunak egingo dute lan; 'self-service' zerbitzua eskainiko du astelehenetik zapatura

**E.M.** > ARRASATE

Azkenik, gaur, astelehena, zabalduko du Gureak-ek Garaia Berrikuntza Guneko jatetxea. Uribarriko jatetxe berriak 160 lagun ingururendako tokia dauka eta bertan zortzi gutxituk, sukaldari nagusiak eta jatetxeko arduradunak egingo dute lan. Astelehenetik zapatura bitartean izango da zabalik, 08:00etatik 16:00etara, eta *self-service* erara funtzionatuko du. Gureak-eko ostalaritza zerbitzuko arduradun Tomas Urtzelairen arabera, eguneko menuak 8,50 euro balio izango du eta erabiltzaileek, egunero, hiruzpalau plater izango dituzte aukeran. Era berean, 10 edo 20 jatordutarako bonuak erosteko aukera egongo da, 8 eurotan jatordu bakoitza. Pintxoak, ogitartekoak eta kafetegiko gainerako zerbitzuak ere eskainiko dituzte. Afariak aurretik enkargatuta emango dituzte. Uribarri auzokoa Gureak-ek kudeatzen duen bigarren *self-service* jatetxea izango da. Hain zuzen ere, Donostiako Euskal Herriko Unibertsitatearen campusean dagoena ere Gureak-en ardurapean dago. Gipuzkoan, denera, zortzi jatetxe dauzkate, 50 lagun inguruko lantaldearekin.

**OSIÑATIK GARAIARA**

Garaia Berrikuntza Guneko jatetxean lan egingo duten zailtasun fisiko eta psikikoak dituztenak Arrasatekoak dira, orain arte Osiñako poligonoko tailerretan jardun dutenak, hain zuzen ere. Jakinarazi dutenez, sukaldari nagusia Jesus Kalboetxeaga bergararra izango da.

**KOMUNIKAZIOA** > SENTENTZIA

# Eroskiri kalte morala eragitearren Schlichting kazetaria zigortu dute

Cristina Lopez Schlichting kazetariak 3.000 euro ordaindu beharko dizkio Eroskiri, Batasunarekin lotzearren

**E.M.** > ARRASATE

Cope irrati kateko Cristina Lopez Schlichting kazetariak 3.000 euroko isuna ordaindu beharko dio Eroskiri, supermerkatu kateari Batasuna babesten duela leporatzearren. 2005eko maiatzean, Lopez Schlichtingek Batasuneko bozeramaile Arnaldo Otegiren fidantzaren ordainketan laguntzea leporatu zion Eroskiri. Kazetariaren arabera, ordainketa Euskadiko Kutxaren abalarekin egin zen. Era berean, *La tarde con Cristina* irratsaioko aurkezleak, besteak beste, Fagor eta Irizar enpresei boikota egitera deitu zuen; "Eskuak odolez zikindu ez ditzazuen, enpresarik ezagunenak identifikatu ditugu", gaineratu zuen.

**OHOREA KALTETU**

Durangoko epaitegiak emandako sententziaren arabera, kazetariak supermerkatu katearen ohorea kaltetu zuen. Era berean, sententzia bere irratsaioan irakurtzera kondenatu zuten Lopez Schlichting, eta halaxe egin zuen abenduaren azkenetan.




Arrasateko Hiper Eroski. JOSETXO ARANTZABAL

auzorik auzo

**GELLAO** > Eskoriatzako auzoa da Gellao; baina, Iker Akixu auzo-alkateak azaldu duen moduan, Aretxabaletarekin harreman estua du auzoak. Andra Mariaren parrokia eta Paduako San Antonio ermita ditu ikusteko, besteak beste.



Akixu, Gellaon; atzealdean, Andra Mariaren parrokia eta auzoko baserri batzuk. A.E.

**Iker Akixu** > Gellaoko auzo-alkatea

# "Euria gogor eginez gero lur mugimenduak sortzeko arazoak kezkatzen gaitu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

**17 baserri daude Gellaon, eta bertan 19 etxebizitza; biztanleak, ostera, 40 inguru dira. Iker Akixu da azkeneko hiru urteetan auzoko alkatea. Auzo lasaia dela dio, arazo larririk gabekoa. Dituzten kezkak euriak sor ditzakeen lur mugimenduak direla dio.**

**Zeintzuk dira gaur egun auzoak dituen arazo nagusiak?**

Kezka nagusia errepidearekin daukagu. Azkeneko urteetan, batez ere orain dela bi urte eta iaz, euri asko egin du. Auzo hau euri lekua da, ur asko doa azpitik. Hortaz, ur horiek lur mugimenduak eragiten dituzte. Gure kezka da berriro euria egiten duenean mugimendu gehiago egotea.

Orain bideak ondo daude. Sasoi batean bide zati bat itxita egon zen, baina orain irekita dago. Kezka da lur mugimenduak egoteko arriskua dagoela. Gainera, mugimendu horiek sor dezaketen kalteak konpontzea garestia da, eta momentu honetan ez dago dirurik.

**Errepide orokorra ere ez dago egoera oso onean.**

Ez, autobideko lanak direlaeta Gellaora etortzeko errepide nagusia hondatuta dago. Gertatzen dena da errepide zati hori ez dela Eskoriatzakoa, Aretxabaletakoa da. Hortaz, guk ez daukagu nora jo. Errepidea hondatuta egoteak eragiten digu hona etortzeko hortik pasa behar dugulako ezinbestean.

**Baserri gehienek ur depositua daukazue; baina herriko ura ere sartuta dago.**

Bai, orain dela hamar urte inguru sartu zuten auzo guztian Urkuluko ura. Galartzan dagoen depositu batera ponpatu zuten ura; eta gero, baserri guztietara hodiak sartu dira. Gertatzen dena da baserri ia guztiok daukagula depositua.

Adibidez, telefonoarekin daukagu arazoa orain. Aretxabaletan etxe mordoa egin dituzte Deba ibaiaren beste aldean, Txarapea auzoan. Bada, hori dela-eta ez da telefono seinalea ondo iristen Gellaora. Hori da, behintzat, eman diguten arrazoia. Internet seinalea sartu gura dutenekin ere berdina gertatzen da.

**"Andra Mariaren parrokiak ate erromanikoa dauka, ikusteko modukoa"**

**"Internet seinalea eta telefono seinalea hartzeko arazoak izaten ditugu"**

**Noiz ospatzen dituzue auzoko jaiak?**

Andramariak ospatzen ditugu, abuztuan. Meza egiten dugu, eta auzo-lokalean luncha egoten da. Beste urte batzuetan Arientzako kanpai-joleak etorri izan dira.

**Auzoak zer eskaintzen dio bisitariari? Kultura, ibilbideak...**

Andra Mariaren parrokia ikustera etorri izan da jendea. Ate erromanikoa dauka eta baita erretaula polita ere. Orain dela urte batzuk konpondu egin zuten eliza; gainera, auzoko emakumeak arduratzen dira eliza txukun izateaz. Bestalde, Paduako San Antonio ermita dago. 1653koa da, baina pena da errepide bazterrean egotea.

Lehen errota zegoen Teillalden, baina badira urte batzuk martxan ez dagoena, eta, gainera, baserria bera ere jausita dago.

Ibilaldiei dagokienez, bide polit asko daude, eta horietako batzuk markatuta daude. Murugain bertan dago, bizikletan edo oinez joateko egokia da. Handik Untzillara, Galartzara edota Garagartzara joan daiteke.

**Lehen auzoko eskola zena orain auzo-lokala da.**

Bai, lehen eskola zegoen eta kendu zutenean Untzillara joaten ziren auzoko umeak. Lokala Elizarena da, eta utzi egin digute bertan auzotarrok batzeko.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
Bazkideen txokoa
Urtarrileko zozketa

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

EUSKARAZKO JOSTAILUAK
Umeentzako euskarazko jostailuak


UMEENTZAKO LIBURUAK
Pamiela etxearen umeentzako liburuak.


SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Lagun Aro - Murcia partidurako sarrerak.


PENDRIVE BAT
Goienako pendrive bat.


SARI NAGUSIA
URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
JOCCA RACLETTE

- Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
- Ez du oliorik behar.

Asun Garikano euskal filologo eta idazleak AEBetan, Nevadan, eman zuen 2007-08 ikasturtea. Hasieran, euskal emigrazioaren gaineko lan bat egiteko asmoa zuen, baina AEBetako mendebal urrunera joandako euskaldunen dokumentazioa aztertu ondoren, mundu bat kontatzeko zegoela ohartu zen. 'Far Westeko Euskal Herria' liburua da emaitza.

**Asun Garikano** > Idazlea

# "AEBetara joandako euskaldunek bertsotan idazteko ohitura zeukaten"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Justu-justuan heldu zen Durangoko Azokara, baina Asun Garikanoren (Tolosa, 1962) *Far Westeko Euskal Herria* izan zen han gehien saldu zen liburuetako bat. Lan mardula da, 432 orrialdekoa, eta tartean 274 argazki daude. AEBetan, Nevadan egindako egonaldian, Renoko Unibertsitatean egin zuen lan Garikanok; Centre of Basque Estudies delakoan dokumentazio pilo bat aztertu ondoren, Far Westera joandako euskaldunen istorioak batu ditu. Zalantzarik gabe, euskal emigrazioari egindako omenaldi ederra eta beharrezkoa.**



Asun Garikano. FELIX AIESTARAN (GALTZAUNDI)

**AEBetara joan aurretik, liburua idazteko ideia zeneukan ala hantxe sortu zen aukera?**

Nire ideia emigrazioaren gaineko lan orokorragoa egitea zen eta asmo horrekin joan nintzen. Renoko Unibertsitatean Centre of Basque Estudies delakoa dago eta oso liburutegi ona dute han. Euskal emigrazioak utzitako ondare idatzia aztertzen hasi nintzen, eta, hasiera baten Uruguaiko eta Argentinako euskaldunena ere hartzen banuen kontuan, hiruzpalau hilabetera Far Westi buruz idatzitako dokumentuetan zentratu nintzen. Kontaturik gabeko mundu bat zegoen hor, hasi Kalifornian urrea aurkitu zuten urteetatik (1848) eta euskal emigrazioa amaitu zen arte (1960. urte ingurura arte).

**Saiakera baino gehiago, kontaketa liburua dela esan duzu.**

Bai; euskal emigranteek eta haien ondorengoek utzitako testu ederrak topatu ditut, eta, filologoa naizenez, hautaketarako irizpide nagusia literarioa izan da. Mota askotako testuak dira: bertsoak, gutunak, poemak... Liburua narrazio bakarra balitz moduan irakurtzea zen asmoa eta testuak narrazioaren estiloan antolatu ditut, kronologikoki zein testuinguruan kokatuz, nahiz eta jatorri askotariko testuak izan. Haietako bakoitzak historiaren ale bat kontatzen duela esan daiteke; batek Euskal Herritik ateratzeko arrazoia, beste batek itsasontziz egindako bidaia, hirugarren batek urre bilatzaileen istorioak edo artzainen kontuak...

**Garai hartan idazten zutenak ez ziren asko izango, ala?**

Bi garai bereiztu behar dira: hemendik joandako euskaldun gehienek bertsotan idazteko ohitura zuten, bertso paperak hain zuzen, baita etxera bidaltzen zituzten gutunak ere. Artzain joandakoen artean horrelako gutun asko topatu ditut. Bestetik, haien ondorengoek idatzitakoak ingelesez daude. Kasurik ezagunena Robert Laxalt-ena izango da. Haren aita, Dominique, artzain joan zen AEBetara, eta semea oso idazle ona da; gurasoek bizi izandakoa kontatu nahi izan zuen, Far West-en historian egindako lana aitortu nahian, mundu berriaren eta zaharraren artean haria jarriz.

**Eta zein da AEBetan euskaldunen gainean duten irudia?**

Gehienbat, artzaintzarekin lotzen dituzte eta euskaldunekin lotzen diren ezaugarriak errepikatzen dira: langileak, esanekoak, saiatuak, egoera zailetan aurrera egiteko kemena dutenak... Bestetik, pertsona alaitzat dituzte. Esaterako, hango kazetari andre batek bere autobiografian gogoratzen du nola bere haurtzaroan Idahoko herri txiki baten euskal ostatu bat zegoen eta artzainek dantzan eta kantuan egiten zuten han; hango bizimodu probintzianoarekin hausten zuen eszena, nonbait.

AMERIKAKO EUSKALDUNAK

**"Pertsona langiletzat eta alaitzat dituzte euskaldunak AEBetan"**

DEBAGOIENDARRAK

**"Pedro eta Bernardo Altube oñatiarrak, Joxe Pildain bergararra eta Eulalia Ugalde angiozartarra ageri dira liburuan"**

**Hainbat debagoiendar ere protagonista dira zure liburuan.**

Bai; batetik, Oñatiko Zugastegi baserriko Pedro eta Bernardo Altube, urre aurkikuntza garaian Argentinatik Kaliforniara joandakoak. Indiarren laguntzarekin sekulako arrantxoa eraiki zuten Nevadan. 1992an AEBetako ganadu arrantxorik handiena zen lur eremuari zegokionez (nahiz eta jadanik Altubetarrekin loturarik ez izan). Pedro Altubek San Frantziskon igarotzen zuen negua askotan eta arratsaldero joaten zitzaion irakurle bat, prentsa, historia liburuak edo klasikoak irakurtzera, ingelesez irakurtzera ohituta ez zegoelako. Antzuolako arrebarekin edo Oñatiko anaiekin izandako korrespondentzian kontraste handia ikusten da Euskal Herriko bizimoduko estutasunen eta AEBetako oparotasunaren artean.

Negurin neskame ibili ondoren, Eulalia Ugalde angiozartarra AEBetara joan zen, familiakoen eta herriko apaizaren gomendioei kasurik egin gabe. Beste bizimodu bat ezagutu nahi zuen. Valentin Barinagarrementeriarekin ezkondu, eta arrantxo guztiz bakarti batean bizi izan zen, herririk hurbilenera joateko ia egun osoko bidea zuela, zaldi-gurdiz. Kasu askotan errepikatzen den moduan, bizitzako azken urteetan gizonak Euskal Herrira itzuli nahi zuen, baina emazteak ez. Eulaliaren eta Valentinen semeak, John Barinagak, gurasoen gaineko liburu bat idatzi du eta Johnen alaba Marcia, kazetaria, saiatzen da Euskal Herriarekiko lotura gordetzen. Hain zuzen, gazta egiten dute euskal estiloan, Pazifikoaren ertzetan duten Barinaga Ranch arrantxoan; *Baserri* eta *Txiki* izenekin saltzen dute gazta.

Azkenik, Joxe Pildain bergararra familiaren gogoz kontra joan zen AEBetara eta ez zen inoiz itzuli.

**Emakumeen istorioak berreskuratzeko ahalegina egin duzu.**

Bai, nortasun handiko emakumeak zirelako, askotan euren borondatez hara joandakoak (ez soilik gizonen laguntzaile). Artzainak ziren lekuetan euskal ostatu eta hotelen sare modukoa zegoen eta ardura emakumeek zeukaten.

**Protagonisten tartekorik hurbildu zaizu liburua irakurrita?**

Oraindik goiz da horretarako, liburua irten berria delako. Ingelesez ateratzeko asmoa dago, eta ikusiko da. Betiere, pozgarria izaten da irakurleen aldetik erantzunak jasotzea.

Gorbeiako
# MERKEALDIA
# DOHAINIK
lortu dezakezu

ISKIA - ULANKA - ZAPARRASTRILLO - CORTEFIEL WOMEN´S SECRET - CHARO DUARTE - SPRINGFIELD - PROMOD - GOCCO - WANAKA GODO´S - TRIP - SPORTWELL REC - LOS TELARES - PACO MARTINEZ - PIMKIE - BIJOU BRIGITTE - LAHORE - MODAS ATENEA -EOLO23 - FOOT LOCKER - DECATHLON CARREFOUR - MERKALCALZADOS SAMIRA - ASERPLATA

## BAITA BESTE GUZTIA ERE!

Dastatu eta gozatu gure jatetxe berrituetan
VEGA, GRECIA, CEYLAN CAFÉ Y TE, KURRUSKO, GAMBRINUS, OKETA, KEBAB, MCDONALD´S, LA PIZZERIA DA LUIGI

Egunero 300€ oparitzen ditugu!

IMAGEN21

Zatoz Gorbeiara 2010ko urtarrilak 7tik 24ra. Egin ezazu erosketa bat Gorbeia Merkatal Guneko edozein dendatan eta 300€ko eguneroko zozketan parte hartu ahal izango duzu.

GORBEIA
ESKORIATZA 10 minutuan
ARRASATE 13 minutuan.
BERGARA 16 minutuan.
SORALUZE 21 minutuan.
EIBAR 23 minutuan.

GORBEIA
gehien aurrezten duzun tokia

Etxabarri Ibiña IRTEERA
AP - 1 EIBAR -GORBEIA (GASTEIZ)

LUXUS SPORT CARS - ISKIA - ULANKA - ZAPARRASTRILLO - CORTEFIEL - WOMEN´SECRET - DOUGLAS - CHARO DUARTE - SPRINGFIELD - PROMOD - EL BROCHE - UNITEC MOVISTAR - ATENCIÓN AL CLIENTE CARREFOUR - VEGA - PRENSA - ESPACE COIFFURE - INMOBILIARIA GORBEIA - WANAKA - GODO´S - TRIP BISUTERIA - KAVA - SPORTWELL - REC - LOS TELARES - PACO MARTINEZ - PIMKIE - GAME - NATURA - VODAFONE - BIJOU BRIGITTE - ORANGE - ADMINISTRACION LOTERIA - ONCE - BARCELO VIAJES - ASERPLATA - VITAL KUTXA - GRECIA - AMAZONAS - LA RAPA - CEYLAN CAFÉ Y TE - LAHORE - OSCAR G - MODAS ATENEA - EOLO 23 - FARMACIA - TRIP - FOOT LOCKER - SEPHORA - KURRUSKO - GAMBRINUS - OKETA - KEBAB - TÚNEL DE LAVADO - CARREFOUR - DECATHLON - BRICO DEPÔT - MCDONALD´S - YELMO CINES GORBEIA 3D - NORAUTO - KING JOUET - MUEBLES MAX DESCUENTO - MERKAL CALZADOS - SPLAFF! - SAMIRA - CIMER - DAX ETXEA - LA PIZZERIA DA LUIGI - GOCCO OUTLET

**kale inkesta**

# Urte berrian sartzeaz bat eskaera bereziak egin ohi ditugu. Zein da zuk zure buruari egin diozuna?



**Felix Etxanobe**
Erretiratua
Otxandio

Beste 50 urtez bizitzea... Osasuna, hori da garrantzitsuena. Gutxi erretzen dudanez, tabakoa osasuna da niretzat. Argazkilaritza gustuko dut eta Photoshopean gehiago ikastea ere eskatzen diot urte berriari.



**Miren Leturia**
Langilea
Bergara

Proposamen zehatzik ez diot egiten urte berriari. Ez erretzeari uztea, ez ingelesa, ez informatika... Iazkoa baino urte hobea izatea eskatzen diot, iaz etxean gertuko senide batzuk galdu genituen-eta.



**Luis Alberto Fernandez**
Langilea
Bergara

2009an krisiak nola astindu gintuen ikusita, gustiondako lan gehiago eskatuko nuke. Erretzeari utzi nion eta ez dut ingelesa ikasteko asmorik. Ni ez naiz urte berriari proposamen zehatzak egiten dion horietakoa.



**Marixabel Oregi**
Langilea
Bergara

2009a ez zen urte txarra izan eta berriari iaz moduan jarraitzea eskatzen diot. Krisia dela-eta, egoera hobetzea eskatuko nuke. Ez naiz beherapenetara joan, baina itxaron nazatela, helduko naiz-eta...

**irakurlearen txokoa**

## 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

OÑATI

**> Autobus geltokiko paneletan zerbitzuaren momentuko egoeraren gaineko informaziorik ez dute ematen**

Oñatiko emakume batek deitu digu autobus zerbitzuaren gaineko kexa baten berri emateko. Egubakoitzean medikuarekin hitzordua omen zuen Arrasaten, 11:15ean. San Lorentzoko autobus geltokira joan zen, 10:00etakoa hartzera. Ordu laurden lehenagotik han omen zegoen, eta ordubetez baino gehiagoz zain egon arren ez zen autobusik agertu. Eta emakumeak salatu duenez okerrena, geltokiko panel elektronikoetan ez zela zerbitzuaren momentuko egoeraren berri ematen. Herritar honek galdegiten du horrelako kontuetarako –zerbitzua bertan behera geratu dela jakinarazteko– ez bada, zertarako dauden panel horiek. Gehienetan itzalita egoten omen dira, eta bestela Lurraldebusen txartelaren propaganda baino ez dute egiten.

ESKORIATZA

**> Elurrak trabak jarri arren, anbulatorioaren martxa ahalik eta normalena izan zedin saiatu zirenendako, eskerrak**

Eskoriatzako herritar batek deitu digu esanez oso eskertuta dagoela egubakoitzean Arrasateko anbulatorioan ahalik eta normalen jarduteko egin zuten ahaleginagatik. Medikuarekin zuen hitzordura joateko zalantzan egon omen zen, bera hara joateko bidea ondo ez zegoelako eta ez zekielako medikuak ere ordurako iritsi ahal izango ziren. Joan zen eta puntu-puntuan hartu omen zuten. Horregatik eman gura ditu eskerrak.

**usteak uste**

**Jokin Bereziartua**

## Etxean jolastu, aurrezteko?

Atzean utzi berri ditugun Gabonek datu esanguratsu bat utzi digute. Jostailuen salmentak hazi egin dira oro har, eta familian jolastekoak diren mahai jokoen salmentek nabarmen egin dute gora. Jostailu-etxeak pozik dira; oso pozik, krisi garaian euren salmentak aurreko urteetakoak baino hobeak izan direlako.

Zergatik hazi den mahai jokoen salmenta? Bada familiek, aurrezteko asmoz, etxetik irten gabe entretenitzea erabaki dutelako. Etxeko goxotasunean mahai jokoak ez dira aukera txarra, eta jolasten ikasi ahal bada, ondo baino hobeto. Edozelan ere, aisialdi plan gustukoena merkataritza guneak diren gizarte honek ba al daki diru gabe entretenitzen? Aste bukaerako argazkiek erakutsi digutenez, haurrak ezin hobeto ibili dira elurretan, sosik xahutu gabe. Posible bada, baina...

**zorroztailea**



**Larraitz Ugarte**

## Greenpeace eta preso politikoak, barka, klimatikoak

"20 egunotan, bostak isolatuta egon dira, kanpokoekin inongo harremanik izan barik eta familien abokatuekin hitz egiteko aukera barik. Hala, ezin zuten jakin kanpoan gertatzen zena."




Elmundo.com > 2010-01-07

Elurrari merezi duen protagonismoa kendu nahi diot Greenpeace-ko preso politiko/klimatikoen albisteak erakarrita. Abenduan Danimarkan aldaketa klimatikoaren aurkako estatu buruen goi bileraren kontestuan, Greenpeaceko hiru aktibista Danimarkako erreginak antolatutako afari batean sartu ziren, traje dotoreak soinean eta "Politikoek hitz egin, liderrek jardun" zioten pankarta ulergaitzak eskuan zituztela. Ekintza horregatik 20 egun eman dituzte bost pertsonek espetxean, tartean Greenpeace Españako Zuzendari exekutiboa den Juan Lopez de Uralde, eta urtarrilaren 7an hedabideen aurrean agertu ziren euren aurkako prozesua proportziorik gabekoa, gogorra eta krudela izan dela esatera.

Bake berdearen aldekoek 20 egunetan isolatuta, kanpoarekiko kontakturik gabe, abokatuekin edota familiekin hitz egin gabe eta kanpoan gertatzen ari denaren ezjakin izan dituztela deskribatu dute. Ta neri, barkatuko didazue, baina hitzok barregurea eman zidaten. Barregurea espainiar hedabideak harrituta eta Danimarkaren antidemokratikotasunaz haserre ikusita. Barregurea (eta ezin uka, haserre galanta ere bai), tipo hauek espainiar estatuko komisaldegietan eta kartzeletan euskaldunek sufritu behar dituztenen ondoan huskeriak bizi izanda (euren egoera gutxietsi gabe) antolatu den *dramoia* ikusirik. Gakoa, agian, eurek diotenean egongo da: aplikatu zaizkien neurriak ez dira berez giza eskubideen aurkakoak eta estatu batetaz batere ondo hitz egiten ez duten neurriak, ez horixe, gakoa desproportzioa da euren ekintza baketsua izan delako. Seguru horixe erantzuteko tentazioa izango duela PSOE edota bakezale moderno orok. Baina kontuz: Ez al zituzten bada euren dokumentu eta autoetako matrikulak faltsifikatu? Eta gainera ez daudela damututa diote.

**"Barrea eragin dit espainiar hedabideak harrituta ikusteak"**

**"Greenpeacekoek ez diote, bada, ez daudela damututa?"**

Ummm, irizpide horiekin Espainian 30 urtetako kartzela zigorra laztantzen leudeke euskaldunak balira. Greenpeacekoak eta Danimarkan, gehienez sei. Eta, gainera, antidemokratak danimarkarrak izan? Ez dago espainiarrak ulertzerik.

**Goienkaria** (ASTELEHENEKO)

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Julen Iriondo, Jokin Bereziartua, Jon Berezibar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**> ARRASATE**
Yoga Eskolako sortzaile Jose Luis Armendiak erretiroa hartuko du 30 urte ondoren **> 14**



**> BERGARA**
Batez beste, 280 ume ibili da egunero Gabonetan Agorrosin eta pilotalekuko jolasparkeetan **> 16**



**> OÑATI**
Kiroldegiko eta Kalegoieneko lur azpiko parkingek ez dute igoerarik izango **> 18**



Urtarrilaren 7an hasi ziren prestakuntza ikastaroarekin Auzolan programan parte hartuko dutenak. Egubakoitzean bertan, irristadak ekiditeko lantalde bat gatza botatzen aritu zen Bergarako kaleetan. XABIER URTZELAI

**BERGARA** > ENPLEGUA

# Lana aurkitzea ia ezinezkoa zaienei begira, abian da Auzolan ekimena

**GIZARTERATZEA**
Ekimenaren helburua da lan munduan sartuz, zortzi pertsonari gizarteratzen laguntzea

**MANTENTZE-LANAK**
Herriko bide eta gune publikoen mantentze-lanak egingo dituzte, uztailaren 20ra arte

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzari esker, abian jarri du Bergarako Udalak Auzolan ekimena. Enplegua sustatzeko programa da, lana aurkitzeko arazo latzak dituztenei begira. Izan ere, helburu nagusia da lan mundua ezagutaraziz, zortzi pertsonari gizarteratzen laguntzea. Horregatik programan parte hartu ahal izateko ezinbesteko hiru baldintza zehaztu zituen Udalak: diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzea –kide bakarreko familiak lehenetsiz–, Oinarrizko Errentarako eskubidea duen titularraren bizikidea izatea eta lana aurkitzeko arazo latzak izan eta gizarteratzehitzarmena sinatuta izatea.

Bergaran lehen aldia da mota honetako enplegu sustapenerako ekimen bat martxan jartzen dela. Arrasaten, esaterako, Udalak abiarazi zituen herriko bide eta gune publikoen mantentzelanetarako aldi baterako lan kontratuak.

**HERRIAREN MANTENTZE-LANAK**

Bergararen kasuan lan kontratua egin aurretik, parte hartzaileek prestakuntza denboraldi bat egingo dute. Hasi dira dagoeneko, urtarrilaren 7an hasi ziren. Eta prestakuntza garaia hilaren 20ra arte luzatuko da. Goizez arituko dira, 9:15etik 12:15era; guztira 215 ordu. Lantaldeak lanbidez teknikaria den pertsona bat eta tutore koordinatzaile bat izango ditu. Lehenaren helburua prestakuntza eman eta lanaren jarraipena egitea izango da; eta tutoreak, berriz, gizarteratze prozesuetan lagunduko du.

Bide eta gune publikoen mantentze-lanak egingo dituzte, hala nola, hiri-altzariak margotzea, kale ekipamenduaren mantentze-lanak egitea, espaloiak konpontzea, espaloi berriak egitea... Prestakuntza garaia gogor hasi zuten, joan den egubakoitzean elurtea dela-eta gatza botatzen aritu ziren-eta Bergarako kaleetan.

**DATUA**
# 8
**PARTE-HARTZAILE**
Auzolan programak formaziorako eta lanerako aukera eman die zortzi pertsonari, euren gizarteratzea bultzatzeko asmoz. Bost gizonezko eta hiru emakumezko aukeratu dituzte.

**LAN KONTRATUA EGITEKO ASMOA**

Marije Unamuno Udaleko Enplegu saileko arduradunak jakinarazi duenez, "asmoa da guztiei lan kontratua egitea". Formazioa emateaz gain, parte-hartzaileak lanera bideratzea da-eta Auzolan programaren azken helburua. Lan kontratua sei hilekoa izango da, uztailaren 20ra arte iraungo du. Astero 30 orduz egingo dute lan.

Lehen aipatu moduan, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ekimena da Auzolan. Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak langileen soldataren kostuak –Gizarte Segurantza izan ezik– eta prestakuntza, laguntza eta jarraipen kostuak hartuko ditu bere gain. Eta Bergarako Udalak, berriz, Gizarte Segurantza eta lanak egiteko beharrezkoak diren elementu guztiak ordainduko ditu.

**ELURTEA** > JOLASERAKO GOGOA EKARRI DU TXARRALDIAK

# Postalak, itzulipurdiak eta jolasa

Domekan eguraldiaren hobekuntzak "elurzaleak" gozatzera gonbidatu zituen

JON BEREZIBAR > BERGARA

Egubakoitzean hasi eta domekara artekoa; hori lehenengo elurtearen bisitaren luzera. Barikuan, baina, haserre aurpegiak eta ezustekoak izan ziren errepideetako nahaste-borrastean; eta domekan, aurkakoa: barre eta jolas aurpegiak izan ziren nagusi. Izan ere, hotz bai, baina tenperatura baxuek ez zituzten debagoiendarrak kikildu eta lera, eski eta plastikoak hartuta *peregrinazioak* ikusi genituen atzo elurretara. Lau leku faborito gure ibarrean: Udala, Olandixo, Gorla eta Arantzazu.

**AUSARTENAK URBIARA**

Abenturazaleenak Urbiara igo ziren kranpoi eta guzti. Han goian giroa ez da gozoa izan, hain zuzen, zeropetik 11 gradu izan zituzten egubakoitzean, haize tematiarekin eta elurra gerriraino, hori bai. Gorainoko balentria eta gero, fondako salda beroa sari eta bertako Ruper Altzelairen ongietorria. Beste batzuetan baino jende gutxiago ibili dela zioen hark atzo. Hala ere, Arbelaitz aldera jo dute oraingoan mendizale askok. Fondakoentzat ere ez da giro izan, hoditeria izotzak apurtuta eta argi barik egon dira-eta asteburuan zenbait orduz. Balentria ederra ere Gorla aldean bergarar gazte batzuek egin zutena. Gorlarako bidean autoa zelaitik behera joan eta elurra zela-eta, hain zuzen, ezin izan zuten atzo arratsaldera arte garabiarekin berreskuratu (irudian).

**LASAITASUNA ETA JAI GIROA**

Gainontzekoan susto gutxi eta, antza, asteburu lasaia izan da, ospitaleko larrialdi zerbitzuetara deituta, bederen. Han diote hiruzpalau erorketek eragindako sustoez aparte, normal antzean igaro direla azken egunak. Gaitz erdi. Izan ere, txarraldia aste barruan etorri izan balitz, kaosa eragingo luke denboraleak eta asteburuan etorrita jolasa eta gozamena ekarri ditu oraingoan. Gorla aldean oholekin egindako itzulipurdiei begiratzea besterik ez dago bestela. Esandako moduan, laneguna izango balitz, bestelako izango litzateke panorama, baina asteburuak postal sorta ederra utzi du, ezinbestean. Hotza eta izotza da orain elurrak utziko diguna, orain astea hasteko daukaguna.

**Tenperaturak eta prezipitazioak**

| | TENP. | $L/M^3$ |
|---|---|---|
| **eguena** | 4/1 | 15,8 |
| **barikua** | 4/0 | 18,5 |
| **zapatua** | 4/-3 | 11'1 |

ITURRIA: BERGARA, LUIS MARI AGIRRE



Zakurrak, elur-bolekin erotuta. J.A.



Snow-board erakustaldia Gorlan. ENEKO AZKARATE



Elgetako elurtza.




Gogor egin behar izan zuten lan Bergaran brigadakoek ENEKO AZKARATE



Neskatilak zuhaitza astintzen. JOSETXO ARANTZABAL




Bigarren mailako bideak ez dira egoera onean egon asteburuan. J.A.



Gatzagako neska-mutikoek ez diote hotzari beldurra

# k neguko lehen elurtearekin


Leintz Gatzagako plazan umeak jolasean. J.A.


Izozkiak udan eta gangarrak neguan. J.A.


JOSETXO ARANTZABAL


Gangarrak Elgetan. J.A.


Elur-bolaren erasoa. J.A.


Zaldian ere igo ziren Gorlara. ENEKO AZKARATE


a. JOSETXO ARANTZABAL


Gorlan istripua izan zuen autoa. ARRITXU BARRUSO


Elur-panpina eta Angiozar behean. SERGIO AZKARATE


Postal ederra: bikotea eta Bergara atzeko planoan. ENEKO AZKARATE

**Jose Luis Armendia** > Arrasate Yoga Eskolako sortzailea

# "Damututa nago yogan lehenago ez hastearren"

UBANE MADERA > ARRASATE

**Arrasateko eta inguruko yoga eskola gehienen sortzaile edo bultzatzaileari iritsi zaio erretiroa hartzeko sasoia. Horrek ez du esan gura, baina, yoga utziko duenik, Jose Luis Armendiarendako yoga bizi izateko modua ere bada-eta:**

**Erretiroa orduan…**
Gauzek hasiera, bitartekoa eta bukaera dute, eta ni bukaeraren atean nago.

**Zenbat denbora eman duzu bitartekoan?**
Aurten 30 urte izango dira yoga elkartea sortu nuela. Aurrez beste batekin ere ibili nintzen beste bi urte eta erdi; hortaz, ia 33 urte.

**Zeu eta zeure taldea izan zineten aurrenetarikoak hemen yoga erakusten, ezta?**
Lehen irakasleak prestatu zituen hiru laguntzaile; bat nintzen ni. Irakasle hura Eskoriatzara joan zen eta ni geratu nintzen hemen eta orduan sortu nuen Arrasate Yoga Elkartea, 1980an.

**Hasieran nobedadea izango zen, yoga ikastea Arrasaten…**
Nobedadea eta nahasketa, biak. Jende askok yoga nahastu egiten zuen judo, karate eta halakoekin. Orain datorren jendeak, berriz, nahiko argi dauka zertara datorren.

**Zeuk ere yoga irakasle izateko beste lanbide bat utzi behar izan zenuen, ezta?**
Delineatzaile proiektugilea nintzen, Fagorren. Gustura nengoen, baina bizitzan beti ibili naiz norberaren garapen profesionalaz gainera, garapen pertsonalaren bila. Ikusi nuen yogaren bitarteaz hori lor nezakeela; eta ikusi nuen, baita ere, niretako baliagarria zena beste batzuendako ere baliagarria izan zitekeela; baina beste batzuei ere aukera emateko, neure burua prestatu egin beharko nuen.

**Zelan ezagutu zenuen yoga?**
Liburu eta kartel baten bitartez. Kartela ikusi, joan eta lehenengo egunean esperientzia polita izan nuen: arnas arazoak nituen eta lehenengo posturekin ikusi nuen arnasari ondo egiten ziola, eta pentsatu nuen: hau da niretako! Eta jarraitu egin nuen.

**Zu ikusita, esango nuke ez zarela sekula damutu…**
Damututa nago, baina pauso hori lehenago ez ematearren.

**Gaur egun zelako profila dauka yoga egiten duenak?**
Denetarikoa. Nagusiendako, bereziki, bi talde ditugu, bata Arrasaten eta bestea Bergaran. Beste talde batzuetan, baina, guztiak nahastuta daude.

**Zenbat bazkide daude eskolan?**
Finkoak 80 bat; erretiratuak, berriz, bazkide bereziak dira. Guztira, 95. Gero, badaude hasierako ikastaroetara-eta datozenak, bio-dantza taldekoak, meditazioa egiten dutenak…

**Horrenbeste urtean, izango duzu oroitzapen bihotzekorik…**
Asko, baina handiena, akaso, eta pena handia emango didana, gainera, izango da Bergarako taldea uztea. Banabil animatzen hemengoren bat Bergarara joateko, eta uste dut bat edo bat egongo dela gertu hura ez uzteko hutsik. Hala eta guztiz ere, pena handia horrek emango dit, eta idatzi dudan liburua ere (*Yoga aulkian*) izan da apurtxo bat hura oroitzeko bide bat.

**Bazoaz, baina yoga eskolak zabalik segituko du, ezta?**
Bai; ekintza guztiek berdin jarraituko dute. Aspaldian, Antoniak, nire laguntzaile hurbilenak, ematen ditu eskola gehienak, eta dena antolatuta geratuko da.

**Erretiroa hartu arren, zereginak ez dituzu utzi behar…**
Eskolak leku askotan ematen ditugu: Angiozarren, Aramaion eta Gatzagan ere bai, adibidez. Horiek ere jarrai dezaten saiatzen nabil. Bestalde, orain denbora luzeagoa izango dut yoga praktikatzeko. Eta, horrez gainera, nire jarraitzaileekin harremanetan jarraituko dut eta elkartea eramaten laguntzeko gertu nago.

**2010ean 30 urte; ospatuko duzue?**
Bai. Ni erretiratuko naiz ofizialki ekainean, eta 30. urteurrena irailean egingo dugu. 10, 20, eta 25. urteurreneko esperientziak ere baditugu… Ideia batzuk baditugu, baina oraindik ez dugu ezer lotuta. Udaberrian hasiko gara gauzak apur bat lotzen, eta joango gara iragartzen.

**Agurtu aurretik beste zerbait esan nahi baduzu…**
Eskertu Udalari, GOIENKARIAri horrenbestetan etortzearren eta nirera etorri den jendeari; esker bero batekin guztiak agurtu.


Jose Luis Armendia yoga irakaslea, guztiekin agurtzen. U.M.

**"Hasieran jende askok yoga nahastu egiten zuen judo, karate eta halakoekin"**

**"2010ean 30 urte beteko dira (irailean) Arrasaten yoga elkartea sortu nuenetik"**

**"80 bazkide finko ditugu eta erretiratuak bazkide bereziak dira; guztira, 95 bazkide ditugu"**

**KIROLA** > JARDUERA BERRIA

## Palan jokatu eta ikasteko emakume taldea osatu guran dabiltza Arrasaten

Eguaztenerako, urtarrilaren 13rako egin dute hitzordua Iturripen, 18:30ean, taldea osatu eta ikastaroa antolatzeko

U.M. > ARRASATE

Badira hiru urte Gipuzkoako Pilota Federazioak Arrasaten (eta Gipuzkoako beste hainbat herritan) pala ikastaroa antolatu zuela emakumeendako. Arrakastarekin, gainera, 20 bat emakumek parte hartu zuen-eta, orduan, Arrasaten. Ikastaroa bukatuta eta krisiaren eraginez, baina, Gipuzkoako Pilota Federazioak bertan behera utzi behar izan du ekimen hori. Eta orain, Arrasaten gura dute lekukoa hartu: "Pilotan jokatzeko gogoak aurrera segitzen du. Federazioak animatzen gaitu, ikastaroa zelan eman bideratu, zelan aurrera eraman…", dio Ainhoa Zuluetak, Arrasateko pala-jokozaleak.

**TALDEA HANDITU GURAN**
Horrela, emakume taldetxoa elkartu eta eguaztenero palan jokatzen dute: "Eguazten arratsaldeetan 18:30ean Iturripen elkartzen gara; oso ondo pasatzen dugu eta oso talde alaia gara; gustura egoten gara. Ordubete-ordubete pasatxoan ibiltzen gara. Asmoa da beroketak egin, palaneta jolasak, gero partidutxoa eta gero luzatzeak… kirol eskola izango balitz bezala", dio Zuluetak. Izan ere, bere burua aurkeztu du Zuluetak monitore lanak egiteko, gura dutelako emakume gehiago erakarri euren taldera.
Gainera, azpimarratu du ez dela ezer apartekorik behar ekimen horretan parte hartzeko: "Ez dugu zertan onak izan, izugarrizko indarrik ere ez da behar, eta probatu gura duenak palarik ere ez du behar, guk utziko diogu-eta".

**KIROLA** > KIROLDEGIKO ESKAINTZA

## Gazteendako tenisa eta beste, aurten AUKEAn

Ikastaro berriak iragarri dituzte, eta beste batzuk doan probatzeko aukera

U.M. > ARRASATE

Gabonetako larregiko jatorduen ostean, eta urte berria hastearekin bat, jende askok hartuko du kiroldegirako bidea; eta Arrasateko kasuan, eskaintza osatua aurkituko dute; izan ere, ohiko ikastaroez gainera, berriak ere iragarri dituzte.
Hori da tenisaren kasua. Aurten, gazteendako (10-15 urte) ikastaroa antolatu dute; martitzenero, ordubetean egingo dutena, 18:30ean hasita. Horrekin batera, 6-9 urteko umeendako tenis ikastaroa ere antolatu dute 2010erako.

**SPINNINGA, DOAN**
Bestalde, aukera eman gura diote spinningik inoiz egin ez duenari kirol mota hori doan probatzeko. Kasu horretan, urtarrilaren 19an, 21ean, 26an eta 28an dira eskolak, Musakolan (09:15 edo 20:30). Izena emateko azkeneko eguna da gaur, astelehena.
Eta egun beretan egingo dute pilatesen hastapen ikastaroa (10:30 edo 20:30); kasu horretan, erdi prezioan.

MUS TXAPELKETA

# Hilaren 22an jokatuko da Arrasateko kanporaketa

Euskal Herriko mus txapelketak Irati tabernan egingo du geldialdia

**J.B.** > ARRASATE
Euskal Herriko mus txapelketaren bigarren edizioaren Arrasateko kanporaketa urtarrilaren 22an jokatuko da, Irati tabernan.

Izena eman gura duenak bikotea aurkitu eta Irati, Iluntz eta Basati tabernetan dauden izenemate zerrendetan izena eman beharko du. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, baina, bikote kopuru mugatua du kanporaketak. Hortaz, adi ibili behar.

**DENENDAKO SARIAK**
Euskal Herriko Mus Federazioak antolatzen duen txapelketa honen bereizgarrietako bat da parte hartzaile guztiek oroigarri bat jasotzen dutela.

Sekulako sariak banatuko dira. Bikote irabazleak txapela, garaikurra, 3.000 euro eta lau lagunendako bidai bat irabaziko du –nazioartera–. Txapeldunordeendako, berriz, garaikurra, 1.500 euro eta kanariar uharteetara bi lagunendako bidaia. Eta hirugarren bikoteak, 500 euro eta lau lagunendako asteburuko egonaldia Lesakako Atxaspi hotelean. Laugarren bikoteak ere 500 euro jasoko ditu eta bosgarren bikotetik 16. bikotearengana arte opari txikiak banatuko dira.

**KULTURA** > MUSIKA

# Kalitatezko zuzeneko musikaz gozatu ahalko da Amaian

Urtarriletik martxora bitartean kontzertu bana izango da hilero; Valladolideko Arizona Baby taldea, Ruper Ordorika eta Anari ekarriko ditu Udalak


Javier Vielba Arizona Babyko *frontman*-a, kontzertu batean. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Amaia Udal antzokiak aurrera darrai arrasatearrei kalitatezko kultur ekitaldiak eskaintzen. Hala, urtarriletik martxora bitartean, ohiko zinema eskaintzaz gain, zuzeneko musika eskainiko die herritarrei. Ez dira kontzertu asko izango, baina bai goi mailako musikariek eskainiak. Kantitateari baino kalitateari erreparatu baitio Udalak.

Hil bakoitzerako kontzertu bana antolatu dute. Hiru talde, eta hiru proposamen ezberdin: Valladolideko Arizona Baby taldearen akustiko rockeroa, Ruper Ordorikaren kantu berrien goxotasuna eta Anariren sakontasuna. Lehenak etortzen Arizona Babykoak izango dira; urtarrilaren 22an joko dute, 20:00etan.

**AKUSTIKOA ETA BASATIA**
Taldearen izena erabat amerikarra bada ere, Arizona Baby Valladoliden sortu zen 2003. urtean. Ruben Marronek –gitarra– Javier Vielbak – ahotsa, gitarra eta ukelelea– eta Marcos Ubedak –perkusioa– osatzen dute hirukote berezia. Lehenengo lana *Songs to Sing Along* izenekoa, 2005ean kaleratu zuten. Handik gutxira Londresera egin zuten alde, eta bertan hamaika emanaldi eskaini zituzten, hiriburuko zenbait pubetan ohikoak bihurtzeraino. Greziako Pelekas Street Beat jaialdian hartu zuten parte, eta 2007ko Norterrock jaialdian Gaztela Leongo talderik onena izendatu zuten. Gero, Puerto de Santamarian, lan berri bati ekin zioten. Horren fruitua da Paco Locok ekoiztu duen *Second to none* diskoa; 2009an kaleratua. Disko horrekin datoz Amaia antzokira.

> ZINEMA

## Gaur da 'Avatar' film entzutetsua ikusteko azken eguna (20:30)

Aste bukaeran iritsi zen James Cameron zuzendari amerikarraren *Avatar* izeneko film entzutetsua Arrasateko Amaia antzokira. Bada, oraindik ikusi ez duenak gaur du pelikula Amaian ikusteko azken aukera (20:30).

Zientzia fikziozko film ikusgarri bezain garesti honek 150 minutu –bi ordu eta erdi– irauten ditu, baina ziur ikusleari denbora ia ohartu gabe pasako zaiola. Pelikularen zuzendari eta gidoilari izan den James Cameron zuzendari ospetsua duela 14 urte hasi zen istorioari bueltak ematen, baina gaur egunera arte ez du baliabide tekniko nahikorik izan proiektua gauzatzeko.

> LANA

## Aldi baterako lan arriskuen prebentzio-teknikaria behar da

Udalak lan arriskuen prebentziorako teknikaria behar du eta izena emateko epea hamar egunez luzatu du. Hala, urtarrilaren 18ra arte aurkeztu ahalko dira eskaerak. Lana aldi baterako izango da.

Deialdian parte hartu ahal izateko unibertsitate mailako diplomatura eta Laneko Arrisku Prebentziorako masterra gainditutа izatea eskatzen du Udalak. Hautaketa prozesuari dagokionez, proba praktikoa eta elkarrizketa egingo zaie hautagaiei. Gainera, euskara maila neurtzeko proba ere egongo dela jakinarazi du Udalak. Informazio gehiagorako Udaleko 943 25 20 04 telefonora edo BAZera deitu (943 25 20 00). Udaleko webgunean ere kontsulta daiteke.

# Zaldibarren ez da futbitorik izan asteburuan

Elurte denboraleak eragin zuzena izan du Zaldibarko futbito txapelketan. Eguraldi iragarpenek aste bukaerarako aurreikusten zuten elurteak ikusita, antolakuntzak ligako zazpigarren jardunaldia bertan behera utzi eta partidu guztiak atzeratzeko erabakia hartu zuen egubakoitzean. Eta irudiak erakusten duenez, betebetean asmatu dute. Zazpigarren jardunaldia Aste Santu osterako atzeratu dute, eta hortaz, aste bukaera honetan zortzigarren jardunaldia jokatuko da.


JOKIN BEREZIARTUA

**GABONAK** > BALORAZIOA

# Batez beste, 280 ume ibili da egunero jolasparkeetan

Udal Pilotalekuan egokitutako jolasgunean ia 200 ume ibili da batez beste; Agorrosingo uretako jolasetan, berriz, 100 bat

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Gabonak bukatuta, umeen aisialdirako antolatu dituzten ekitaldien balorazioa egin dute Udaleko arduradunek; eta, oro har, "positiboa" dela diote.

Atalez atal aztertuz gero, urtarrilaren 2an, 3an eta 4an egindako Gabonetako jolasparkea Labegaraietatik Udal Pilotalekura eroatearekin "asmatu" egin dutela diote: "2an egon ziren 199 sarrera; 3an, 189; eta 4an, 194. 2008an Labegaraietan egindako jolasparkeari erreparatuz gero, 141, 155 eta 199 sarrera egon ziren. Gainera, kontuan izan behar da aurreko urteetan ez bezala, aurten bi jolasparke egon direla; izan ere, Agorrosinen ere antolatu dugu uretako jolasparkea eta hor egondako ume kopurua gehitu egin behar zaio pilotalekuan egondako ume kopuruari. Hain justu, Agorrosinen egon dira lehenengo bi egunetan, batez beste, 100 sarrera eta hirugarrenean 40 inguru".

Pilotalekuko jolasparkea 3 eta 9 urte bitarteko neska-mutikoendako izan da eta Agorrosingo uretako parkea, berriz, hortik gorakoendako. Hala, adin banaketarekin ere asmatu egin dutela uste dute Udaleko arduradunek, besteak beste "nagusiagoek ez eurenganatzeko joko eta jolas guztiak".

Kexuren bat ere iritsi zaiela azaldu dute, prezioa dela-eta: "Sarrera 5 euro izatea garesti iruditu zaie batzuei, nahiz eta egun osorako izan. Bada, kontuan hartu dugu hori eta datorren urterako emango dizkiogu buelta pare bat".

**OLENTZERO, BIZKORREGI**

Zaldiz tiratutako gurdian jaitsi da lehenengoz Olentzero San Martzialdik, eta berrikuntza hori gustuko izan dute herritarrek. Hala ere, zer hobetu badagoela azaldu dute Udaleko arduradunek: "Azkarregi egin zuen plazarainoko bidea Olentzerok; 19:00etan abiatu eta 19:30erako amaituta zegoen. Datorren urtean luzeagoa egiteko modua aztertuko dugu".

Horrekin guztiarekin batera, hobetzeko beste gauza bat ere badagoela azaldu dute Bergarako Udaleko iturriek: "Bidean batu ditu aurten gutunak Olentzerok, ez plazan aurrekoetan bezala, eta gurdiaren azkartasuna zela, umetxoen izua... bada, guztiek ezin izan zioten gutuna eman. Hori ere hobetu egin nahi dugu".

**AURTEN GAZTE GUTXIAGO**

Gazteria Kontseiluak antolatuta, aurten ere gazteendako afaria egon zen urtarrilaren 5ean, Errege egunaren bezpera, Udalak Munibe plazan egokitutako karpan. Gazteria Sailetik azaldu dutenez, iaz baino nabarmen gazte gutxiago batu ziren: 45 bat gazte, hain justu ere.

Gazteok Errege kabalgatan parte hartu eta gero, tortilla lehiaketa izan zuten Munibe plazako karpan; eta gero, afaria, iaz bezala, alkoholik gabe. Afaria bukatu eta gero erromeria izan zen Drindots musika taldearekin.



Bideojokoak ere jarri zituzten pilotalekuko jolasparkean. GOIENKARIA

---

Agirre eskultorearen biografia eta lanen azterketa sakona batzen ditu

**UDALA** > ARGITALPENA

# Ekainean kaleratuko du Udalak Martzial Agirre eskultorearen gaineko monografikoa

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Martzial Agirre herriko XIX. mendeko eskultore ezagunaren gaineko liburua, *Martzial Agirre 1840-1900,* ekainean kaleratuko du Udalak. Mikel Lertxundi eta Larraitz Larretxea ikerlariak dira egileak eta eskultorearen biografia eta haren lanen azterketa sakona batzen ditu. Euskarara itzultzeaz, berriz, Carlos del Olmo donostiarra arduratu da.

**LAN GARRANTZITSUA**

Mikel Elkoroberezibar Ondare batzordeburuaren esanetan, ekainean kaleratuko duten liburua "orain arte Martzial Agirreren gainean egin den lan serioena eta osatuena" da. Horren hainbat adibide ere eman ditu Elkoroberezibarrek: "Esaterako, orain arteko bibliografiaren arabera, Agirre 1864an abiatu zen Erromara ikastera eta bizi izatera. Baina Lertxundik eta Larretxeak euren ikerketan demostratzen dute hainbat urte lehenago gertatu zela hori, eta Agirreren bizimodua Erroman nolakoa izan zen ere deskribatzen dute".

Baina lanaren seriotasun eta osotasun horren adibide esanguratsuena Agirreren produkzio artistikoaren gainean jaso duten informazioan datza. Elkoroberezibarrek honela azaldu du: "Orain arteko lan bibliografikoek beti 25 lan aipatzen dituzte; besteak beste, *San Ignacio*, Mutrikuko *Churruca*, Donostiako *Oquendo,* Bergarako *Justicia*... Baina bi ikerlariek egin duten monografikoak Agirreren lanaren katalogo zehatza dauka, eta 80tik gora lan jaso dituzte".

Horrez guztiaz gain, orain arte Agirreri egotzi zaizkion lan batzuk harenak ez direla ere jaso dute liburuan; eta, horrekin guztiarekin batera, orain arte ezezaguna zen Agirreren lan arlo bat ere dokumentatu eta aztertu dute: hark errestauratzaile gisa egindako lana, hain justu ere.



Epaitegiko teilatuan dagoen *Justicia* eskultura da Agirreren lanetako bat. GOIENKARIA

---

**oharrak**

KINTADA

**> 1956an jaiotakoek urteko afaria egingo dute**

Urtarrilaren 30ean egingo dute, Zabala jatetxean. 19:30erako egin dute hitzordua, Fraiskozurin; 21:15ean argazkia egingo dute San Martin plazan eta 21:30ean da afaria. Afaldu ondoren dantzaldia ere izango dute. Izenematea da Zabala jatetxean (943 76 42 57) eta horretarako mugaeguna da hilaren 25a.

HEZKUNTZA

**> Automatismo programagarrien gaineko eskolak Miguel Altunan**

Miguel Altunatik jakinarazi dutenez, hilaren 18an 18:00etan hasiko dira *Oinarrizko automatismo programagarriak, STEP7-300* delako ikastaroko eskolak. Otsailaren 22an, berriz, *Automatismo programagarri aurreratuak, STEP7-300* ikastaroa hasiko da. Bietan ala bietan plaza libreak daude oraindik. Hala, parte hartu nahi dutenek Miguel Altuna institutura jo dezakete edo 943 76 70 49 telefono zenbakira deitu.

**Saioa Garitano** > Jarduneko Haur eta Gazte sailaren arduraduna

# "Jolaslekua Osintxun izango da hilaren 23an, eta ludotekan egingo dugu"

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

**Jardun euskara elkarteko Haur eta Gazte saileko arduraduna da Saioa Garitano. Oraingo ikasturtean, iaz hasita, Jardunen jolasleku ibiltaria zabaldu egin da: erdigunetik irten eta Labegaraietara eta Angiozarrera joan da. Aurki, Osintxura ere joango da. Kontu horren eta beste batzuen gainean egin dugu berba Jarduneko ordezkariarekin.**



Saioa Garitano da jolasleku ibiltariaren arduraduna. GOIENKARIA

**Lehenengo aldiz, jolasleku ibiltaria auzoetan egon da. Zer moduzko esperientzia izan da?**

Beti herri erdialdean, hainbat lekutan baina erdialdean egin izan dugu jolaslekua, eta herriko kanpoaldeko auzoetara edo auzo txikietara joatea erabaki genuen. Labegaraietan izan ginen urriaren 23an, eta Angiozarren, abenduaren 12an. Hurrengo Osintxura joango gara, urtarrilaren 23an.

Labegaraietan oso giro txarra egin zuen. Auzoko jendeak eskertu egin zuen jolastokia eta eurekin akordatu izana, ekintza positiboa zela esan zigun; pena, eguraldia, baina oso harrera ona egin ziguten. Aterpe baten egin behar izan genuen, eta eguraldiaren erruz parte-hartzea izugarria izan ez arren, egon ziren umeak gustura egon ziren.

Kontua da auzoetako umeek bi aukera zituztela orain arte: erdigunera joan jolaslekua zegoenean, edo parte ez hartu.

**Aurreko esperientziaz baliatuta, Osintxurako zer edo zer berezirik prestatu duzue?**

Erabaki dugu ludotekan egitea, ikusita urtarrila dela, eguraldi aldetik arazorik egon ez dadin. Zapatu arratsaldean izango da, auzoetara joaten garenean egiten dugun moduan. Auzoen kasuan, auzo alkateekin harremanetan jartzen gara eta eurekin adosten dugu noiz eta non egin.

Bestetik, beti antzeko ekintzak egiten ditugu: aurpegia margotu, eskulanen bat; eta gero, batez ere, kantu-jolasak lantzen dira.

**Ze adinetako umeak ibiltzen dira jolaslekuan?**

Zabalik dago 3-12 urte artekoendako, baina gehienak dira 3-8 urte artekoak; 10-11 urtekoak ez dira gerturatzen, nahiz eta aukera izan. Hala ere, denondako ekintzak antolatzeko ez da arazorik egoten: aurpegia margotzera batez ere txikienak animatzen dira; baina eskulanetan, batzuetan bi antolatzen ditugu, bat errazagoa, txikienendako, eta beste bat konplexuagoa, nagusitxoagoak baldin badatoz. Kantu-jolasak dantza egitekoak dira, eta hor denek batera egiten dute eta ondo pasatzen dute denek.

> **"Auzoetara joaten hasi gara jolaslekuarekin, eta eskertu egin digute eurekin akordatzea"**
>
> **"Ohiko ekintzak egingo ditugu Osintxun: musua margotu, eskulanak eta kantu-jolasak"**

**Zenbat ume mugitzen ditu jolasleku ibiltariak?**

Garrantzitsua da esatea jolaslekua berez umeendako dela, baina helburua dela transmisioa lantzea guraso eta umeen artean; eta hor egiten diren kantu eta jolasekin, dantzekin eta korroekin helburua da gurasoek ere ikastea, umeekin etxean egin ahal izateko. Ume kopurua aldatu egiten da: kalean, beharbada 50 edo gehiago gerturatzen dira; auzoetan, pixka bat gutxiago. Baina gurasoak ere asko egoten dira, batez ere txikienenak, 3-4 urte artekoenak. Aita-amak inplikatzen dira, eta nahiko genuke oraindik gehiago inplikatzea.

Jolaslekuaren filosofia beti berbera da: transmisioa, euskarazko jolasak eta kantuak, eta umeen artean harremana euskaraz lantzea.

**Aurtengo ze asmo duzue?**

Beharbada egingo da uda inguruan jostailuen truke azoka bat, baina oraingoz zirriborroan dago. Beste asmo bat da kantu afaria formatuz aldatzea: leku itxi batetik kanpora zabaltzeko beharra ikusten da, eta hala, akaso kalean egingo da.

**Bestalde, Arrizuriagatik Zabalotegira joan beharko zarete. Zelan ikusten duzue?**

Arrizuriagako beheko solairu osoa hartzen dugu, zazpi gela. Udalaren proposamena da Zabalotegira joatea, baina hura txikiagoa da, bi gela dauzka. Zenbait ekintza dauzkagu ordu berean, eta lau gela aldi berean erabiltzeko beharra daukagu. Gure planteamendua da bi gelak erditik banatzea, lau gela edukitzeko, eta baimenaren zain gaude ea obra horiek egin ditzakegun.

## Jendea ari da Ur Zerbitzu bulegora joaten

Herritarrek dagoeneko ezagutzen dute udaletxean dagoen Ur Zerbitzu bulegoa; urrian hartu zuen Udalak bere gain zerbitzu horren ardura. Orduz geroztik, bulego hori zabalik daukate astelehenetik egubakoitzera, 09:30etik 13:00etara, denetariko izapideak egiteko: altak eta bajak, kontu aldaketak, erreklamazioak, abisuak... Ordutegi horretatik kanpo ere ematen du zerbitzua: 24 orduan dago martxan 902 54 02 77 zenbakia, eta *ura@bergara.net* helbide elektronikoa.



LEIRE KORTABARRIA

**APARKALEKUAK** > TARIFAK

# Lur azpiko parkingek ez dute igoerarik izango aurten

Orain arte bezala, lehen 30 minutuak doanekoak izango dira

2008ko urritik 2009ko irailera arte 36.320 erabiltzaile izan dituzte kiroldegiko eta Kalegoieneko parkingek




Zubikoa kiroldegiko aparkalekuak erabiltzaile gehiago ditu Kalegoienekoak baino. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Kiroldegiko eta Kalegoieneko lur azpiko aparkalekuetako tarifek ez dute igoerarik izango aurten. Hala, orain arte bezala, lehen ordu erdia doanekoa izango da guztiendako eta 31. minututik aurrera 0,0138 euro kobratuko dituzte minutuko, bost ordu bete arte. Bosgarren ordutik aurrera, 0,0174 euro kobratuko dituzte minuturo. Egunean, gehienez, 10 euro ordainduko dituzte erabiltzaileek.

Krisiarengatik eta erabiltzaile kopurua igotzeko hartu du tarifak ez igotzeko erabakia Udalak. Erabiltzaileak erakartzeko beste neurri bat ere hartu dute: aparkalekuen berri ematen duen seinaleztapena hobetu egingo dute, batez ere herrira datozen autoak parkingetara bideratzeko.

**KIROLDEGIKOAN GEHIAGO**

2008ko urritik 2009ko irailera arteko lur azpiko aparkalekuetako erabiltzaileen datuak ezagutzera eman dituzte udal arduradunek. Guztira, 36.320 lagunek erabili dituzte: 22.105ek kiroldegiko parkingean utzi zuten autoa (hilean, bataz beste, 1.842); eta 14.215ek (hilean, bataz beste, 1.184) Kalegoienekoan.

Dena den, bi parkingetan sartzen diren autoen erdiak baino gehiagok, %54,9k, ez zuten ezer ordaindu; hau da, 30 minututik beherako egonaldiak izan dira. Gainerako erabiltzaileek, %45,1ek, ordaindu egin zuten.

Udal arduradunek argitara eman dituzten datuetan ez dituzte kontuan hartu aparkalekuetarako sarrerak libre egon diren egunak; hain zuzen ere, San Migel eta Errosario jaietako egunak, besteak beste.

**PLAZAK EROSTEKO AUKERA**

Bestalde, lur azpiko parkingetan marradun plazak alokatzeko aukera ematen du Udalak. Egun osorako plaza gura duenak 90 euro ordaindu beharko ditu hilean; eta egun erdirako bada (09:00etatik 21:00etara edo 21:00etatik 09:00etara), 52 euro. Informazioa eskatzeko edo izena emateko udal bulegoetara joan beharko dute interesatuek.

Bestalde, Kalegoieneko aparkalekuan 52 garaje daude salgai oraindik. Salmenta indartzeko eskatzen zituzten baldintzetatik bat kentzea erabaki du Udalak; hain zuen ere, erroldari dagokion baldintza. Hortaz, Kalegoienean garajea erosi gura dutenek ez dute Oñatin erroldatuta egon beharko. Gainerako baldintzak eskuragarri daude udal bulegoetan.

DATUA

**54,9**

**EHUNEKOTAN**

2008ko urritik 2009ko irailera arte lur azpiko parkingak erabili zituzten %54,9 doaneko erabiltzaileak izan ziren. Zubikoa kiroldegi azpiko parkingak izan du erabiltzaile gehien tarte horretan.

> GAZTEAK

## Gaztelekuko argazki lehiaketako lanak hilaren 12ra arte

Bukatzear dago gaztelekuak antolatu duen Gabonetako argazki lehiaketara lanak aurkezteko finkatutako epea. Hain zuzen ere, martitzenean, hilaren 12an, bukatuko da erretratuak aurkezteko epea. Interesatuek lanok gaztelekuko gazte informazio puntura eroan beharko dituzte. Lehiaketan parte hartu ahalko dute 12 eta 17 urte bitarteko gazteek, eta lanak paperean edo euskarri informatikoan entregatu beharko dituzte.

Antolatzaileek bi sari banatuko dituzte: argazki onenari, liburutan, CDtan edo bideojokotan gastatzeko 40 euroko erosketa txartela emango diote; eta bigarrenari, berriz, 30 euroko txartela.

> ELKARTASUNA

## Laguntza eman dutenak eskertu ditu Hermansoloñak

Hermansoloña GKEk eskerrak eman gura dizkie euren proiektuak aurrera eramateko laguntza eman dioten Olaitturri elkarteari eta Bergarako Arantzadi ikastolari.

Sanmigeletan egindako moduan, Olaitturri elkartekoek Gabonetan egindako bi emanaldietan, Argentinako proiektuetarako dirua batzeko mahaiak jarri zituen Hermansoloñak. "Beste behin, herritarren erantzuna bikaina izan da", esan digu Jose Antonio Urteagak.

Bestalde, Arantzadi ikastolak askotariko jostailuak eta oinetakoak batu ditu Argentinako umeen eta helduen artean banatzeko.

## Eskubaloikoak txapeldun Errenterian

Aloña Mendiko harrobiko eskubaloi taldeek ez dute atsedenik izan Gabonetan. Urtarrilaren 2an Errenteriako eskubaloi txapelketan parte hartu zuten beste hainbat talderekin. 80 bat neskamutiko elkartu ziren. Aloñako alebin eta infantil mailetako taldeek lan bikaina egin zuten: alde batetik, alebin mailako mutilen eta nesken taldeak txapeldun izan ziren; eta, beste alde batetik, infantil mailako neskak hirugarren sailkatu ziren, eta mutilak laugarren.



ALOÑA MENDI

**ARETXABALETA** > KULTURA

## Zomorroen gaineko argazki erakusketa dago hilabete guztian Arkupen

Bihar, martitzena, elikadura osasuntsuaren eta pisua galtzeko estrategien gaineko berbaldia egingo du Nahikari Usarraga adituak

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
*Beste zomorro batzuk* argazki erakusketa dago Arkupeko erakusketa aretoan urtarril guztian. Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko kide Antonio Valencia argazkilariaren lanak dira, eta gure inguruan sarritan erdi ezkutatuta bizi diren zomorro, narrasti eta beste hainbat animaliatxo jaso ditu argazkitan: muskerrak, karramarroak, harrak, tximeletak... Urrun joan barik, asko Gipuzkoan bertan ateratakoak dira eta azalpen txiki bat utzi du egileak argazki bakoitzaren alboan, eta oraindik harrigarriagoa egin ikusgai dagoen lana.

**PISUA GALTZEKO ARGIBIDEAK**
Erakusketa ez ezik, berbaldia ere badago astean Arkupen. Bihar, martitzena (19:30), Gabonetan hartutako kilotxoak zelan kendu jakinaraziko du Nahikari Usarraga adituak. Elikagaien Zientzia eta Teknologian lizentziaduna da eta elikadura osasuntsua oinarri hartuta pisua galtzeko estrategiak aipatuko ditu. Argaltzeko dieten inguruan dauden mitoak agerian utziko ditu, eta elikaduraren inguruan sortzen diren nahasteen berri eman. Gainera, umeen gizentzearen aurrean zelan jokatu jakinaraziko du, eta anorexia eta bulimia kasuetan zein neurri hartu argitu.

**FILM EZAGUNAK ZARAIA ARETOAN**
Urtarrilean, gainera, arrakasta handiko azken filmak eskaintzen hasi dira Zaraia aretoan. Aste bukaera honetan, esaterako, *Millennium 2* izango dute helduek eta *Dos canguros muy maduros* umeek; hurrengoan (hilak 22-24), *El secreto de sus ojos* helduek eta *Donde viven los monstruos* umeek; eta hileko azken aste bukaeran (urtarrilak 29-31), *Avatar* helduek eta *Alvin y las ardillas* umeek.

Ipuin kontaketa ere izango dute umeek: *Ipuinez hegan eta hegan*. Kandelen argipean taldeak eskainiko die hilaren 23an (11:30), liburutegian.



Arkupeko erakusketa aretoan dagoen argazkietako bat. M.A.

### Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa

Kartel lehiaketa deitu du Kultura Sailak Aratusteen berri emateko. Edonork parte hartu ahal izango du, teknika librean. Hona hemen kartelak bete beharreko baldintza bakarrak: neurria, 50x70 cm, eta disko konpaktuan ekarriz gero, DIN-A3; eta testua: *Aratusteak Aretxabaleta 2010*.

Egindako lanak Arkupe kultura etxera eroan behar dira urtarrilaren 26a baino lehen. Eta kartelarekin batera egilearen datuak dituen gutunazal bat utzi beharko da ezizenarekin. Epaimahaia Kultura batzordeak eta hainbat herritarrek osatuko dute, eta erabakiaren berri urtarrilaren 29an jakinarazi. Saria 300 euro da.

**KZGUNEA**

## Osasun txartelaren gaineko ikastaroak

IT txartela jasotzeko azterketak egingo dituzte gaur eta eguaztenean

**M.A.** >ARETXABALETA
Goizetan dago zabalik Markole auzoko KZgunea urtarrilean (09:00-13:00). ONA eta Izenpe txartelak eskuratzeko aukera dago bertan. Eta hil honetan, gainera, Osasun Txartel Elektronikoaren eta sinadura elektronikoaren gaineko argibideak emango dituzte ikastaroak eginda (hilaren 14an eta 27an).

Horiekin batera, beste ikastaro batzuk antolatu dituzte; bihar, esaterako, Google Calendar aplikazioa emango dute ezagutzera (11:00) eta hurrengo astelehenean, hilak 18, Linkedin negozio sarea.

Horiez gain, IT txartela eskuratzeko azterketak egingo dituzte gaur, eguaztenean, hilaren 21ean, 25ean eta 27an.

Edozein ikastarotan jarduteko edo azterketaren bat egiteko, aurrez jakinarazi behar zaio KZguneko arduradunari eta txanda hartu –*tutor.aretxabaleta@kzgunea.net*–. Bide batez, gogoratu behar da oraintsu aldatu dutela Markole auzoko KZguneko telefono zenbakia: 943 25 23 51.

## Gaztelekuko azken galdera jokoa, Josu Urtzelairendako

Eskoriatzako gaztelekuak antolatzen duen galdera jokoak badu irabazle berria: Josu Urtzelaik bidezko merkataritza dendan gastatzeko 20 euroko bonua lortu du. Bestalde, gaztelekutik datozen asteotarako gertatzen ari diren ekimenen berri eman digute. Hilaren 15etik 17ra bitartean, irratia gertutik ezagutzeko aukera izango dute udalerriko gazteek, horren gaineko tailerra antolatu dute-eta. Urtarrilaren 23an, scratch eta break ikastaroa egiteko asmoa dute eta hilaren 30erako, gazteen artean arrakasta duen urteroko irteera dago aurreikusita; hain justu, eski irteera. Hortaz, hasi snow taula eta eskiak prestatzen!




ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

**ESKORIATZA** > ZOZKETAK

## Zenbaki sarituak ezagutarazi dituzte

'Eskoitzan erosi eta sari bikainak irabazi' eta 'Bihar independentzia' izeneko ekimenenak dira horiek

**M.B.** > ESKORIATZA
Egunotan *Bihar Independentzia* eta *Eskoitzan erosi eta sari bikainak irabazi* izeneko zozketen zenbaki sarituak ezagutarazi dituzte: lehenengoari dagokionez, irabazleak Nafarroako landa turismoan lau lagunendako asteburua lortu du; bigarrenak Donostiako La Perlan bi lagunendako zirkuitua; eta hirugarrenak herriko Azkoaga-Enea hotelean bi lagunendako afaria. Merkatarien promozioan, lehenak 1.000 euroko bonua eta bi lagunendako afaria eta gainontzeko bostek 100 euroko bost sari irabazi dituzte, hiru eguneko epean gastatzeko.

### Zenbaki sarituak

**'BIHAR INDEPENDENTZIA' ZOZKETAN SARITUAK**
0683 (Erreserba 0268)
0109 (Erreserba 1264)
1260 (Erreserba 1338)

**'ESKOITZAN EROSI ETA SARI BIKAINAK IRABAZI'**
05627 (Erreserba 18678)
25500 (Erreserba 22672)
03732 (Erreserba 02399)
20463 (Erreserba 04905)
16743 (Erreserba 24760)
25209 (Erreserba 00870)




Udal brigadako langile Enrike Perez eta Asier Untzetabarrenetxea, domekan, San Roke kalean gatza botatzeko puntuan. L.Z.

**ELGETA** > ELURRA

# Juerga herrian botatzeko asteburu horietako bat

Bariku iluntzean ohikoa baino jende gehiago ibili omen zen herrian poteoan, egon da, baina, lana gogotik egitea tokatu zaionik

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Bariku goizean hasi eta gogotik bota du elurra aste bukaeran. Elgetan laster egokitzen dira egoerara. Udalak prest dauka horrelakoetarako protokoloa eta brigadako langileei lana gogotik egitea tokatu zaie. Herritarrei dagokienean gazteenek laster atera zituzten elurretako jantziak eta lerak. Bodyboard taulekin elurretan jolasean ere ikusi ditugu asteburuan.

Bariku iluntzean elurra gogotik bota zuen atzera ere. Gainera, aspaldiko oinazturik ikusgarrienak jo zituen. Baina festarako haizea zegoen, eta animatuta egon zen gaua herrian.

**ZAPATUAN, EGUNKARIRIK EZ**

Oinaztuengatik edo elurrarengatik, zapatu goizean matxuratuta agertu ziren herrian hainbat igogailu. Eskuko telefonoak ere ez ziren oso fin ibili.

Kioskora ez zen egunkaririk iritsi, eta eragozpenak eragozpen brigadako langileak eta Julen Beretxinaga herriko bideak lehenbailehen zabaltzen ahalegindu ziren. Arratsaldean normaltasunez jokatu ziren Frontenis txapelketako norgehiagokak, eta horrelakoetan gertatzen den moduan ugari izan ziren han eta hemen antolatutako txokolatejanak. "Bideak zabaldu orduko jende ugari etorri zen gurera", adierazi du Bolatokiko Jose Monterrosok. "Eibarretik gehienbat. Eski pista ziruditen ondoko belardiek".

**GATZA AMAITZEAR**

2.500 kilo gatz zeukan Udalak biltegian gordeta. Ia guztia erabili dute hiru egunotan izotza urtzeko. Domeka goizeko eguzkitxoa lagungarri izan zen jendea kalera irtetera animatzeko. Elurretan jolastera edo mendi buelta egitera, asko izan ziren elurraren edertasunaz gozatu zutenak. Gaur, lan eguna, bestelako kontuak izango ditugu. Udalak, gainera, abisua jaso du eguneroan beste elurte bat datorrela.

**LEINTZ GATZAGA** > UDALA

# Beste lau urterako izendatu du udalbatzak Jose Inazio Beloki herriko bake epaile

Hura bakarrik aurkeztu zen udazkenean Udalak egin zuen deialdira; hainbat urte daramatza herriko bake epaile lanetan

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Abenduko azken astean egindako osoko bilkuran izendatu zuen udalbatzak Jose Inazio Beloki bake epaile. Hura bakarrik aurkeztu zen Udalak egindako deialdira, azken deialdian legez, eta dagoeneko hainbat urte daramatza lan horretan. Hortaz, posturako eskatutako baldintza guztiak betetzen zituen Belokik eta udalbatzak ez zuen zalantzarik izan izendatzeko orduan. Bake epailearen ordezkoaren postua, ostera, hutsik geratu da.

**EGINBEHARRAK**

Astean behin joateko ohitura du Belokik udaletxera dagozkion lanak betetzera –egubakoitzetan–, baina ez dauka ordutegi zehatzik. Horregatik, harekin egon beharra izanez gero hitzordua aurrez egin behar dute herritarrek udaletxera deituta.

Erregistro zibilari dagozkion kontuak bideratzen ditu, batez ere: jaiotzak, ezkontzak, liburuetan inskripzioak… Eta bitartekari lanak ere egiten ditu; epaitegietatik gatzagarrendako datozen deialdiak bideratu, esaterako. Lau urterako hartu du kargua Belokik.

**ARAMAIO** > ERRENTA AITORPENA

# Diputazioak errenta simulagailua ipini du webgunean

Sistema berriaren bidez, herritarrek 2010eko errentari begira erabakiak hartu ahal izango dituzte urtea bukatu baino lehen

**ARRITXU BARRUSO** > ELGETA

Arabako Foru Aldundiko Ogasun Sailak errenta simulagailua prestatu du *www.alava.net* webgunean datorren urteko errenta aitorpenaren emaitzak kalkulatu ahal izateko. Sistema berri horrek arabarrei aukera emango die kontu fiskalen aurreikuspena egiteko eta lagunduko die pentsio fondorako ekarpenak, mailegu amortizazioak edo bestelakoak egiterakoan erabaki egokia hartzen. Gainera, aitorpenaren zirriborroa datorren urterako gorde ahalko dute. Diputazioko Ogasun Sailak azaldu du helburua dela "Arabako Ogasuna herritarrei hurbiltzea".




Arabako Diputazioak martxan ipini duen errenta simulagailua. WWW.ALAVA.NET

**ANTZUOLA** > BIZTANLEAK

# 2009an, jaiotakoak gehiago izan ziren hildakoak baino

Azkeneko urteetan herriko biztanleriak gora egin du, gutxi izan bada ere

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

2009ko datuak kontuan hartuta, gora egin du biztanleriak Antzuolan. Iaz, jaiotakoak gehiago izan ziren hildakoak baino. Hala, Udaleko datuen arabera, 17 pertsona hil ziren Antzuolan 2009an. Horietatik sei emakumezkoak izan ziren eta gizonezkoak 11. Bake epaitegian adierazi digute eurek dituzten datuen arabera, hildakoetatik 11 Antzuolan hil zirela; hau da, gainontzeko seiak ospitalean edo beste nonbaiten hil ziren.

**JAIOTZAK GORA**

Iaz 36 ume jaio ziren Antzuolan. Horietatik 21 neskak izan ziren eta 15 mutilak.

Beste urte batzuetako datuekin alderatuta, jaiotza kopuruak gora egin du Antzuolan. 2008an, esaterako, 29 haur jaio ziren eta 2006an 13.

**ERROLDA ONARTZEKE**

2009ko errolda oraindik onartu barik dago; horretarako, kontuan hartu beharko dituzte migrazio datuak ere.

2008an, esaterako, kanpotik etorritakoak 63 lagun izan ziren; azkeneko urteetako datu handiena 2005ekoa da: 100 lagun.

**Biztanle kopurua**

| URTEA | BIZTANLEAK |
|---|---|
| 2000 | 1.893 |
| 2005 | 2.041 |
| 2006 | 2.073 |
| 2007 | 2.121 |
| 2008 | 2.145 |

ITURRIA: ANTZUOLAKO UDALA

# Kirola



**> ZIKLO-KROSA**
Jone Muxika elgetarra zortzigarren izan da Espainiakoan **> 23**



**> ESKIA**
Asteburuko eta aste osoko hainbat irteera antolatu dituzte ibarrean **> 24-25**



**> SASKIBALOIA**
Aloña Mendiren bigarren taldeak 75 eta 74 irabazi dio MUrenari **> 26**

# Oztopoak oztopo, jokatu dira fronteniseko lehen partiduak

**BIGARREN EDIZIOA**
Iazko arrakasta ikusita, aurten ere antolatu dute txapelketa

**ATZERAPENAK**
Elurrak eta bestelako arazoek bi partidu atzeratzea eragin dute

**JOKIN BEREZIARTUA** > ELGETA

Martxan da Elgetako bigarren frontenis txapelketa. Gizonezkoen artean hamar bikotek eman dute izena, eta heldu zein gazte, belaunaldi ezberdinak izango dira nor baino nor Elgetako frontoian. Izan ere, 40 urtetik gorako jokalariak egon badauden arren, gehienak 30 urtetik beherakoak dira. *Pike*-a, beraz, ziurtatuta dago. Emakumeei dagokienez, bestalde, hiru bikote daude oraingoz, baina izenematea zabalik dago urtarrilaren 17ra arte. Antolakuntzak espero du nesken bikote kopurua gutxienez seira heltzea.

Bikote bakoitzak bost euro ordaindu behar ditu eta bikote onena izatearen ohoreaz gain, honakoak izango dira sariak: lehenendako txapela eta garaikurra, bigarren eta hirugarrenendako garaikurra, eta laugarrenendako opari-sorpresa (iaz maleta bat oparitu zieten, aurten ezberdina izango da oparia).

Antolakuntzak ezin izan du oraindik egutegi osoa zehaztu. Udaleko ordezkariekin egon behar dira frontoia erabilgarri noiz dagoen zehazteko.

**LEHENA, OZTOPOEZ JOSIA**

Lehen jardunaldian oztopoak izan ziren nagusi. Hasieran bost partidu jokatu behar ziren arren, azkenean hiru *duelo* izan genituen Elgetako frontoian. Izan ere, domekarako aurreikusita zegoen Josu Arantzabal eta Eneko Ojanguren bikoteak Eneko Maguregi eta Andoni Elortzaren aurka zuen partidua atzeratu egin zen. Antolatzaileek azken orduan jakin zuten domeka goizean pilota partiduak egongo zirela. Edozelan ere, elurrak ez zuen utzi, eta beraz, domeka goizean ez zen ez frontenisik ezta esku pilotarik izan. Txapelketako egutegian tarte bat dutenean jokatuko da partidu hori.

Eta ez hori bakarrik: zapatuan Oskar Sarasua eta Santi Dosuna eta Hodei Zenitagoia eta Mikel Beretxinagaren arteko lehia ez zen jokatu. Jokalari batek, elurtea dela-eta, ez zuen Elgetara heltzea lortu. Kanporaketa hori datorren aste bukaeran jokatuko da.

**FABORITOEK HUTSIK EZ**

Iaz Eñaut Arantzeta eta Aritz Gallastegi izan ziren irabazleak. Eta Asier Osoro txapelketaren antolatzaileak uste duenez, "aurten ere eurak dira faborito". Lehen partiduan ez zuten hutsik egin, eta erraz irabazi zien Mikel Mandaluniz eta Julen Barrutiak osatzen duten bikoteari (25-10).

DATUA

**10**

**BIKOTEK EMAN DUTE IZENA**

Gizonezkoen artean hamar bikotek eman dute izena. Gazte zein heldu, belaunaldi ezberdinak lehiatuko dira Elgetako frontoian. Emakumeendako, berriz, izenematea zabalik dago, hilaren 17ra arte.

## Aste bukaerako emaitzak

| | |
|---|---|
| Adrian Gorostiza | |
| Asier Osoro | 25 |
| Iban Retolaza | |
| Xabier Ubera | 20 |
| Mikel Mandaluniz | |
| Julen Barrutia | 10 |
| Eñaut Arantzeta | |
| Aritz Gallastegi | 25 |
| Sergio Bousas | |
| Mikel Arkarazo | 23 |
| Asier Untzetabarrenetxea | |
| Asier Morales | 25 |

OHARRA: BI PARTIDU ATZERATU DIRA. OSKAR SARASUA-SANTI DOXUNA ETA HODEI ZENITAGOIA-MIKEL BERETXINAGAREN ARTEKOA ETA JOSU ARANTZABAL-ENEKO OJANGUREN ETA ENEKO MAGUREGI-ANDONI ELORTZAREN ARTEKOA.



Eñaut Arantzetak eta Aritz Gallastegik mendean hartu zituzten Mikel Mandaluniz eta Julen Barrutia (25-10). JOSETXO ARANTZABAL

Iban Velasco (Arrasate, 1980) ez da zarata mediatiko handia ateratzen duten kirolari horietakoa. Gizon apala da, eta isila; baina Arrasatekoak errepidean egin nahi du berba. Horretarako, dagoeneko egin ditu lehenengo pausoak: mimo handiz prestatu du denboraldiaurrea, eta dagoeneko ahaztu du 2009ko urte txarra. Urte erabakigarria du aurrean, hark eta Euskaltel-Euskadi taldeak.

**Iban Velasco** > Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindularia

# "Ez dut zortean sinisten, lorpenak eguneroko lanaren fruitua dira"

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

**Gaur bertan abiatuko da Iban Velasco Australia aldera. Arrasatekoak munduaren beste puntan hasiko du denboraldia, hemen baino tenperatura askoz epelagoarekin. Aurrera begiratu aurretik, atzera begiratua egin dugu.**

**2009aren gaineko errepasoa egiteko umorerik bai?**

Dagoeneko atzean utzi dudan urtea da; ez daukat arazorik horren gainean berba egiteko.

**Ilusioz hasi zenuen urtea. Errioxako Itzulian, baina, errepidea elurtuta zegoela, bihurgune gaizto batean errepidetik irten eta amildegi txiki batean behera joan zinen. Hiru saihets hautsita, etxera.**

Gurpila zulatu zitzaidan kilometro batzuk lehenago, eta jarri zidaten gurpil berriak presio larregi zuen errepide hartan ibiltzeko. Tropela harrapatzeko ahaleginean, kurba batean irrist egin eta han joan nintzen... Kolpe ederra izan zen, bai. Baina gogoan dut bi astera entrenatzen nenbilela berriro ere.

**Hilabete batzuk geroago, Vueltarako prestatzen, entrenamendu saioan Antzuola saria ikustera geratu zineten Euskalteleko hiru lagun. Berriro ere pedalei ematen hasi, eta lurrera.**

Ez dut ondo gogoratzen zer gertatu zen. Markel eta Urtasun tiraka ari ziren, eta Markelek [Irizar] esan zidan bere atzeko gurpila ukitu eta lurrera joan nintzela. Lehendik ere txukun neukan besoa, eta lurrera joan nintzenean beste haustura bat.

**Badakit ebakuntzan gorriak ikusi zenituela.**

Ebakuntza nahiko delikatua zen, tendoi batzuk ukituz gero sentsibilitate barik gera nintekeelako. Ebakuntza ondo joan zen, baina gelara eraman nindutenean besoa handitzen hasi zen, arteriaren bat odola galtzen ari zelako. Eta ebakuntza-gelara eraman ninduten berriro ere.

**Zelan duzu ezker besoa?**

Errekuperatuta daukat, baina ezkerraldean apur daitekeen guztia apurtu dudala uste dut: lepauztaia, ukondoa eta erradioa.

**Horrelakoetan normalena da bizikleta pikutara bidaltzeko gogoa izatea.**

Bost minutuz ziklismoa uztea pasa zitzaidan burutik.

**Une zailetan gehiago ikasten dela dio esaerak...**

Eta halaxe da, bai. Neuk, behintzat, ikasi dut lesio baten aurrean pazientziaz jokatzen.

**Udaberriko klasikan 18. egin zenuen sailkapen orokorrean.**

Bai, poliki-poliki gorputzaldi geroago eta hobean nintzen, eta hor gustura ibili nintzen. Pena Errioxako erorikoa izan nuela segidan eta aurretik egindako lana galdu egin nuela. Gero, Luxenburgon eta Suitzan ere maila onean ibili nintzen, eta Vueltarako astebeteko atsedena izan eta gero berriro ere sasoia berreskuratzen nenbilen.

**Zorte txarra atzean uzteko gertu?**

Egia esan, ez dut zortean sinisten. Lorpenak norberak egunero egiten duen lanaren araberakoak izaten dira.

**Iazkoa atzean utzi eta 2010ari begira indartsu hasiko duzu urtea.**

Hori eskatu dit taldeak. Australiara goaz orain, Tour Down Under lasterketan parte hartzera, eta esperientzia polita izango da.

**Taldeko erreferente izango zara Australian.**

Bai, Mikel Nievek eta biok izango dugu ardura hori. Talde gaztearekin goaz, eta gu gara beteranoetakoak; hortaz, gazteei gauzak irakastea izango da helburuetako bat. Lasterketari begira, ni igotzailea naiz eta hango etapetan ez dago mendaterik. Esprintean ondo moldatzen diren lasterkariendako proba apropos da.

**Joan den astean aurkeztu zenuten talde berria. Zer-nolako taldea duzue?**

Oso talde gaztea izango dugu. Astarlotza eta Landaluze ez daude, eta etorri direnak gazteak dira. Dena dela, kalitatezko jendea fitxatu dutela uste dut: Beñat Intxausti, Romain Sicard, Jonathan Castroviejo... Ez dakit zenbat lasterketa irabaziko ditugun, baina taldeak jarraitzen badu, datorren urterako oinarri ona dugu.

**Hori ere kontuan izan behar da: taldekide guztiok amaitzen duzue aurten kontratua.**

Derion egindako aurkezpenean Igorrek [Gonzalez de Galdeano] esan zigun oraingoz datorren urteari begira ez dagoela ezer ziurtatuta, taldeak ez duela ezer lotuta; hortaz, oraingoz, itxaron egin behar...

**Taldeak aurrera egiteko garrantzitsua izango da dopin kasu gehiagorik ez egotea.**

Hori da garbi utzi diguten gauzetako bat; hau da, positibo bakar bat gehiagorekin taldea desagertu egingo dela; egun batetik bestera, gainera. Taldearen babesleek argi utzi omen dute hori.

**Eta horrelakorik gerta ez dadin taldea hasi da neurriak hartzen.**

Bai. Dopinaren kontra borrokatzeko UCIk ezarrita daukan Adams sistemarekin batera talde barruan beste kontrol batzuk egingo dizkigute. Taldeak uneoro jakingo du non gauden –Adams sistemarekin UCIk ere badu informazio hori–, eta horrekin batera denboraldian zehar bospasei kontrol inguru egingo dizkigute. Eta kontrol horietan positiboak baldin badaude taldeak neurriak hartuko ditu.

**Urtean zehar zenbat kontrol pasatzen dituzue?**

Iaz 22 kontrol pasa nituen. UCIko ordezkariak hamabi aldiz

LESIOA

**"Une txarretan asko ikasten da, bai; nik ikasi dudana da lesio baten aurrean pazientziaz jokatzen"**

TALDEKO LIDER

**"Australian ni eta Mikel Nieve goaz lider moduan, eta gure ardura izango da taldeko gazteei dakiguna irakastea"**

TOURRA

**"Egunkarietan irakurri dut Tourrera joan daitezkeen ziklisten artean nagoela; saria izango litzateke"**

DOPINA

**"Argi esan digute aurten dopin kasu bat egonez gero taldea desagertu egingo dela; barruko kontrolak izango ditugu"**



Iban Velasco, Errege egunean, Arrasateko


erdialdean. Orbea Orca hori erabili du neguan entrenatzeko; lasterketetarako berria emango dio taldeak. XABIER URTZELAI

etorri zitzaizkidan etxera ustekabeko kontrola pasatzera, eta gainontzeko kontrolak lasterketetan pasa nituen, batzuk txizarekin eta beste batzuk odola aterata.

**Eta hori, 2009an ez duzula nahi beste korritu.**

Bai, pentsa... Erorikoak direla-eta hainbat hilabete egin ditut lasterketetatik kanpo, eta, hala ere, 22 kontrol izan ditut. Aldizkari batean irakurri nuen Lance Armstrongek 36 kontrol inguru pasa zituela iaz.

**Taldeak esan dizu ze egutegi izango duzun 2010ean?**

Denboraldiko lehenengo zatian bai, behintzat. Esandako moduan, Australian hasiko dut denboraldia [Tour Down Under, urtarrilak 19-24], eta handik Mallorcako sarira noa [Otsailak 7]. Ondoren Haut Var-eko Tourrera joango naiz [Otsailak 20], Paris-Niza [Martxoak 7], Katalunniako Itzulia [Martxoak 22], Lizarragako Miguel Indurain Klasikoa [Apirilak 4], Udaberriko Klasikoa [Apirilak 11], eta ondoren Ardenetako klasikak egingo ditut: Liege-Bastogne-Liege [Apirilak 17] eta Amstel Gold Race [Apirilak 18]. Handik Romandiako Tourrera [Apirilak 27] joango naiz, eta atseden hartuko dut ondoren, astebete-edo.

**Astebeteko atsedenaldia, lanean hasteko berriro ere.**

Bai, baina oraindik ez dakit Tourrera joango naizen ala ez. Komunikabideetan irakurri dut baietz, ni nagoela Tourrera joan daitezkeen ziklisten artean, baina oraindik ikusteko dago hori. Bederatzi ziklista izango dira Frantziako itzulian, eta hor egoteko ezinbestekoa izango da aurrean ditudan hilabeteotan maila ona ematea.

**Tourrean esku hartzea saria da ziklista batendako.**

Duda barik. Lasterketa hori da oihartzun handiena duena. Denboraldian zehar gertatzen da lasterketa askotan lan txukuna egitea, lasterketak irabaztea edo protagonista izatea, baina ziklista horiek ez dute oihartzunik izaten komunikabideetan.

**Bizikleta gainean zer amesten duzu? Izan ere, daramazuen eguneroko zorrotzari eusteko derrigor izan behar dituzue ametsak.**

Tourrean egotea ametsa izango litzateke eta, horrekin batera, noski, lasterketa bat irabaztea. Ez zait inporta non, baina helmuga lehenengo postuan zeharkatzea da dudan ametsetako bat.

**Zeure inguruko bati baino gehiagori entzun diot Velascok oraindik ez duela bere mailarik onena eman. Zeuk ere sentsazio bera duzu?**

Neurri batean, bai. 2008an hasi nintzen maila polita erakusten, besteak beste, Giroan eta Vueltan, eta nire asmoa zen 2009an pauso bat gehiago ematea. Iaz progresio horrek ez zuen nahi moduan aurrera egin, eta ea aurten errekuperatzen ditudan sentsazio on horiek.

**Fitxaketa ederra egin du errepidean zurekin horrenbeste ordu partekatu dituen lagun oñatiarrak.**

[Barre] Bai, eta asko pozten naiz Markelengatik. Oso gustura ikusten dut, egin behar duen lanean zentratuta, eta, aldaketa horrek on egingo dio. Gainera, aurten klasikoetan ibiliko da buru-belarri; hor ibiltzen da gusturen, eta ondo ibiliko da.

KONTUAN HARTZEKO

## Ziklista gazteez osatutako taldea Australiara

Talde laranjak ziklista gazteak eramango ditu aurtengo Tour Down Under probara. Alvaro Gonzalez de Galdeano ibiliko da zuzendari lanetan, eta bere agindUetara izango ditu Iban Velasco, Gorka Izagirre, Mikel Nieve, Daniel Sesma, Jonathan Castroviejo, Romain Sicard eta Miguel Minguez.

Iaz Euskaltel-Euskadik egun asko egin zituen Australia aldean, lasterketan esku hartzearekin batera prestakuntza lana egiteko aprobetxatu zuten-eta –hemen baino giro epelagoa dago han–, baina aurten taldeak ez du horrelako egonaldirik egingo. Bi eguneko bidaiaren ondoren, ziklistek hiru egun baino ez dituzte izango atseden hartu eta proba prestatzeko.

ZIKLO-KROSA

# Muxika elgetarra 8. Espainiako txapelketan

## Laredon lehiatu diren ibarrekoak pozik, oro har, egindako lanarekin

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Espainiako txapelketako lehenengo hamarretan amaitu arren, Jone Muxika elgetarra ez zen oso gustura geratu lasterketarekin. Zirkuitua –3.353 metrokoa– ez zen bere gustukoa: "Laua eta bizkorra zen, azkar joatekoa. Aredun zatiak ere bazituen, eta ni ez naiz horrelako bideetan ondo moldatzen. Lokatza duten guneak gustatzen zaizkit niri. Barrutiak zituen bi putzuetan aurreratzen nuen jendea, baina areetan atzean geratzen nintzen berriro".

Muxika ez zen oso gustura mintzo, Espainiako txapelketetan beti antzera gertatzen ei zaiolako : "Horrelako zirkuitoekin ez naiz motibatzen eta nekatu gabe amaitzen dut beti. Gauza bakarrarekin nago pozik, egin dudan irteerarekin, normalean baino dezente hobea egin dut-eta" .

Lesio bat gainditzeko bidean, Elgetako txirrindulariak ez zuen sasoi betean korritu zapatuan; azkenean, Rocio Gamonal asturiarrarengandik –irabazlea– bost minutu pasatxora amaitu zuen.

**GAINERAKO ORDEZKARIAK**

Laredon jokatutako Espainiako txapelketan, gazte mailako lasterketan izan zuen Debagoienak ordezkaritza zabalena: Mikel Aristi (24.), Ion Rivero (45.) eta Hodei Orobengoa (54.) bergararrek eta Iker Mugarza (33.) oñatiarrak hartu zuten parte. Aristik Jon Ander Insausti irabazleareko lau minutura amaitu zuen lasterketa. Lan polita egin zuten lauek, nahiz eta irteeran atzean egon eta erraza izan ez aurretik zituztenak pasatzea.

Elite mailan ere izan zuen ordezkaririk gure ibarrak; Zigor Urain eta Iñigo Roldan arrasatearrak aritu ziren lehian kategoria nagusian. Urainek 30. eta Roldanek 36. amaitu zuten, Javier Ruiz de Larrinaga –irabazlea– arabarrarengandik 5'53" eta 7'24"ra, hurrenez hurren. Hauei ere gazte mailakoei moduan gertatu zitzaien; 80-90 laguneko tropelaren atzealdean irten ziren, eta txirrindulari asko aurreratu behar izan zituzten ondorioz. Azkenik, Roberto Zugasti oñatiarra 19. izan zen Master 30 kategorian.

**IRTEERAK** > ESKI ALPINOA ETA MENDIKO ESKIA, IBARREKO ELKARTEEN ESKUTIK

# Elurra berriro ez badator, bad



Ibarreko lagun talde bat Cervinopean, Alpeetarako irteera batean. LEIRE GUENETXEA

Asteburuko irteerez gain, aste osokoak ere izango dira, apirilean eta Alpeetara

Besaidek, Murrukixok eta Aloña Mendik mendiko eski irteerak ere egingo dituzte

**JULEN IRIONDO**> BERGARA

Ondorengoak dira, herriz herri, antolatutako irteerak:

**ARRASATE**

Besaide mendizale elkarteak irteera ugari antolatu ditu denboraldi honetarako ere. Eski alpinoan, urtarrileko (23-24), otsaileko (6-7 eta 20-21) eta martxoko (6-7 eta 27-28) bost asteburutan egingo dituzte bi eguneko irteerak, denak Formigalera; apirilaren 3tik 10era, berriz, Alpeetara egingo dute bidaia.

Mendiko eskiari dagokionez, beste lau irteera egingo dituzte: urtarrilean (16-17) ikastaroa egingo dute, Somport eta Pic de Gabedaille artean; otsailean (20-21) Batallance-Piau Engaly-Gedre zeharkaldia egingo dute; martxoan (20-21) Artigues, Baztango aterpetxea eta Aulom artekoa; eta apirilean (24-25) Posetsera igoera (*www.besaide.org*).

**OÑATI ETA BERGARA**

Aloña Mendiren eski sailak eta Bergarako Pol-Polek batera antolatu dituzte asteburuko bi irteera eta aste osoko bat: urtarrilean (29-31) eta otsailean (26-28) Baqueira-Beretera joango dira (pentsio erdia eta forfaita 200 euro inguru), eta apirilean (2-10) Alpeetara; printzipioz Cervinia-Zermattera joatekoak dira, nahiz eta aldaketak egon daitezkeen.

Bestalde, Formigal, Candanchu eta Astunerako forfaitak estazioetan baino merkeago eskuratu daitezke Oñatin eta Bergaran. Formigalen, esaterako, 39,50 euro kostatzen da; hemen erosita 34. Bergarako kasuan, informazio gehiago *www.pol-pol.net* atarian aurkitu dezakezue; oñatiarrei dagokionez, astelehenero (18:30-20:00) Aloña Mendi tabernan egoten dira eski sailekoak, eta irteeretarako izena emateko ere orduan joan behar da.

Aloña Mendiren mendi sailak, bestalde, mendiko eskia egiteko irteerak ere antolatu ditu: otsailean (6-7) hastapenekoa, Luz-Saint-Sauveur ingurura; martxoan (27-28) trebakuntzakoa, zehazteke dagoen tokira. Izena eman daiteke irteera bakoitzaren aurreko bi eguaztenetan, Aloña Mendi tabernan, 60 euroren truke –bazkideek, 50–. Bidaiarako lekua egongo da 30 lagunendako gehienez (*www-alona-mendi.com*).

**ARETXABALETA**

Aretxabaletako Murrukixo elkarteak alpinoko eta mendi eskiko irteera bana antolatuko ditu: alpi-

DATUA

**200**

**EURO INGURU**

Horixe kostatuko da Oñatitik eta Bergaratik Baqueira-Beretera egingo duten irteeretako bakoitza. Prezio horretan sartzen da bi egunerako alojamendua, gosaria, afaria, forfaita eta segurua.



Ostatutik irten eta zuzenean eski pistetara joateko aukera ematen dute Alpeetako hainbat eski estaziok; erosotasun hori izaten da hango estazioen abantaileetako bat. LEIRE GUENETXEA

# dugu guk elurretara joatea

nokoa otsailean izango da (20-21); lehenengo egunean Luz-Ardidenen eskiatuko dute, eta bigarrenean, agian, inguruko beste estazio batean. Martitzenetan eman daiteke izena Murrukixoren egoitzan (19:00-20:00), edo bestela telefonoz bertara deituta edo e-postaz (*murrukixo@euskalerria.org*). Bestalde, Aretxabaletatik ere egingo dute mendiko eski irteera bat udaberri aldera, baina informazio zehatzik ez dago oraindik.

**ESKORIATZA**
Eskoriatzatik bi irteera egingo dituzte eskiatzera, urtarrilean (23-24) eta otsailean (20-21) bana, biak Luz-Ardidenera. Urtarrilaren 20a eta otsailaren 17a baino lehen eman behar da izena, Eskoriatzako Namaste dendan edo 943 71 43 27 telefono zenbakira deituta.

**ARAMAIO ETA ANTZUOLA**
Orixol mendi elkarteak otsaila bukaerarako antolatuko du eski irteera. Herriko tabernetan jarriko dute informazioa, eta hauetan edo *orixolme@hotmail.com* helbidean eman ahal izango da izena. Azkenik, Arrola mendi taldeak ere antolatuko du irteera bat, baina zehazteko dago oraindik.

## Urtarrila eta otsaila

**Arrasate, urtarrila**
**16-17** Somport-Pic de Gabedaille, mendiko eskia.
**23-24** Formigalera, era alpinoan.

**Eskoriatza, urtarrila**
**23-24** Luz-Ardidenera, alpinoan.

**Oñati eta Bergara, urtarrila**
**29-31** Baqueira-Beretera, era alpinoan.

**Arrasate, otsaila**
**6-7 eta 20-21** Formigalera, era alpinoan.
**20-21** Batallance-Piau Engaly-Gedre, mendiko eskia.

**Oñati, otsaila**
**6-7** Luz-Saint-Sauveur ingurura, mendiko eskia.

**Aretxabaleta, otsaila**
**20-21** Luz-Ardidenera, alpinoan.

**Eskoriatza, otsaila**
**20-21** Luz-Ardidenera, era alpinoan.

**Oñati eta Bergara, otsaila**
**26-28** Baqueira-Beretera, era alpinoan.

MENDIKO ESKIA

## Aspaldian gorakada handia izan duen modalitatea

Pistan eskiatzeak dakartzanetatik haratago, sentsazio berrien bila joateko hautua egin du askok azkenaldian. Gero eta gehiago dira, pistetan zaildu ondoren, mendiko eskirako jauzia egiten dutenak.

Pistan hartutako trebetasunaz gain, beste ezagutza batzuk ere eskatzen ditu modalitate honek. Hori dela eta, elkarteek (Besaidek eta Aloña Mendik, gure kasuan) hastapeneko edo ikastaro gisako txangoak egiteko erabiltzen dituzte denboraldiko aurreneko irteerak.

Ezagutzaz gain, material berezia ere eskatzen du modalitate honek: mendiko eskiko taulak, lokailuak, botak eta makilak; foka larruak eta hortzak; eta segurtasun materiala (pioleta, kranpoiak, zunda, ARVA eta palak). Elkarte batzuek ematen dute material hau alokatzeko aukera. Mendiko eski irteeretara joateko mendian federatuta egon behar da.


Mendiko eskian, behera ez ezik, gora ere egin behar da. JUAN KRUZ URTATZA


Lagun giro bikaina izaten da ibarretik eskiatzera egiten diren irteeretan. JUAN KRUZ URTATZA

**SASKIBALOIA** > GIPUZKOAKO 2. MAILA

# Ia ia eman zioten buelta Arrasatekoek

Etxekoek azken laurdena 14 puntuko aldearekin hasi arren, kantxa osoko presioak min egin zien

Azken segundoetako jaurtiketa libreetan finago ibili eta igoera faserako sailkatu ziren gorriak

ALOÑA MENDI
**75-74**
MONDRAGON UNIBERTSITATEA


Lehia gogorra izan zuten bi taldeek azken minutuetan. JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN IRIONDO** > OÑATI
Desabantaila handia izan, baina atzetik aurrera egiten asmatu, aurkaria harrapatu eta azken txanpan hari aurrea hartzea ere lortzen duenak saria bere egin ohi du sarri kirolean, baina zapatuko debagoiendarren arteko derbian ez zen gidoia bete. Aloña Mendiren eta Mondragon Unibertsitatearen bigarren taldearen arteko partiduan, arrasatearrek buelta handia eman zioten markagailuari, amaierarako minutu baten faltan lau puntu aurretik ere jarri ziren, baina azkenean ezin izan zuten irabazi.

Neurketaren zati handienean Aloña Mendi izan zen nagusi kantxan; partidu amaiera eta hasiera baino ez ziren parekatuak izan. Bost minutu iraun zituen berdintasunak; oñatiarrek estutu egin zuten atzean, eta erasoan barruko jokoa baliatu zuten nagusitasun egoerak sortu eta saskiratze errazak egiteko.

Bigarren laurdenaren erditik aurrera hamar puntuko aldearekin ibili ziren etxekoak; Arrasatekoek behera egin zuten, eta 41 eta 27 iritsi ziren atsedenaldira.

**PRESIO ITOGARRIA**
Barruko jokoan oñatiarrek zuten nagusigoa ikusita, kanpokoek defentsa itxi eta Aloñako mutil garaiak lotu gura izan zituzten. Baina gorriek ongi mugitu zuten baloia, kanpora atera eta jaurtiketa errazak egin zituzten. Hirugarren laurdena saskiratze trukea izan zen, eta ez zen atsedenaldiko aldea aldatu (58 eta 44).

Baina amore eman beharrean, laugarren laurdenean azkena ematera atera ziren MUkoak. Presio itogarria egin zuten kantxa osoan, eta oñatiarrak urduri jartzea lortu zuten.

Aloña Mendik baloi ugari galdu zituen, eta zuen errenta txikituaz joan zen, ezerezean geratu eta markagailuan atzetik geratu arte. Partidua amaitzeko 1'08" falta zela lau puntuko aldea zuten arrasatearrek. Etxekoen entrenatzaileak hutsartea eskatu eta jarraian saskiratze bizkorra lortu zuten, bi puntura jarriaz.

Amaierarako lau segundo falta zirela, markagailua berdindu- ta zela, falta taktikoa egin zuten oñatiarrek. Falta jaso zuen Arrasateko jokalariak bi jaurtiketak huts egin zituen; etxekoek errebotea hartu eta MUkoek falta egin zuten. Lehenengo jaurtiketa librea sartu eta horrela geratu zen etxean garaipena. Honenbestez, igoera faserako sailkatu da Aloña Mendi.

**SASKIBALOIA**

# Murkil Zasti irabazi dio Eskoriatzak 57 eta 46

Bigarren faseari abantailarekin ekiteko inportantea zen domekako lehia

**JULEN IRIONDO** > ESKORIATZA
Eskoriatzako eta Zarauzko neskak lauko finalerako sailkatzeko lehian ariko dira denboraldiko azken txanpan. Lauko finalerako sailkapena erabakiko duen ligako bigarren fasean kontuan hartuko dira aurreneko honetan elkarren artean jokatutako partiduetako emaitzak, eta horregatik zen oso garrantzitsua domekakoa.

Lehenengo laurdena parekatua izan zen; bi erasoak hobeto ibili ziren bi defentsak baino. Bigarren laurdenean eskoriatzarrek hobetu egin zuten defentsa, erasoan asmatu egin zuten eta hamar puntutik gorako aldea hartu.

Baina hirugarren laurden oso txarra egin zuten etxekoek. Zarauztarrek min handia egin zieten hiruko marratik eta azken laurdenari bi puntugatik irabazten ekin zioten kanpokoek. Ostera ere lanari ekin zioten, ordea, eskoriatzarrek; defentsa gogortu eta kanpokoek jaurtiketa errazak egin zitzaten eragotzi zuten, partidua irabaziz.

**ESKUBALOIA** > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Defentsan oinarritu eta eraso onari esker, irabazi eta gora begira

Errasti atezaina eta 12 gol egin zituen Plazaola nabarmendu ziren arren, taldeko lan bikaina egin zuten mahoneroek

SORALUCE BKE
**33-26**
EREINTZA

**JULEN IRIONDO** > BERGARA
Parekatuak izan ziren Soraluce BKEren eta Ereintzaren arteko partiduko aurreneko 20 minutuak. Pare bat goleko aldea baino ez zuen izan Bergarak. Atsedenaldia baino lehen, ordea, bost goleko errenta hartu zuten etxekoek; baina lehenengo zatia horrela amaituko zela zirudienean, huts batzuk egin eta bizpahiru golera hurbildu ziren berriro Ereintzakoak.

Bigarren zatia antzera joan zen, baina amaieran aldeak gutxitzera barik handitzera egin zuen, eta ondo irabazi zuen Bergarak.

Defentsan oinarritu zuen garaipena. Zulo gutxi utzi zituen, kanpokoek ezin jaurtiketa erosoak egin eta Errasti atezainak ere gelditu bikainak egin zituen.

Erasoan, berriz, Ereintzak ez zion Bergarari gura bezain bizkor jokatzen utzi, ondo jaisten zirelako defendatzera. Baina eraso estatikoan ondo moldatu zen domekan etxeko taldea. Mikel Plazaola nabarmendu zen, 12 golekin. Bergararrek goiko postuetan jarraitzen dute horrela.


Defentsan eta erasoan, bietan ibili ziren ondo etxekoak. J.A.

**FUTBOLA**

# Leioa hobea izan eta UDAk galdu 2 eta 0

Ibarreko beste taldeen partiduak ez ziren jokatu elurragatik

**JULEN IRIONDO** > BERGARA
Aretxabaleta ez zen fin ibili Leioan, eta merezita galdu zuen, 3. Mailako lehian.

Gipuzkoako Ohorezko Mailako partidu gehienak, berriz, bertan behera geratu dira asteburuan elurraren ondorioz. Ez dira jokatu, adibidez, Bergara, Mondra eta Aloña Mendirenak: zelaia zuri egoteagatik batzuk, joanetorriak saihesteagatik besteak, aterpean jokatzen diren beste kirol batzuetan gertatu moduan.

**Pablo Diez** > Aloñako entrenatzailea

# "Baloia gehiago eduki behar dugu, hori da-eta defendatzeko modurik onena"

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

**Denboraldi zaila ari da izaten Aloñako futbol taldearendako. Goiko postuetan egotera ohituta, jaitsiera postuetatik gertu egotera pasa dira oñatiarrak. Zuzendaritzak azken urteetan entrenatzaile izan den Josu Zubia kargutik kentzeko erabakia hartu zuen eta bere ordez Pablo Diez (Gasteiz, 1963) ekarri du. Diezekin egon gara, taldearen inguruan dituen lehen inpresioez berbetan.**



Pablo Diez entrenatzaile berriak Aloñak jaitsiera postuetatik urrun egoteko moduko taldea duela uste du. GOIENKARIA

**Aloñara iritsi berria zara. Nola aurkitu duzu taldea?**

Aurreko jardunaldian Mondraren aurkako partidua ikusten egon nintzen Mojategin eta nahiz eta 2 eta 0 galdu, taldea nahiko ondo ikusi nuen zelai gainean.

Hala ere, gogo-aldarteari dagokionez, ukituta daude. Aurrez jakinarazi zidaten moduan, psikologikoki nahiko ahul ikusi dut aldagela. Kontuan izan behar da iaz bosgarren postuan amaitu zuen talde bera dela eta orain jaitsiera postuetatik gertu gaudela. Hori kolpe gogorra da jokalariendako. Hor dago nire lehenengo lana, autoestimu aldetik jokalariak pixkanaka gorantz eramatea.

**Nolako harrera egin dizuete? Taldean integratzeko denborarik izan duzu honezkero?**

Bi entrenamendu bakarrik egin ditugu, egubakoitzeko saioa bertan behera utzi behar izan genuelako elurtea dela-eta. Elurteak aste bukaerako partidua bertan behera uztera behartu du federazioa eta Hernaniren aurkako partidua ezin izan dugu jokatu.

Taldeari dagokionez, oso batuta dagoen taldea da. Oso harrera ona egin didate, oso mutil jatorrak dira. Ez dut uste taldeko giroak arazorik ekarriko digunik, eta hori garrantzitsua da.

**Eta kalitate aldetik, nolako taldea du Aloñak?**

Taldeak maila honetarako kalitate nahikoa duela esango nuke. Gainera, badaude jokalari batzuk Hirugarren Mailan ere ondo ibiliko zirela, zenbait jokalarik harritu egin naute. Gainera, talde zabala da eta jokalari kopuru aldetik ez da arazorik izango. Lesio eta bestelako ezustekoen aurrean ondo erantzuteko modukoa taldea dela uste dut.

**Agian goizegi da esateko, baina zein ezaugarri ditu Aloñaren jokoak?**

Orain arte jokatzen ikusi diodana oinarri moduan hartuta, oso joko zuzena du Aloñak. Zuzenegia, nire gusturako. Hori aldatzen saiatuko naiz, taldearen kalitatea baliatuz joko landuago bat egiten, hain zuzen. Hau da, baloiaren jabetza gehiago izatea da nire helburua, baloiaren jabetza izatea uste baitut dela defendatzeko modurik onena.

GOGO-ALDARTEA, AHUL

**"Lehen lana taldea animatzea da, jokalariak ukituta daude-eta"**

KALITATEA ETA KANTITATEA

**"Taldeak kalitate nahikoa du eta zabala da, jokalari kopuru aldetik ez da arazorik izango"**

SAILKAPENA

**"Goialdean zein behean berdintasuna da nagusi. Jaitsierako hiru postuetatik irteteko lehia handia izango da"**

**Aloña gertutik ikusteko aukera izan zenuen Mondraren aurkako derbian. Nola ikusi zenuen taldea?**

Oraindik entrenatzailea izan ez arren, gogoa nuen taldea ezagutzeko. Halako mailetan derbiak oso partidu bereziak dira, eta oso gertu bizi diren bi herrien artean lehia da nagusi. Partidua oso orekatua izan zen eta taldea nahiko ondo ikusi nuen.

**Zure aurrekoak, Josu Zubiak, Azkoagain gotorleku izan behar zela zioen. Hala uste duzu?**

Argi dago, etxean indartsu ibili behar gara, are gehiago sailkapenean gaizki egonda. Sailkapenean lasai egoteko ezinbestekoak dira etxeko puntuak.

Azkoagain zelai txikia da, gol aukera asko eskaintzen dituena. Zuzendu beharreko lehena defentsako lana da, gol gehien jaso dituen taldeen artean gaude-eta. Finean, lortu behar duguna da kanpokoak Oñatira datozenean zelai zaila aurkitu dutela pentsaraztea.

**Ezagutzen duzu Ohorezko Erregional maila?**

Bai, ezagutzen dut. Iaz Gasteizko Club Deportivo zuzentzen ibili nintzen Arabako Erregional mailan. Azken jardunaldira arte ibili ginen mailaz igotzeko borrokan, baina Agurainek lortu zuen igotzea, berdinketa bat lortuta.

Denboraldia aurrera zoan heinean, Gipuzkoako eta Bizkaiako taldeak jarraitu nituen, banekien-eta igoera fasean talde gipuzkoar edo bizkaitarren batekin lehiatzeko aukerak genituela. Hernaniren aurka jokatu genuen.

**Ezagutzen duzu maila, beraz. Zein talde ibiliko da goialdean? Eta zein jaitsieratik gertu?**

Aurrera Ondarroa da guztien gainetik dabilen taldea, eurak dira igotzeko lehen hautagaiak. Hirugarren postutik behera, baina, berdintasuna da nagusi. Behealdean, berriz, Beti Gazte atzean geratu da. Bestela, lauzpabost puntutan hainbat talde gaude. Oraindik goiz da esateko, baina berdintasuna nagusituko dela deritzot. Jaitsierako hiru postutatik irteteko lehia handia egongo dela esango nuke.

IBILBIDEA

## Esperientzia handikoa eta baloia maite duena

Alavesen ibilbide oparoa egindakoa da Pablo Diez. Bi fasetan izan zuen talde gasteiztarraren ardura, kadeteetan eta Hirugarren Mailan. Gainera, Haroko (Errioxa) entrenatzaile ere izan zen eta Gasteizko San Inazio taldea ere zuzendu zuen. Bi taldeak Hirugarren Mailan.

Entrenatzaile gasteiztarrak Aloñako zuzendaritzaren konfiantza eskertu gura izan du. Denboraldia ondo amaitzea da bere lehen helburua, eta ez du jaitsieraren mamua azken jardunaldietan uxatu nahi. Helburu hori lortzeko "serio" egingo du lan. Bere taldea baloiaren jabe izatea maite du, dioenez, hori baita defendatzeko modurik onena.

**PSIKOLOGIA** > KOMUNIKAZIOA

# Gurasoen komunikazioa, seme-alabekin ere bai

Handitzen doazen neurrian, komunikazio modua gainbegiratzea eta berriro planteatzea komeni da




Jarraitzaile asko dituen Simpson familia. GOIENKARIA

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanean funtsezko gaia da komunikazioa, Itziar Bartolome psikologoaren ustez. Lankideekin, bikotekidearekin eta lagunekin, adibidez, komunikatzen gara, eta seme-alabekin ere komunikatu egin behar dugu. "Komunikazio moduek, bestalde, zeresan handia dute harremanaren kalitatean. Hainbat arazok komunikatzeko erabilitako moduan dute jatorria. Seme-alabak handitzen doazen neurrian, gure komunikazio modua gainbegiratu eta, agian, berriro planteatzea komeni da", Bartolomeren esanetan.

Horregatik, komunikazioa osasuntsua eta eraginkorra izan dadin oinarrizko puntu batzuk kontuan hartzea gomendatzen du: gorputz adierazpenak eta ahots tonuak komunikazioaren %90 suposatzen dute, hitzak %10 bakarrik inporta du; hitzezko mezuak argia izan behar du, ahopeko mormoxetak ekiditea komeni da, mesfidantza eta segurtasunik eza eragin dezakete; hitz egiten dugunean, haurraren begirada bilatu eta mantentzea komeni da, haren atentzioa lortzea errazagoa izango da eta mezua jasotzeko prestatzen dugu; gure haurrak jokabide okerra duenean, kritikatu ekintza, ez pertsona; mugak jarri eta ardurak banatu. Mugak jartzerakoan, mehatxuak egitea baino hezitzaileagoa da ardurak banatzea; ardurak hartu eta betetzeak haurra garrantzitsu sentiarazten du. Hori bai, ardurek haurraren neurrikoak izan behar dute; ez agindu gero beteko ez dituzun gauzak. Azkenik, sentimenduez hitz egitea gauza arrunt bilakatu, emozio eta sentimenduak konpartitzeak komunikazioa hobetuko du.



Gaztetxo batzuk janaria labetik ateratzen. SKOKIE PUBLIC LIBRARY

**ELIKADURA** > OHITURA BERRIAK

# Erosketak seme-alabekin egiteak ere onurak ditu

Elikadura osasungarria, umorea eta ariketa gomendatzen ditu dietistak urtea hasteko

**O.E.** > ARRASATE

Urte berriarekin promes berriak egiten ei dira, edo egiten ei dituzte batzuek. Horri helduta eta haur eta gaztetxoen gizentasun tasa gora doala kontuan hartuta, hobeto elikatzeko promesari heltzeko aholkua eman gura izan du Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak. "Ohiturak aldatu egin behar ditugu, eta formula erraza da: elikadura osasuntsua, umorea eta ariketa", dio Diaz de Monasterioguren dietistak. "Elikadura osasuntsuari erreparatzen badiogu, aholku dietetikoak martxan jartzeko garaia da", jarraitu du.

**UMEEKIN BATERA**

Amaia Diaz de Monasteriogurenendako, garrantzitsua da seme-alabekin batera egitea erosketak eta jatorduak ere eurekin batera prestatzea. "Sukaldaritza gustukoa dugu, tarte bat pasatzeko aukera ematen digu, produktuak esku artean erabili eta kolore eta usainez gozatzeko. Horrela, gainera, errazago probatuko dituzte platerak", dio. Hasieran prestatu dituzten platerak erraz egiteko modukoak izatea gomendatzen du dietista oñatiarrak. Esaterako, entsaladak, barazki beteak edo pizzak.

**ARIKETA ERE, FAMILIAN**

Ariketa egitea ere garrantzitsua dela gogorarazi gura du Diaz de Monasteriogurenek, eta, "hori ere familian egitea posiblea" delaeta, horretara animatu gura ditu guztiak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> DANBAKA**
Lehiaketako hirugarren edizioko finalisten diskoak prest daude > 30-31



**> SORKUN**
Errenteriako abeslariak kontzertu akustikoa egin zuen Oñatin > 32



**> PIARA**
Hip-hop doinuak entzungai izan ziren Eskoriatzan, Inkernun > 32



Oso gogor aritu ziren Soziedad Alkoholika taldekoak egubakoitz gauean; ezkerrean Iñigo Zubizarreta Arrasateko gitarra jotzaile berria. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA** > SOZIEDAD ALKOHOLIKA

# Urteek ondutako zapalgailua

## ASPALDIKOAK

Lehen diskoko kantu asko jo zituzten, berriz grabatu dutelako

**NON:** Arrasateko Hiru aretoan.
**EGUNA:** Barikua, urtarrilak 9.
**ZENBAT JENDE:** 250 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta 45 minutu.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Gasteizko Soziedad Alkoholika taldeari esker, hardcorea, thrash ukituak eta ahots guturalak entzule multzo handiago batek onartu zituen. 90eko hamarkada hasi berri, Euskal Herriko musikazale gehiengoari arrotzak egiten zitzaizkion doinu horiek; are gehiago gazteleraz. Hala, Debagoienean lehenengo aldiz 1990ean aritu ziren Arrasaten, Musakolako kiroldegian. Gasteiztarrek maketa zekarten eta batutakoek ez zuten SAren eskaintza ulertu.

Handik gutxira, taldearen izen bera daraman lana (disko *beltza*) kaleratu zuten; eta *Ciencia asesina* kantu *entzungarrienak* bidea zabaldu zien: armonika itsaskorrak atzean zegoen *zapatilla* arindu zuen antza. Kantu gogor eta azkarrekin eta gertuko zein salaketaz betetako hitzekin gaztetxeak goraino betetzen hasi ziren.

Ia segidan etorri ziren areto eta plaza handiagoak, disko gehiago eta Euskal Herriko zein Espainiako milaka entzuleren onespena. Gero, arrakasta zutenean, AVTren boikota sufrituko zuten, dagoeneko erabat irabazita eta ia alboratuta dutena.

**HIRU ARETOA BETETA**

Horiek oroitzapenak dira; "Nor joango da -elurra ari zela- Hiru aretora 15 euro ordainduta, SA ikustera?" pentsatu nuen. Bada, aretoa beteta zegoen: 40 urtetatik hurbil asko, eta baita 20 urte inguruko asko ere. Eta taldea? Oso indartsu. Hainbeste oztopo gainditzeagatik gogortuta; eta estreinako lana berriro grabatu izanagatik, ilusioarekin.

Oso sasoi onean ikusi genituen. Oso soinu eta eszenaratze irmoa da eurena, zirrikiturik gabekoa; agian lehen baino pisutsuago eta abiadura handiagoan. Jendea pozarren, saltoka, kantuan... eta taldekideak urteak pasa ez balira moduan. Bateria itzel; Jimmy gitarra jotzailea ikaragarri; eta, aldiz, Juan abeslariak lehen baino gutxiago komunikatzen du, kontuan hartuta eszenaratzea oso estatikoa dutela. Baxua eta Arrasateko Iñigo gitarra jotzaile berria ere fin.

Kanpoko ekaitzak baino dardara handiagoa eragin zigun emanaldiak eta soinuak. Izerditan bukatu zuten, baina jendeak gehiago nahi zuen, eta bisa ahaztezina izan zen: *SHAKTALE* eta *Nos vimos en Berlin*.


Mutrikuko The Wet Band taldeko gaur egungo kideak. GOIENKARIA


Bergarako Adi Holden taldea Elgetako Espaloian, Danbakan egindako kontzertuan. JOSETXO ARANTZABAL



Gaizkile itxura hartu dute Norman taldeko lau eibartarrek eta ondarrutarrak diskoaren argazkietan. GOIENKARIA

**MUSIKA** > ARGITALPENAK

# Danbakako bat egingo d

The Wet Band eta Adi Holden Danbakak eta Gaztelupeko Hotsak-ek kaleratuko dituzte

Norman sari barik gelditu zen, baina dagoeneko diskoa kalean dute

**IKER BARANDIARAN**> BERGARA
Danbaka Musika Lehiaketak oihartzun handia izaten du izenamatea zabalik dagoela eta lehiaketa pil-pilean dagoen bitartean. Gerora, baina, han ibilitako taldeek ez dute oihartzun bera izaten. Hala, azken hilabete luzeotan Danbakako hirugarren edizioan finalista izan ziren hiru taldeak lanean ibili dira buru-belarri: The Wet Band, Adi Holden eta Norman.

Lehenengo taldeak, mutrikuarrak, lehenengo saria eskuratu zuen; eta bigarrenak, bergararrak, Debagoieneko talde onenarena. Bi horiek Shot! grabazio estudioan disko bana grabatzeko eta Gaztelupeko Hotsak eta Danbakaren bitartez diskoa kalean izateko sariak irabazi zituzten. Norman talde eibartarrak, berriz, ez zuen inongo saririk jaso, eta euren kabuz grabatu dute, baina Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak interesa jarri zuen diskoan, eta hori ere kaleratu du, Danbaka barik.

**THE WET BAND: 'WATERPROOF'**
The Wet Band taldekoak urrian egon ziren Shot! estudioan diskoa grabatzen. Horretarako, gainera, taldekide berria estreinatu zuten: teklatua eta saxoa jotzen dituen Endika Kerejeta batu zitzaien.

*Waterproof* izeneko lanean 12 kantu batu dituzte; horietatik bat euskaraz eta gainontzekoak ingelesez, taldeak ohikoa duen moduan. Bertan Danbakan entzundako kantuetako batzuk ageri dira, baina baita hainbat berri ere. Ainararen ahotsak gidatuta, soul, rock, funk eta hard-rock arloetan murgiltzen dira batez ere; eta horretan, teklatuak asko laguntzen du hutsuneak betetzen eta bestelako giroak sortzen. Bide batez, doinu klasikoei (70eko hamarkadakoei, alajaina) begiratzen jarraitu arren, gaur egungoak diren sonoritateak ere gehitu dizkiete; eta, tarteka, gitarra gogorrak ere badira.

Hitzei dagokionez, bakardadea, desamodioa, zapatu gauetako burutazioak eta beste batu dituzte.

Danbakako antolatzaileen eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen arduradunen asmoa da otsaila hasierarako diskoaren aurkezpena egitea.

Taldeak, gainera, etxeko lanak eginda ditu; eta martxo hasieratik ekainera bitartean Euskal Herriko zazpi herrialdeetatik barrena bira bat antolatuta dauka Ondarruko Uek beteranoekin eta Kraussk taldeekin batera. Bazen ordua mutrikuar horiek euren doinuak Euskal Herrian zehar zabaltzeko! Ez digute konfirmatu ohiko autobusak lagunduko dituen edo ez.

**ADI HOLDEN: 'ADI HOLDEN'**
Adi Holden taldekoek azaroan bisitatu zuten Arrasateko Shot! grabazio estudioa. Igartzen da, kasu honetan, talde gaztea bada ere, taldekideak beste proiektu batzuetan ibiliak direla eta eskarmentua daukatela.

Taldearen izen bera daukan diskoan 11 abesti batu dituzte; hamar kantu propio euskaraz eta bat Hüsker Dü taldearen Dianne bertsioa. Horietako batzuk Danbakan egin zituzten egunean, baina beste batzuk berriak dira. Kontraste handiko diskoa da, eta giro lasaietatik abiatuta intentsitate

LEHIAKETA

## Danbakaren laugarrena aurten egingo da

Honezkero Danbaka Musika Lehiaketak hiru edizio bete ditu, eta 2010ean, bi urtetik behin legez, laugarrena dator. Hasieratik jakin-mina piztu zuen eta hasierako ezustearen atzetik sendotzea etorri zen: musika taldeek, debagoiendarrek eta hedabideek gero eta arreta handiagoa ematen diote taldeen erakusleiho horri.

Lehenengoan esperimentua izan zen eta emaitza oso ona; bigarrenean ibarreko zuloetatik bakarlariak ateratzea eta agertokira erakartzea jarri zuten helburu eta baita lortu ere; eta hirugarrenean, Debabarrenera eta Durangaldera ere zabaldu zen ekimena: eskaintza berri gehiago ezagutzeko aukera izan zen. Sharon Stoner, Muted, Potemkin, Aby-Kem, Belceblues, Malenkonia eta orriotan datozenak dira ezagunenak, baina askoz gehiago dira. Eta, oraindik, etorriko direnak. Hasi motorrak prestatzen, 2010ean beste Danbaka bat izango da-eta!

# hiru finalisten diskoek ute laster saltokietan



The Wet Band.



Adi Holden.



Norman.

handiko uneak aurki daitezke. Gai dira folk kutsu handia daukan pieza bat idazten zein 90eko rocka abiapuntu hartzen edo esperimentatzen.

Are gehiago, ezin da ahaztu Adi Holdeneko taldekideek kantuak *interpretatu* egiten dituztela; hau da, une bakoitzean modu baten edo beste baten jotzen dutela unearen arabera aske izaten direla horretarako. Hala, nahiz eta diskoan halakoak badiren (kantu *zoroagoak*), zuzenekoak askoz basatiagoak egiten dituzte.

Irakurleei taldearen gaineko arrasto batzuk ematearren, esan dezakegu taldekideek, besteak beste, oso gustuko dituztela Cancer Moon, Ama Say eta Screaming Trees eta horiei bestelako ukitua ematen saiatzen dira. Hala ere, musika asko eta oso desberdina entzuten dute.

Bestalde, diskoaren estetikan nolabait isladatu gura izan dute euren jaioterriko industria eta metal tradizioa. Giro iluna, oxido kolorea; makina, burdina, paisaia grisa, gizakia ia desagertzera arte, ia berau isolatu arte.

Hitzei dagokionez, bergarar horiek asko zaintzen dituzte; horregatik, iraganean beste proiektuetan erabilitako ingelesa alboratu dute gertutasunean irabazteko. Euskara erabiltzea aukeratu izanaz gain, euskal idazle eta poeten testuak musikatu egin dituzte.

Diskoa Bergaran bertan aurkeztuko dute urtarrilaren 30ean; The Hot Dogs! taldearekin batera arituko dira gaztetxean.

**NORMAN: 'NORMAN'**

Norman laukote eibartarra izan zen Danbakako hirugarren edizioko finalean sarietatik kanpo gelditu zen talde bakarra, eta pena izan zen; finalera heldu bai, baina esku-hutsik joan ziren. Egia da, ez zuten saririk jaso, baina gero eta gehiago hitzegiten da euretaz eta askok Danbaka lehiaketari esker ezagutu dute.

Hala, Danbakak ezer ordaindu ez badie ere, eurek bide propioa egin dute eta bat egin dute beste bi talde finalisten bidean eta ia-ia diskoen kaleratzean. Hain zuzen ere, justu-justu Durangoko Azokara heldu zen beraien estreinako diskoa, taldearen izen bera daukana.

Gaztelupeko Hotsak diskoetxeko arduradunek taldea entzun eta gustuko izan zutenez, diskoa kaleratzea eskaini zieten. Esan eta egin: taldea Eibarko Legarre auzoko lokaletan murgildu eta Ander Barruso soinu teknikariarekin batera 11 kantu grabatu zituzten, guztiak euskaraz. Zoritxarrez, lehenengo aldiz grabatutako ekinaldia galdu egin zen, eta berriro grabatu behar izan zituzten hainbat kantu, baina emaitza dagoeneko kalean dago.

Norman ere talde gaztea da, baina gauzak argi dituena. Talde berriek freskotasun handiagoa izaten dute eta hori eibartar hauen kasuan oso nabaria da. Hala, punk-rock taldeetatik etorritako musikari hauek buelta erdi eman diote aipatutako estiloari; bide batez, psikodelia, melodia asko, post-hardcore erritmoak, iluntasuna eta beste gehitu dizkiote. Hori guztia euskaraz egitea ez da batere ohikoa, eta jakin-mina eragiten du.

Taldeak dauzkan beste berezitasun bi dira abeslariaren eszenaratze zoroa eta baita taldea bera agertoki gainean eraldatzeko daukan erraztasuna. Ez dira horiek ezaugarri eskasak!

Hitzei dagokienez, Beñat abeslariak joko bat balitz moduan, *Hitchcockmani*a-ren ondorioz, Norman izena ia oharkabean proposatu zuen eta gainontzekoek ontzat hartu zuten. Kontua da, gaur egun, taldea eta hitzak Norman Batesen ildotik abiatu eta gaizkileen, hiltzaileen eta antzeko pasarteetaz banatuta ezin ditugula irudikatu. Taldearen marka bihurtu da hori ere bai, eta musikak ere izan dezake lotura.




Sorkunek bakarka eta Kashbaden ezagun egindako abestiak kantatu zituen. J.A..


Bigarren diskoaren aurkezpena izan zen Mahaster Riverrekoentzat. I.A.

**NON:** Oñatiko Gaztelekuan.
**EGUNA:** Egubakoitza, urtarrilak 8.
**ZENBAT JENDE:** rock-blues akustikoa
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

**KRONIKA** > SORKUN ETA MAHASTER RIVER

# Gitarra biluziak, blues epela

**GOIENKARIA** > OÑATI

Ihesbiderik gabe utzi zituen elurrak Gaztelekukoak egubakoitzean, kanpoan ekaitzarekin aurkituko zuten giro gogorra, aretoaren lau hormen artean epeldu beharrean-edo. Soinu bero eta akustikoak izan ziren erregaia, blues ukitukoak nagusiki. Batetik, Mahaster Riverrekoak estilo horretan nagusi direlako; eta bigarrenik, Sorkunek gitarra astun eta erritmo zanpatzaileak etxean utzi eta ahalik eta modurik biluzienean, formatu akustikoan jo zuelako. Lehenengo, baina, bergararrak hartu zuten oholtza disko berria aurkezteko. Eurak ohi moduan fin eta Oñatiko ikusleak ere gustura... eta gustura ez bazeuden ere, han geratzea besterik ez zuten elurrarengatik; baina inor ez zen kexatu. Gaztelekua ondo epelduta, Sorkun Rubioren ahotsaren eztandari tokatu zitzaion hurrengo, gitarra akustikoaren konpainia soil hutsarekin (Kashbad-eko Gorka Sesma eta Hot Dogseko Iker Alvarezen eskuetan). Kashbad taldearekin egindako ibilbide labur, baina oparoko perlak eta bakarka ezagun egindako abestiak jo zituen Sorkunek, tartean behin blues ukitu berriekin. Ezin bestela, eta bluesa aitzakiatzat hartuta, batera ere jo zuten Sorkunek eta Mahaster Riverrekoek *Alabama Blues* ezaguna, gaueko aipagarrienen artean. Gau epela elurretan.

## Hip-hop errimak eta erritmoa poteoaren orduan Inkernu tabernan

Ezohiko erritmo eta doinuekin bete zen egubakoitzean Eskoriatzako Inkernu taberna Gasteizko Piara hip-hop taldearekin. Emankizuna berezia izanda ere, erantzun bikaina izan zuen Gasteiztik etorritako hirukote eta DJ-ak. Poteo giroa eta hip-hopa nahastuta, giro paregabea eta taberna lepo izan zuten Eskoriatzan. Errepikatzeko modukoa izan zen. Gizarteari kritika, errimak eta erritmo biziak, horiexek nahikoak izan ziren Inkernu taberna betetzeko nahiz eta, agian, proposamenaren berezitasunagatik edota giro hotzarengatik, dantzara jende gutxi animatu.



JOSETXO ARANTZABAL

GURE TALDEAK...

## Los Cretinos

# "Kantu berriak melodikoagoak dira, baina estiloa berbera da"

Los Cretinos arrasatearrek 'Crazy party!' izeneko diskoa kaleratu dute, eta dagoeneko eros daiteke Arrasateko eta Oñatiko hainbat tabernatan

Autoekoiztutako lana izan da, eta bi zatitan grabatu dute: euren kantuak Oñatin 'Kirrin'-ekin eta bertsioak Lobo Electricoko 'Guantxe'-rekin

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

**Amaia, *Barba*, *Zaba* eta *Jim* dira Los Cretinos taldeko kideak. Baxu-jotzailea aldatu egin dute, baina indartsu datoz bigarren diskoarekin. Eurekin berba egin dugu eta kontzertuak egiteko irrikaz daudela esan digute.**

***Crazy party!* jarri diozue diskoari. Rock-and-rolla jaia da zuendako?**

Noski, gure kontzertuetara joaten direnek hori ikusten dute. Rock-and-rollik gabe ez dago festarik!

**Bi tokitan grabatu duzue. Zer dela-eta?**

Hasieran *Kirrin*-ekin bakarrik grabatzeko asmoa genuen, Oñatin, baina *Guantxe*-k Lobo Electricoren lokalera bertsio batzuk grabatzera gonbidatu gintuen, eta, azkenean, diskoan sartu ditugu kantu guztiak.

**Bertsiozaleak zarete?**

Hasi ginenetik hona entseguetan gustuko taldeen kantuei gure ukitua eman diegu. Originaltasunik galdu barik aldatu egiten ditugu apur bat kantuak gure estilora. Baina ez gara bertsioak egiten dituen taldea. Horretarako, Jim TNT eta Los Seductores taldea sortu genuen. Egia esan, dibertigarria da bertsioekin zuzenekoa egitea, baina kantu berria sortzeko poztasuna ez digu ematen bertsio batek.

**Zuek idatzitako kantuak zeri buruzkoak dira?**

Egunerokotasuna oinarritzat hartuta denetik idazten dugu; alegia, gai askoren gainean.




### Bazen ordua garage soinua ondo jasotzeko!

Asko pozten naiz Los Cretinos arrasatearrengatik; disko honek bestelako distira dauka eta emaitza seguruenik bilatzen zutena da; bere soinuarekin bat dator. Ez dute inoiz korrontea euren alde izan (hori beti jakin dute eta bestela ez lituzkete aspaldiko rock-and-roll eta garage estiloak landuko) eta hainbat kideren aldaketa izan dute. Kontua da asko itxaron behar izaten dela, larregi, horien diskoak argitaratuta ikusi eta entzuteko.

Taldean izan duten azkeneko aldaketa Elektrik Amai gehitu izana da eta funtsezkoa izan da. Neska horrek, teklatuarekin, asko borobildu eta jantzi ditu arrasatearren kantuak. Bestalde, talde gutxik moduan, garage-a gazteleraz oso sinesgarri egiten dute.

Iker Barandiaran



Ezkerretik eskuinera, *Barba*, Amaia, *Zaba* eta *Jim*. LOS CRETINOS

**Ze musika lantzen duzue?**

Egia esan, ez dakigu. Gure abesti baten kantatzen dugu "Mi moda soy yo". Ez gara inon kokatzen, gustuko dugun musika egiten dugu eta kitto!

**Zeintzuk dira zuen erreferenteak?**

Betidanik entzun ditugun talde gehienak atzerritarrak dira; besteak beste, Billy Childish, Cynics, The Saints, eta 13th Floor Elevators, Wau & los Arrrrghs, Dr. Explosion eta Hollywood Sinners. Denetarik entzuten dugu, baina gure estiloan sartzen diren talde gehienak 1950-1960ko hamarkadako taldeak dira.

**Ze ezberdintasun daude bi diskoen artean?**

Bigarren diskoan letrak eta erritmoak landuagoak daudela esan dezakegu. Agian, kantu berriak melodikoagoak dira, baina estiloa mantendu egiten dugu.

**Ze diskoetxerekin kaleratu duzue lana?**

Gaur egun, diskoetxeen mundua tranpaz beteta dago. Hortaz, autoekoiztutako lana izan da.

Bestalde, diskoaren banaketa Pantano Records-ek egingo digu.

**Non eros daiteke diskoa?**

Arrasateko Etxoste, Iluntz, Taupa, Gure Leku, Jaizale eta Ekaitz tabernetan; Gasteizko Abuelo, Kriseilu, Iguana, Arenal, Gora eta Ibu-hots tabernetan; eta Oñatiko Onan eta Bogan.

**Diskoa erosten duenak ze aurkituko du?**

Gu oso pozik gaude emaitzarekin. Dena den, entzuleek esan beharko dute zer aurkitzen duten diskoa entzun ondoren. Galderari erantzuteko inkesta egin beharko genuke!

**Nolako zuzenekoak egiten dituzue?**

Oso dibertigarriak dira. Zuzenekoek indar handia ematen digute, eta indar hori entzuleei transmititzen diegu. Kontzertuak lotzen hasi gara honezkero.

# IRAGARKI SAILKATUAK


**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**


Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**
**sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 100 metro koadroko etxebizitza salgai Markolen. Lau egongela, bi komun, sukaldea eta egongela, ganbara, garajea eta bi terraza handi (150 m2). Jantzita utziko genuke. 650 34 89 85.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. Lau logela, bi komun, egongela, sukaldea, trastelekua eta garajea. Deitu 630 03 41 65 edo 669 05 80 33 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Apartamentua salgai San Antonion. Sukaldea, egongela, logela bat, komuna, balkoia eta trastelekua. 46 metro koadro . Guztiz berriztua eta jantzia. Deitu 635 70 49 74 telefono zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, trastelekua eta garajea. Aukera ona. Deitu 688 67 10 31 telefonora.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarran. Hiru logela, bi komun eta trastelekuarekin. Txaro. Deitu 653 71 22 42 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andresen. Hiru logela, sukaldea eta komuna. Jantzita. Prezio onean. 943 76 59 93 edo 665 70 75 80.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean. Egoera onean. Merke. Deitu 667 03 10 42 edo 943 79 25 16 zenbakietara. Telefono finkora gauetan deitu, mesedez.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berogailuarekin. Prezio onean. 666 40 65 58 edo 690 79 78 00.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza. Bi komun, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzita. Deitu 645 71 98 84 zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan ikasle batentzat zein bestela. 620 54 60 59.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 670 59 73 62.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Erdialdean dago eta oso egoera onean. 300 euro, gastu guztiak barne. Otsailetik aurrera. Deitu 606 74 42 37 telefono zenbakira.

**Arrasaten** etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 653 71 44 57 zenbakira.

**Bergara.** Logela ematen da errentan. Deitu 655 71 41 24 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia Lezaman (Santakurtz 24). Salgai 16.000 eurotan, negoziagarriak, eta errentan 65 euro hilean. Aukera aparta. 647 08 00 16.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Santakrutz 25-27an. Prezio negoziagarria. 630 46 36 71.

### 202. EROSI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. 635 20 81 22

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** Lokala ematen da errentan Bidebarrietan. Deitu 610 54 91 21 telefonora.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Neska bergararra behar dugu arratsaldeetan umeak zaintzeko. telefonoa: 675 70 50 43.


**ARETXABALETA**

**Taberna ematen da errentan. 10:30-12:30 eta 14:30-16:30ak artean deitu. Ane. 943 79 31 87**


**Debagoiena.** Astean bi egunez, etxea garbitu eta plantxa egiteko pertsona arduratsua behar da. 625 70 92 05.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Lan egingo nuke garbiketa lanetan: elkarteak, tabernak, bulegoak eta abar. Astean zehar zein asteburuetan. Erreferentzia onak. Deitu 648 19 10 38 telefonora.

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** 45 urteko emakume euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko, goizez, 13:00ak arte. Autoa daukat. Deitu 943 79 54 21 edo 619 42 75 21 telefono zenbakietara.

**Arrasate edo Bergara.** Emakumea gertu arratsaldeetan edo asteburuetan nagusi eta umeak zaintzeko. 697 93 73 32.

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna arratsaldeetan umeak zaintzeko, etxeak edota atariak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. Deitu 618 41 24 79 telefonora.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Urte askotako esperientzia. Deitu 662 07 31 68 telefonora.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak... 650 14 69 10.

**Aretxabaleta.** Alfonbra eta moketak garbitzen ditut, lehorrean, etxez etxe. Deitu 659 62 02 49 zenbakira.

**Aretxabaleta.** Emakume arduratsua gertu adinekoak zaindu, etxeko garbitasun lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia adinekoekin. Deitu 943 53 33 92 telefono zenbakira eta Marirengatik galdetu.

**Aretxabaleta.** Goizetan atari edota etxeak garbituko nituzke, orduka. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

**Bergara edo Arrasate.** Nagusiak zainduko nituzke, egunez. 943 53 29 18 edo 696 84 19 51.

**Bergara eta Arrasate.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. 691 03 25 02.

**Bergara.** Garbiketa eta pertsona edadetuen zainketa lanak egiteko gertu nago, 13:00etatik aurrera. 691 03 25 02.

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. 637 28 58 52.

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. 671 71 90 03.

**Bergara.** Tabernan, garbitasun lanak egiten edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 671 71 90 03.

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 637 18 07 23.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu etxeko lanak egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko. 943 76 44 27.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36.

**Debagoiena.** Emakumea erreferentzia onekin gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko. Paperak ditut. Lanaldi osoa edo murriztua egingo nuke. 696 19 05 15.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lanak egiteko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. 619 92 40 86.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko, orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. Paperekin. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Lan egiteko baimena daukat. 618 98 31 50.

**Debagoiena.** Emakumea gertu zerbitzari lanetarako. Garbiketa egiteko ere gertu. Esperientziaduna. 679 04 42 68.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Legezko paperak ditut. 663 65 78 43.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak edo ume zein nagusiak zainduko nituzke. 637 12 15 18.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak, sukalde laguntzaile edo etxeko lanak egingo nituzke. Deitu 630 20 12 03 telefonora.

**Debagoiena.** Ile-apaintzaile lanetan jardungo nuke. Deitu 639 00 35 57 zenbakira.

**Debagoiena.** Manikura eta pedikura egiten dut etxez etxe. Azazkaletan marrazkiak ere bai. Kolonbiako produktuekin. 10 euro. 654 79 07 58.

**Debagoiena.** Mutil esperientziaduna nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest. Etxean bizi izaten edo orduka. Baserrietara joateko arazo barik. 648 06 84 71.

**Debagoiena.** Mutila gertu eraikuntzan, lantegietan edo dendetan lan egiteko. 689 92 82 67.

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Baserrietan ere bai. Etxean bizi izateko prest nengoke. 690 70 63 39.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritzan lan egiteko. Esperientzia eta txostenak ditut. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Arratsaldetan, aste bukaeratan eta jai egunetan. Auxiliar laguntzaile titulua. Itxaso. 943 74 82 09.

**Debagoiena.** Neska gertu garbitasun lanak egin zein nagusiak zaintzeko. 686 73 63 53.

**Debagoiena.** Paperak dituen emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. 606 64 16 09.

**Kamioi gidari** baimena ateratzen ari naiz eta horretan lan egin gura nuke. Praktiketan ere bai. C+E baimena, ADR, zisterna edota lehengaiekin lan egiteko. 610 67 18 60.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Eskoriatza.** DBHko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. 668 69 00 08.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut Musakola eta Santa Marina inguruan. Deitu 696 37 92 29 telefonora.

**Arrasate.** Goi injinerutza ikasten duen neska arduratsua Arrasaten eskola partikularrak emateko prest. Deitu arratsaldeetan. 625 74 91 50.

**Arrasate.** Goimailako Ingeniaeru Industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak.Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea...Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Eguerdietan deitu. 663 04 53 99

**Bergara.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. 618 91 32 89.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ardiak** salgai. Hamar, hogei... kopuru desberdinak aukeran. 943 79 62 63.

**Bi cocker salgai.** Gorriak. Arrak. 2009ko urriaren 10ean jaiotakoak. 696 54 24 20.

### 703. EMAN

**Txakurkumeak** ematen dira opari. Bi hilabetekoak. Arrasaten. 608 74 43 52.

### 704. BESTELAKOAK

**Eskerrak** eman nahi dizkizuet, denoi. Zuen laguntzari esker Bony, galdutako galgoa, etxean da berriro.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Banku-billeteak** eta txanponak saldu eta erosiko nituzke. 688 61 85 02.

**Biolina salgai.** Egoera onean. Osagai guztiekin: arkoa, erretxina, almoadila eta kutxa gogorrarekin. Gara SV100 1/2 neurrikoa. Prezio negoziagarria. 665 16 09 76.

**Birkiendako aulkia** salgai. Jane etxekoa. Urdin iluna. Hiru gurpilduna. 200 €. 650 57 36 07.

**Errepideko bizikleta** gorria salgai. Egoera onean. Merke. 943 79 11 24.

**Eski alpinoko ekipoa** salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Eskiak: Salomon, 1,60 m neurrikoak (250 euro). Botak: Atomic, 41 neurrikoak (130 €). Makilak eta funda opari. 690 83 98 53.

**Eskiak.** Eski alpinoko pare bi eski salgai. Rossigol, 1,75 m neurrikoak: 60 euro. Dynastar (Look fijazioak), 1,85m neurrikoak: 60 euro. 690 83 98 53.

**Giant ORC2 Sh105** salgai. Errepideko bizikleta. 56 neurrikoa. 4.000km. 500 €. 656 75 35 86.

**Gitarra akustikoa** salgai. Elektroakustikoa da, anplifikadorearekin erabilgarria. Stagg markakoa. Etxean bakarrik erabilia. Oso egoera onean. Ikasteko egokia. 100 euro. 637 45 94 73.

**Narruzko txupa** beltza salgai. M neurrikoa. Ia berria (bi aldiz jantzia). 35 euro. 626 28 68 13.

**Ordenagailua.** Pentium 3. Windows 98. 256 MB RAM. Word, Excel, Access, Publisher teklatua, sagua, CD irakurgailua eta bozgorailuak. 60 euro. 666 24 86 40.

**Snow taula** salgai, 168 neurrikoa. Baita ere Burton fijazioak, 46 neurriko botak eta eskiak eramatekoa. Dena 250 eurotan. 661 73 37 91.

**Soinua.** Zero Sette markako soinua salgai. Ia berria. Telefonoa: 647 51 52 80.

**Somierra.** Ikean 2008. urtean erositako oherako somierra salgai. Oso egoera onean. 150x190 neurrikoa. 100 euro, negoziagarriak. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta** inguruan ortua egiteko lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. 696 32 63 13.

**Moisesa erosiko nuke.** 650 57 36 07.

**Tximiniandako egurra.** Tximiniandako egur lehorra erostea gurako neuke. 688 63 82 28.

### 804. HARTU

**Kotxerako** umeendako segurtasun aulkia behar dut. 1-3 taldekoa. 650 57 36 07.

### 806. GALDU

**Kotxeko giltza** galdu nuen abenduaren 15ean, asteartean, San Andres auzotik Arimazubi (San Viator Txiki) ikastolara bidean. Aurkitu baduzu deitu 618 49 28 56 edo 943 79 58 98 telefono zenbakietara.

**Lepoko zapia** galdu dut abendu bukaeran. Grisa eta beltza. Arrasaten edo Oñatin. Deitu 637 90 57 15 telefonora.

**PSPa Bergaran.** Joan zen abenduaren 13an Bergarako frontoian PSP bat desagertu zitzaidan. Baten batek hartu edo topatu baldin badu mesedez itzuli udaltzainetan edo deitu telefono hauetara:. 630 60 39 34 edo 943 76 70 81.

### 807. AURKITU

**Betaurreko gorriak** aurkitu nituen Arrasateko Eroski inguruan, Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. Zure bada, deitu 943 74 18 69 telefono zenbakira.

**Bizikleta Oñatin.** Bizikleta beltza agertu zen abenduko zubian, Lazarraga kalean. Nahiko berria da. Zure bada, deitu zenbaki honetara: 626 17 73 55.

### 808. BESTELAKOAK

**Bergaratik-Donostiara** egunero lanera (Errotaburura) joateko jende bila nabil. Lan ordutegia: 08:00-15:00. 679 86 51 36.

**Gasteiztik Arrasatera.** Urtarrilean Gasteiz erdialdetik Arrasatera 22:00etan joateko auto bila nabil. 695 70 51 42.


KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.



DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

**DEBA**
- Txalet bateko etxebizitza, hondartzako lehenengo ilaran



**ORDEZKO BAKE EPAILEA**

Hautatzeko deialdia

Izena emateko epea: urtarrilaren 8tik 30era arte.

**Oinarri-arauak**: BAZen (goiz eta arratsalde) eta webgunean jaso daitezke: *www.arrasate-mondragon.org*

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Pertsonal Saila

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA
**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22 3 ezk. / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT**
**PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | 6 | |
| 6 | 5 | | | | 9 | 3 | | 2 |
| | 4 | | 3 | | 6 | 7 | | |
| | | 3 | | | | | 5 | |
| 7 | | 2 | 8 | 4 | | 6 | | |
| | 8 | | | | | 2 | 9 | 4 |
| | | 5 | | | | | 7 | |
| | 3 | | 2 | | | | | 8 |
| 1 | 6 | | 9 | | 8 | | | 3 |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Harginen lanabesak
Oherako jantzia
Zarekoak
Hebrear
Arrain mota
Ingelesez, gizon
Egur landuak
Betuna
1. sakramentua
* Irudiko ontzia
Intsektu mota
Alpeetako lurraldea
1
Hosto
Interjekzioa
Larruko gogorrunea
Marinelen zerrenda
Aurpegiko irekiune
Atomo kargadun
Bolaleku
Errioxako herria
Tona

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Musean

Jao
Jeo
Jio
Jo
Juo

## hizki salda

Aramaioko lau pertsona ezagunen abizenak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | Y | A | B | X | F | B | A | U |
| K | I | P | A | G | H | A | E | R |
| S | A | L | A | B | E | R | R | I |
| L | G | Z | O | X | Z | R | E | B |
| L | I | T | K | Z | X | U | O | A |
| D | R | A | T | A | H | T | K | R |
| H | R | E | K | J | L | I | A | R |
| D | E | T | A | R | R | A | U | E |
| A | Z | F | A | R | D | A | T | N |

## soluzioak




| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | Y | A | B | X | F | B | A | U |
| K | I | P | A | G | H | A | E | R |
| S | A | L | A | B | E | R | R | I |
| L | G | Z | O | X | Z | R | E | B |
| L | I | T | K | Z | X | U | O | A |
| D | R | A | T | A | H | T | K | R |
| H | R | E | K | J | L | I | A | R |
| D | E | T | A | R | R | A | U | E |
| A | Z | F | A | R | D | A | T | N |


**Hieroglifoa:** Jokorik ez.
Jok orik ez


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | Y | A | B | X | F | B | A | U |
| K | I | P | A | G | H | A | E | R |
| S | A | L | A | B | E | R | R | I |
| L | G | Z | O | X | Z | R | E | B |
| L | I | T | K | Z | X | U | O | A |
| D | R | A | T | A | H | T | K | R |
| H | R | E | K | J | L | I | A | R |
| D | E | T | A | R | R | A | U | E |
| A | Z | F | A | R | D | A | T | N |


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | Z | ■ | Z | ■ | B |
| | | | P | I | J | A | M | A |
| | | | ■ | Z | U | R | A | K |
| ■ | B | ■ | Z | E | D | E | N | A |
| K | A | T | I | L | U | A | ■ | I |
| ■ | T | I | R | A | ■ | R | O | L |
| Z | A | R | A | K | A | R | R | A |
| ■ | I | O | I | ■ | H | A | R | O |
| B | O | L | A | T | O | K | I | A |



## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Zure bizitzan gertatzen ari diren aldaketen beldur zaren arren, argitasunez eta lasaitasunez egin behar diezu aurre. Bilatu laguntza behar duzunean.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Erronka handiak direla-eta, informazioa bildu beharko duzu asmo horiek konfiantzaz eta ziurtasunez gauzatu ahal izateko. Zure ideiak sendotzeko une egokia.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Saiatu eraginkorra izaten eta eskatu dizkizuten lanak ausardiaz egiten, zure ahaleginak emaitzak izango ditu-eta. Ondo dago gauzak egiteko duzun gogoa.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Landu zure ametsak, bihar poztasunak ekarriko dizkizute-eta. Saiatu gauzak eskatzerakoan beharrekoa modu onean eskatzen gero errazago lortuko duzulako nahi duzuna.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Orain hasi zara hainbeste ahalegin eskatu dizuten egoerak ulertzen. Ez galdu zure buruarengan daukazun konfiantza eta bilatu harreman egokiak.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Zure ardura beharko duten arazoak agertuko zaizkizu. Egin iezaiezu aurre, horretarako prest zaude-eta, baina ez ezazu egin ezer ere ez aurretik galdetu barik.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Orain arte defendatu dituzun balio eta arauak zure bizitzan erabiltzen hasiko zara. Emankorrak izango zaizkizula uste duzun egitasmoei heldu.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Zaindu zure erreakzioak, eta familian amorraraziko zaituzten egoerak agertu arren, zaude lasai. Zure izaeraren alderdi on batzuk besteei erakutsi nahiko dizkiezu.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Aste honetan zenbait arazori aurre egin beharko diezun arren, konfiantza gero eta handiagoa izango duzu. Nahi duzun guztia lortuko duzu pixkanaka-pixkanaka.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Pentsatu hitz egin aurretik. Kontuz ibili eginbehar arriskutsuekin, baina zure sormenari uko egin gabe. Erabili bolada on hau lasaitzeko.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Bizi zure ingurukoekin barruan daramazun alaitasuna. Aprobetxatu aste hauxe, mesedegarria izango baita zuretzat, laguntza eta onarpena jasoko dituzulako.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Komeni zaizu eskuartean daukazunari arreta handiagoa ematea. Aspaldian despistatu egiten zara; eta horren ondorioz, zure ingurukoek lan gehiago egin behar dute.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Garraio gastuak.** Eusko Jaurlaritza. Unibertsitateetako ikasleen eguneroko garraio gastuak ordaintzeko dirulaguntzak 2009-2010. Eskabideak interesatua ikasten ari den unibertsitate-ikastegian aurkeztuko dira. Epea: urtarrilaren 30a.

**> Graduondokoak eta praktikak.** MAEC-AECID Bekak. Brasileko unibertsitateetan graduondoko ikasketak eta espainiako enpresetan praktikak egiteko tordesillas bekak. Epea: urtarrilaren 29a.

**LANA**

**> Lan arriskuen prebentzio teknikaria.** Arrasateko Udala. Aldi baterako lanpostua betetzeko deialdia. Epea: urtarrilaren 18a.

**> Euskal Literatura sustatzeko lan-poltsa.** Euskal Idazleen Elkarteak lan-poltsa osatu nahi du administrazio, kudeaketa, komunikazio eta zuzendaritza arloetan. Epea: 2010eko urtarrilaren 15a baino lehen.

**LEHIAKETAK**

**> Iragarkiak.** Mugarik Gabe erakundea. Zurevision-Socialvision Nazioarteko III. Publizitate Spot-en Lehiaketa. Gaiak: genero-berdintasuna, emakumeak, kulturartekotasuna, banakako nahiz taldeko giza eskubideak, ekologia eta garapen iraunkorra, globalizazio neoliberala. Spoten iraupena: 45 segundu. Epea: urtarrilaren 31.

**> Nontzefilmak.** Nontzeberri atariak zine eta animazio laburren on-line lehiaketa antolatu du. Epea: otsailaren 26a.

**DEIALDIAK**

**> EGA azterketa.** EGA-ren azterketara aurkezteko asmoa baduzu, deialdi irekian izena emateko epea urtarrilaren 11tik 22ra egongo da irekita.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 11



**> Ivan Velasco txirrindulariarekin berbetan**
**22:15**

Euskaltel Euskadi taldeko Ivan Velasco txirrindulariarekin egingo du berba Xabier Urtzelaik *Harmailatik* programan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Sakonduz.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 12



**> Irati Jimenez idazlea 'Ilunpean' programan**
**22:15**

Irati Jimenez idazle eta kazetaria elkarrizketatuko du Jon Berezibar arrasatearrak aste honetako *Ilunpean* programan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Wazemank.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Wazemank.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 13



**> Andoni Gartziari elkarrizketa 'Magazinea'-n**
**19:45**

Andoni Gartzia Garaia berrikuntza guneko zuzendari orokorra elkarrizketatuko dute sakon *Goiena Magazinea*-n .

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Udazken loreak.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Sakonduz.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 14



**> Ibarreko gaztetxoak 'Kantari' saioan**
**13:45**

Debagoieneko gaztetxoen kantu eta koreografiak ikusi eta entzun ahal izango dira GOITB-ko *Kantari* programan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erreportajea.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Sakonduz.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kalekantoi.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 15



**> Eguneko notiziak 'Berriak' albistegian**
**14:45**

Debagoienean egunak eman dituen albisteak jasko dituzte albistegietako kazetariek *Berriak* izeneko albistegian.

**<13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Udazken loreak.
**23:15** Kale kantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Etxeko lanak egiteko aholkuak astelehenean**
**10:00**

*Txukun eta garbi* izeneko tartea estreinatuko dute astelehenean Arrasate Irratiko *Igo autobusera* irratsaioan. Bertan, etxeko lanak egiteko oinarrizko gomendioak emango dituzte, eguraldiaren iragarpenaren ostean. Bainet etxeak kaleratutako liburuan oinarrituta dago *Txukun eta garbi* tartea.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; loraategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## telealbisteak

**GOITB** > GIPUZKOA KULTURA

# Ikastoletako lehen andereñoen omenaldia 'Gipuzkoa Kultura'-n

Maite Iridin soprano euskaldunak Marife Nogalesekin egindako kontzertuaren irudiak ere eskainiko dituzte egueneko programan

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Ikastolek izan zituzten lehen andereñoek jaso berri omenaldiaren berri emango dute, besteak beste, egueneko *Gipuzkoa Kultura* programan.

Emakume horiek Gipuzkoako Aldundiaren urrezko domina jaso zuten abenduan Aldundian bertan, Markel Olano Gipuzkoako aldun nagusiaren eskutik. 60ko hamarkadan ikastolen alde eta orohar hezkuntzan egindako lanagatik saritu gura izan zituen Aldundiak emakume koadrila hori.

**MAITE IRIDIN**

Horrez gain, Maite Iridin soprano euskalduna ezagutzeko aukera ere emango du egueneko *Gipuzkoa Kultura* programako atalak. Izan ere Iridini buruzko 10 minutuko erreportajea emitituko dute. Tartean egongo dira, adibidez, bere adierazpenak eta baita Gabon jaietan Marife Nogalesekin batera eman zuen kontzertuaren irudiak.

Gaur egun Lapurdin bizi den Maite Iridinek euskal konposatzaileek egindako lanak ditu gustuko batez ere, tartean Aita Donostiak edo Jesus Guridik konposatutako piezak.

## telealbisteak

> ETB

### Antxon Urrusolok beteko ditu ETB2-ko arratsaldeak

Euskal Telebistako zuzendaritzak *Pásalo* programa kentzea erabaki du eta Iñaki Lopez eta Adela Gonzalezek orain betetzen duten tartea, Antxon Urrusolok beteko du laster.

Oraindik zehazteke dago noiz bukatuko den lehena eta noiz hasiko den bigarrena, baina Urrusolo dagoeneko prestatzen ari da bere programa eta lan horiek bukatzen dituen bezain pronto hasiko da emititzen. 2000-2001 denboraldian egon zen azkenekoz Urrusolo ETBn, *Cien por cien* programarekin. Programa berriak zer izen izango duen ez dute oraindik jakinarazi, baina bai K2000 produktorak ekoiztuko duela. Programako edukiari buruz, berriz, umorea izango duela iragarri du Antxon Urrusolo berak, eta tertuliakideak ere izango dituela.

> TDT

### Urtarrilaren 30an etorriko da itzalaldi analogikoa

Urtarrilaren 30an itzaliko da seinale analogikoa Debagoienan, Antzuolan eta Aramaion izan ezik. Bi herri horietan hilaren 10ean, atzo, zen itzaltzekoa.

Itzalaldi analogikoaren aurrean Goiena Telebista lanean ari da data horretatik aurrera, urtarrilaren 30etik aurrera, hain zuzen ere, digitalean emititzeko Muruko antenatik. Horrela, Arrasate, Aretxabaleta, Leintz Gatzaga eta Aramaioko zati bat izango dira lehenengoak GOITB digitalean ikusten. Ondoren etorriko dira Oñati eta Bergara eta beranduago Elgeta eta Antzuola.

Murutik seinalea hartzen dutenak urtarrilaren 30a baino lehen ikusiko dute GOITB digitalean eta gainerako herrietara ere ahalik eta azkarren heltzeko lanean ari da Goiena Telebista.

## zorion agurrak



ARETXABALETA
**Eider Zuazubizkar Rico**
Abenduaren 18an, urtebete. Zorionak, Eidertxo etxekuen partetik! Jada urte bat!

OÑATI
**Xabier Agirre**
Abenduaren 21ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna etxeko danon partetik! Bisca Barça!

ARRASATE
**Ramon Ramila**
Urtarrilaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak, *vividor*! Nagusixak izeten garenien zeu moduen bizi gura dogu! Urte askotarako.

ESKORIATZA
**Esti Azpitarte**
Abenduaren 24an, 28 urte. Zorionak, mattia! Eztakitx zelan itxen dozun, baina urtero gero eta gaztiau igerketan zaittut, je je. Edarto pasatu eguna! Ah,eta aurten ixotutako garra ezta itxungiko...

ARRASATE
**Marta Calderon**
Abenduaren 25ean, 21 urte. Familia, lagun eta maite zaitugun guztion eskutik zorionak eta egun ona pasatu!

ARRASATE
**Iraitz Gutierrez Kortabarria**
Abenduaren 26an, 14 urte. Zorionak Iraitxo! Ia holako nobixo bat topatzen dozun, edadien aurrera zoiez eta! Muxu bat Tenerifetik Aitziber, Igor, Alatz eta Intzaren partetik. Mua!

OÑATI
**Lide Kortabarria Suarez**
Abenduaren 26an, 8 urte. Zorionak etxeko danen partetik eta ondo-ondo pasa tuzure urtebeteze eguna.

ARRASATE
**Maddi Gonzalez Balantzategi**
Abenduaren 26an, 5 urte. Zorionak, printzesa. Etxeko danen partetik ondo-ondo pasatu eta mila muxutxo!



ARETXABALETA
**Eider Altube Iturricastillo**
Abenduaren 27an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztion partetik.

ARETXABALETA
**Irati Guenetxea Bengoa**
Abenduaren 28an, 4 urte. Zorionak eta patxo handia!

BERGARA
**Laida Unamuno Lopez**
Abenduaren 29an, urtebete. Zorionak, politxa! Muxu handi eta potolo bat Zaloa, aitatxo eta amatxoren partetik. Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzea.

ARETXABALETA
**Aitor Ruiz de Austri Izagirre**
Abenduaren 30ean, 10 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.

OÑATI
**Aratz Etxeberria**
Abenduaren 30ean, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik.

BERGARA
**Marisa Escobar**
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, ama! Muxu eta besarkada handi-handi bat etxekoen partetik, bereziki Uxuek.

ARRASATE
**Alaitz Laskurain**
Urtarrilaren 1ean, urtebete. Zorionak, prexioxa aitatxo, amatxo, Unai, Haizea eta Estherren partetik.

OÑATI
**Naroa Olalde Galdos**
Urtarrilaren 5ean, 8 urte. Zorionak, printzesa. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. 8 patxo handi Maia, aitatxo eta amatxoren partetik.

ARRASATE
**Aure Matilla Urrutia**
Urtarrilaren 3an, 38 urte. Zorionak, koko! Azkenean zure argazki bat! Oso ongi pasatu eguna, marrubizko muxu asko laguntxo guztien eta, bereziki Beñat eta Marenen partetik. Ongi hasi urtea, *guapo*!



OÑATI
**Leire Zelaia Arrese**
Urtarrilaren 5ean, 12 urte. Zorionak, Leire! Muxu handi asko Nerea, aitatxo eta amatxoren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna.

BERGARA
**Oihan Zubiaga Ilarduia**
Urtarrilaren 5ean, 2 urte. Zorionak eta patxo asko zure amamen eta beste guztion partetik! *Bamos txaaaatxo*!

OÑATI
**Naroa Moreno**
Urtarrilaren 6an, 2 urte. Zorionak, Naroa! Jada bi urte. Musutxu bat aitatxoren eta amatxoren partetik.

ARRASATE
**Iker Arenaza Pagaldai**
Urtarrilaren 6an, 6 urte. Heldu da dagoeneko. Zorionak eta muxu potoloak etxeko erregeari, aita, ama eta Haizearen partetik.

ARRASATE
**Fernando Oncala**
Urtarrilaren 6an, 67 urte. Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik!

OÑATI
**Uxue Ugalde Urkiola**
Urtarrilaren 6an, 7 urte. Gure "katutxoak" zazpi urte betetzen ditu. Bera bai etxeko erregina politena! Zorionak Beñat, Amaia, aita eta amaren partetik. Zazpi patxo handi!

ARRASATE
**Montse Oncala**
Urtarrilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak amatxo maitia, eta urte askotarako. Patxito handi bat.

OÑATI
**Maria Reyes Telleria**
Urtarrilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, ama. Espero det ondo pasa izango dezula eta ea txokolatada on bat jartzen diguzun!

OÑATI
**Aimar Madina Zubia**
Urtarrilaren 6an, 6 urte. Zorionak, Aimar! Patxo handi bat etxeko danan partetik.



BERGARA
**Markel Martinez Garitano**
Urtarrilaren 6an, 2 urte. Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik!

ARRASATE
**Pili Seco Moreno**
Urtarrilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak eta besarkada handia Silvia, Gorka eta Rafaren partetik.

ARRASATE
**Alaitz Azula Urrutia**
Urtarrilaren 7an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.

OÑATI
**Ibai Moiua Reinstadler**
Urtarrilaren 7an, 6 urte. Zorionak, Ibai, potxolo. Etxeko guztion partetik patxo potolo bat eta ondo pasatu zure urtebetetzean.

OÑATI
**Haizea Lopez Lasa**
Urtarrilaren 7an, urtebete. Elurrak ekarri zigun Haizea! Alai eta zoriontsu! Jarraitu horrela, maite! Zorionak eta patxuak etxeko guztien partetik!

OÑATI
**Izaro Sampedro Elorza**
Urtarrilaren 8an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Patxo handi bat Maialen, aitatxo eta amatxoren partetik.

BERGARA
**Gorka Domenech**
Urtarrilaren 8an, 5 urte. Zorionak pitxin, oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu potolo bat familiaren, eta bereziki, Aratzen partetik.

OÑATI
**Alain Enciso Elkoroiribe**
Abenduaren 19an, urtebete. Zorionak guapeton! Muxu potolo-potolo bat familiaren partetik. Urte askotarako. Muaaa!

OÑATI
**Eneko Mugarza Aurre**
Urtarrilaren 10ean, 3 urte. Zorionak, Eneko, familia guztiaren partetik eta muxu handi bat, Irati, aitatxo eta amatxoren partetik!



ARRASATE
**Lander Lopez Kortabarria**
Urtarrilaren 10ean, 33 urte. Zorionak eta urte askotarako, Lan! Txuletak prepararaitten fan gu gosetuta agertuko garaeta. Etxeko danon partetik 33 muxu potolo, batez be Uxue eta Elaiaren partetik.

ARAMAIO
**Eneritz Kortabarria Elorza**
Urtarrilaren 10ean, 6 urte. Urte askotako eta sei muxu erraldoi Ibon, Anje, amatxo Mertxe eta aitatxo Ionen partetik.

ARETXABALETA
**Urko Altuna Berasaluze**
Urtarrilaren 11n, 5 urte. Zorionak, txapeldun, bihotz-bihotzez amatxo eta aitatxok.

ARRASATE
**Julen Ugalde**
Urtarrilaren 11n, 4 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat etxekoen, eta bereziki, Iraia eta Garaziren partetik.

ARETXABALETA
**Araitz Lizarriturri Etxenausia**
Urtarrilaren 11n, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo pila bat familixa danan partetik!

ARRASATE
**Jakes Sarabia Mendia**
Urtarrilaren 12an, 4 urte. Zorionak, *"el zorro"*! Ondo pasatu eta muxu asko Julenen partetik.

OÑATI
**Uxue Igartua Kortabarria**
Urtarrilaren 14an, 3 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik.

OÑATI
**Irati Mugarza Aurre**
Urtarrilaren 14an, urtebete. Zorionak, *txikitina*! Eneko, aitatxo, amatxo eta familia guztiaren partetik. Muxu handi bat.

ARRASATE
**Oihan Astaburuaga Zabalo**
Urtarrilaren 16an, 6 urte. Zorionak eta patxo handia etxekoen partetik.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).**




ESKELA

## Juan Joxe Agirre Aranguren

Antzuolan hil zen 2010eko urtarrilaren 9an, 57 urte zituela.



Haren arimaren aldeko meza astelehenean, urtarrilaren 11n, 19:00etan, Antzuolako Antiguako ermitan.
Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.
—
Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, mila esker.

Antzuolan, 2010eko urtarrilaren 11n.

URTEURRENA

## Lucia Peña Etxeberria

Jose Maria Markinaren alarguna



Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## asteburuko albuma



**'Paperezko zirkua' Arkupen.** 3 eta 6 urte arteko haurrendako ikuskizuna izan zen zapatuan Aretxabaletan. Arkupeko liburutegira gerturatu ziren haurrek amesteko aukera izan zuten Apika antzerki taldearen *Paperezko zirkua* ikuskizunaz. Liburutegiaren goxotasunean eta obra bertatik bertara jarraituz, etxeko txikienek zirkuko izar ahaztezinak ezagutu zituzten: funanbulistak, magoak, pailazoak... Irudimena abiapuntu hartuta, besteak beste, laguntasuna, adeitasuna eta elkarlana moduko balioak jaso zituzten haurrek.

## jaiotakoak



**Oihana Bolinaga Arregi**
Bergara > 2,890 kilo. Abenduaren 26an. Gurasoak: Maider (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Oihana jaioberria, sehaskan lo.



**Unai Blazquez Plazaola**
Oñati > 5,000 kilo. Abenduaren 29an. Gurasoak: Eider (Oñati) eta David (Oñati). Argazkian, Unai jaioberria, amarekin.



**Saioa Perez Azkarragaurizar**
Elorrio > 4,010 kilo. Abenduaren 30ean. Gurasoak: Maite (Elorrio) eta Jesus (Elorrio). Argazkian, Saioa jaioberria, sehaskan.



**Lartaun Aiastui Izarzuaga**
Aretxabaleta > 3,420 kilo. Abenduaren 27an. Gurasoak: Olatz (Aretxabaleta) eta Josu (Arrasate). Argazkian, Lartaun jaioberria, Uxue lehengusinarekin.



**Izar Agirrebeitia Zubiaurre**
Elorrio > 3,900 kilo. Abenduaren 26an. Gurasoak: Maite (Elorrio) eta Jose (Elorrio). Argazkian, Izar jaioberria, sehaskan lo.



**Mara Zubizarreta Caballero**
Eibar > 3,550 kilo. Abenduaren 15ean. Gurasoak: Eli (Eibar) eta Txomin (Eibar). Argazkian, Mara jaioberria, gurasoekin.



**Maitane Barrutia Pont**
Bergara > 3,150 kilo. Gurasoak: Lizay (Cuba) eta Juan Luis (Bergara). Argazkian, Maitane jaioberria, amarekin.



**Garaitz Alonso Dalmau**
Arrasate > 3,050 kilo. Abenduaren 31n. Gurasoak: Aintzira (Arrasate) eta Abel (Arrasate). Argazkian, Garaitz jaioberria, gurasoekin.

BABESLEA




Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-01-11

**Irati Jimenez** > Idazlea eta kazetaria

# "Ipuin zein gezur, biak antzeko eta beharrezko"

JON BEREZIBAR > BERGARA

**Ipuinak bizitza guztian zehar irentsi eta gero, orain berari tokatzen zaio guri ipuinak kontatzea. Azkena: *Nora ez dakizun hori*. Fantasia eta errealitatea nahastuta.**

**Liburuan banpiroak, otsogizonak, aingeruak... aurki ditzakegu. Horietatik zein izango zinateke zeu?**

Idazleak neurri baten banpiroak gara. Idazle moduan, ni behintzat, besteen ideiak eta, hala edo hola, besteen bizitzak "lapurtzen", ""xurgatzen" sentitu izan naiz inoiz; inguruan zer gertatzen den, zer ikusten dudan, hori nire fikzioetan sartzen, mozorrotuta bada ere. Beraz, banpiroa esango dut.

**Paperean ipuinak idazten trebea zaitugu, errealitatean ere kontatzen iaioa zara?**

Paperean sortzen ditudan ipuinek errealitatetik edaten dute. Are gehiago, nik ez dakit errealitatea bizitzen errealitatea kontatu gabe. Errealitatea geure buruari kontatzen diogun ipuina ez bada, zer da orduan?

**Kazetaritzan ere ipuin larregi kontatzen dira?**

Nik, hain zuzen, horixe eskertzen diot kazetaritzari. Kontakizunak, errelatoak, kronikak nola eratu eta osatu behar diren erabakitzeko orduan irakatsi didana. Kalitate-prezio harreman latza duen lanbidea da. Asko eskatzen zaie kazetariei, berezikі bokazioaren izenean eta lan egoera negargarrietan egiten dute lan nik ezagutzen ditudan kazetari gehienek. Erraz egiten du gizarteak kazetarien kritika eta nik ere egiten ditut asko baina esker txarreko ogibidea da eta hori ez da esaten.

**Umetako ipuin bat aukeratu beharko bazenu, zein?**

Aitak idatzi zidan *Itsastxorien ipuina* izeneko bat. Gaua zulatzen zuen gizona agertzen zen eta koloretako errotulagailuekin idatzi zidan, eskuz. Oraindik hementxe daukat. Asko maite nituen, ikaragarri, Atxagaren *Siberia Treneko Ipuin eta Kantak* eta Andu Lertxundiren Madame Kontxesi Uriberen abenturak. Tintin zale amorratua ere banintzen.

**Eta umetako zein pertsonaiarekin?**

Ez dakit, uste dut erosoago sentitzen nintzela lagun talderekin, nolabait, ipuinen gidoiak edo asmatzen gero pertsonaia bat edo beste izaten baino. Txikitan ikasi nuen zeuk ipuina asmatzen baduzu, pertsonaia guztiak izaten zarela.

SOSLAIA

## Bizitzeko ipuin bat

Ipuin batean bizi baino bizitzeko ipuinak behar omen ditu. Dio bakoitzak berea asmatu behar duela: "Batzuek bihar gaur baino hobeto biziko direla kontatu behar diote beraien buruari, edo konponduko dela ezinegonen bat, edo aldatuko dutela lana, edo sendatuko dela sendaezina dirudiena". Eta berak: "Egun zoragarriak datozela esaten diot nik neure gogoari; benetan sinisten dut eta gezurra dela esaterik ez dago. Ipuinak eta gezurrak, biak antzekoak dira eta biak beharrezkoak".



Idazlea, haren azken eleberria eskuan. ARTXIBOA

**ai, ene!**



## Coca-cola, bateria ere

Daizi Zheng diseinatzaile txinatarrak edari azukredunarekin dabilen mugikorraren prototipoa atera du. Entzimak katalizatzaile moduan hartuta, azukrea elektrizitatea sortzeko gai da. Litiozkoak baino gehiago irauten duela dio.

http://www.nopuedocreer.com

**biharamuna**

Marijo Deogracias

## 2010, urte borobila?

Urte berria eta entzun dugun izena: **Jose Ignacio Munilla**. Gipuzkoako gotzai berria. Bitxiena: elizak hainbeste titular izatea. Granadako artzapezpiku **Francisco Javier Martínez**ek merezi du, baina, titularra; ia atxilotzen duten behingoz, era honetako astakeriak esateagatik: "Si la mujer aborta, el varón puede abusar de ella". Nola daiteke elizak era horretako *gizonak* izendatzea sinisdunen bidea zuzentzeko?

2010. **Obama**k Bakearen Nobel saria merezi duela erakutsi beharko du; Yemen erasotzea erabakitzen ez badu. 2010. **Basagoiti**k **Lopez**ekin atzera hitzarmena berretsiko du; ez bada **Raxoi**k hauteskundeak irabaz ditzakeela sinesten duela eta gure herrian, eurek *ezberdina* dela erakutsi diguten herrian, beste zerbait egitea adosten dutela.

2010. **Zapatero**k Europan aginduko duen urtea. Ea ikasten duen Iparraldeko herrialdeen fiskalitate progresiboagoa aplikatzen; ez dezala behintzat ikasi Danimarkako atxiloketa eta inkomunikazio teknikarik. Baina zertaz nabil? Greenpeaceko kide **Lopez de Uralde**ri aplikatu dioten atxiloketa sistema bera jasan beharrean dira-eta geroz eta euskal herritar gehiago!

2010. Zorte on!



**eguraldia**



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +5 | -3 |

Oro har lainotuta egongo da egun osoan. Elurrik ez, izotza bai; maximak zertxobait igoko diren arren, hotz handia egingo du-eta.

www.euskalmet.net





*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.
Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51